



Jose Mari Aranalde

Bihotzak dion hura



32962
GAS-129/7



EUSKALTZAINU · A
Arabako Ordezkaritza

Bihotzak dion hura

Auspoa Liburutegia
258



AUSPOA • SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Jose Mari Aranalde

**Bihotzak
dion hura**

Auspoa Liburutegia
(1999)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-86-0

Depósito Legal: NA.: 699-1999

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Sarrera

Ez dakit zerk liluratu ninduen aurrena, gizonak ala bertsolariak. Ni gizon haren esanek eta esateko moduak, bai beraren ahots sendoz eta bai arrazoi ezohikoz, hartua edukitzen ninduten, txoria sugearen xixtuak bezala.

Begi-begietan daukat oraindik nola haren eta nere aitaren erdian ahoxabalik eta hari beha-beha aurpegira ni mutikoa nola egon nintzen gure etxeartarian. Oraintxe balitz bezalaxe daukat gogoan.

Martintxo zen gizon hura. Geroz konturatu nintzen etxearena zuela deitura hori. Nik artean ez nekien haren izen-abizenik, eta bertsolaria zenik ere ez. Zurgina zela nekien bakarrik, eta gure aitak hari enkargatu ziola artoa ereiteko makina berria.

Bertsolaria zela entzuten hasi nintzenean, kantatzen entzun gabea nuen artean. Ona zela esaten zuten. Tolosako tabernetan-eta bertsotan hasten zenean, jendea nola egoten zen hura entzuten esan ohi zuten. Astelehenetan izaten zen hori gehiengotan, egun horretan jaisten baitziren gizonezkoak perira, batez ere. Aparteko notizi bezala ibiltzen ziren orduan ahoz-aho bertsolarien kontuak. Behin gogoan daukat nola eraman zuten herrira notizi haundi bezala, Uztapide eta Zepai bertsotan ari omen zirela Tolosako taberna batean. Bertsolaria ez zen edozer gauza garai haietan. Bazuen mito-aire bat, gaur esango litzakeen bezala.

Gure Martintxo bertsoan entzutea ez dakit noiz tokatu zitzaidan, baina badakit gure gurasoen tabernan izan zela. Ez zen guk nahi orduko hasten.

Batzutan ez zuen lagunik izaten bertsoarako; baina gehienetan bai, taberna ezkerero, bertsolari asko izaten baita.

Askotan Erramun Garrorekin entzun nuen. "Garro Txikia" esaten genion guk nik ezagutu dudan txiste eta ipuin kontalaririk paregebeenari. Haiek parrak eginarazten zizkigun! Martintxoren lengusu propioa zen. Berak kantatu eta berak par egin aritzen zen Martintxorekin. Ondo toreatzen zuen bere lengusua. Beste guztiok bezalaxe, Martintxok ere bere heldulekuak bazituen, eta haietatik oso ondo tiratzen zion eta egoki atakatzen zuen bertsoak atera erazteko. Gozatu ederrik eman zuten, inoiz aspertutxoren bat hartu bazuen ere jendeak.

Haien bertsoarako ordua, gehienetan, iluntzetan eta gauetan izan ohi zen, Tolosan perian izanda herriratzen zirenean. Eta haiek bertsoan hasterako, ia beti, guri lotarako ordua irixten zitzaigun, eta bertsolariak entzuterik ez. Gainera gure gurasoei ez zitzaien gustatzen gu haundien kontuak eta saltsak aditzen egoterik, "kontuak jaten" alegia, haiek esaten zuten bezala. Beraz bertsoak hasterako, edo hasita berehala, askotan hoberen-hoberenean, gu ohera. Hura pena gurea!

Koartotik ere saiatzen ginen entzuten. Atea txirrikatu eta han belarria jarri eta horrela egoten ginen haien bertsoak entzuten. Inoiz goizaldera ere jeiki izandu ginen eta atearen txirrikituan belarria jarrita entzuten egon. Horrelakoxea zen orduko gure zaletasuna.

Gure arreta haren lekuko da, orain hemen jarriko dudan bertsoa. Gure Miel anaia zenak jaso da, nik behin bakarrik eta Gaztelun entzun nuen ber-

tsolari bati, Errezilko “Goina” zenari. Plazatik gure-ra etorri eta zerbait hartzen ari ziren, mahai baten bueltan jarrita. Plazan kantatutako laurak ziren: Gure Martintxo, Asteasuko Ondartza eta Ibia, eta Errezilko Goina hori.

Nik ez nuen entzun bertsoa. Nere anaiak jaso zuen, halakoa zuen izan ere-eta harek burua. Hona hemen:

“Nekauen la puñeta
eta errekoño,
HIZKETA ITSUSIA
IZANGO DA BAÑO
oraingotikan noa
hemendik horraño:
zertan ni izurratzen
horrenbeste enpañõ”.

2. puntua berezi egin dut, ez bainago seguru-seguru horrelaxe-horrelaxe zenik. Beste guztia bai, horrela da. Bego hor Goina zenaren ohoretan eta gure anaia zenaren gogoangarritan.

Horrelaxe hasia da nere bertso-bidea. Badut gerroztik hamaika ordu sarturik eta hamaika ibili eginik eta hamaika pentsaketa erabilirik eta beste hamaika ahalegin eginik bertsoaren eta bertsolarien giroan! Eta beti bertsoaren edertasun bila eta bertsolariaren hobebegarrez, gure herriaren gauza hori bikaindu asmoz eta jendeari produktu on bat eskaini nahiz. Denak kontatzen hasiko banintz...

Baina nere ibili horien berri badu, gutxi asko, bertsozaleak, eta nere pentsamenduaren berri ere bai, itzez adierazia ez ezik, idatziz ere emana baitut askotan.

Liburu honetan berririk, izatekotan, bertsoak dira. Barruak eskatzen zidanetan eginak ditut

gehienak. Beste ehundaka batzuk ere badira hor nonbait, baina haiek biltzen hasterik ez dago. Zertarako gainera. Ezin hasiko gara bandoa jotzen.

Argitaratzeko asmo haundirik ere ez nuen, behin SENDOA etxeko Joakin Berasategik galdetu zidan arte, ea ez al nituen publikatu behar. Horrek gu bezalakoaren huskeriak ere publikatzen ditu, eta bihoaz lau haizetara, lotsarik gabe munduan ibiltzeko modukoak ere badirela uste baitut batzuren batzuk.

Askok eta askok, bertso horietan, norberegiak izatea izan dezakete aitzaki irakurlearentzat. "Bihotzak dion hura" ez da berdin bihotz guztietan, eta norberarentzat utzi-ezineko den hura, ezer ez izan daiteke beste norbaitentzat. Baina korda berdinek ere badela esango nuke nik denon bihotzetan eta gutxi-aski sintoniatu dezakeegula batak bestearekin. Esperantza horrekin doaz.

Ama Nerea

Maria Olaondo Ormatxea zen gure ama. Gaztelun 1909an jaioa, urtarrilaren 24ean, eta Ibarren hila, 1996ko azaroaren 30ean. “Anaiei lo harrazten ikasi nuen aire xamurrean” eginez hasten dut kantua. Haietakoren bat besoan edo seaskan nuela, honela kantatu ohi nuen: “A lolo, corderito mi niño, a lolo, corderín de amor. Así le cantaba la Virgen a su divino Redentor”. “Haurtxo txikia negarrez dago...” bezala.

Anaiei lo harrazten ikasi
nuen aire xamurrean
kantari hastera noa, ama,
berorren gorasarrean.
Neretzako bakarrik bederen
nago esan beharrean
nolako zerua izan dutan
nik berorrekin lurrean.

2 Bi besoak zabaldutzen zaizkit
bakarrik nagoenean
sendimenduek zunpa egiten
baididate barrunean;
esan beharrak hitzen larruan
kabitzen ez direnean,
keinuek gehiago diote
beren mututasunean.

3 Esan, zer ez dezaket nik esan,
ene bihotzeko ama!
uste baino lehenago eta
ustekabeen joana.
Pena bat daukat ene barnean
aterako etzaidana;
azken-ordu sakratu haretan
han ondoan ez izana.

4 Esaten hasi eta esango
nion hitzaz edo malkoz;
“Gaurtik aurrera zeru aldean
badute bi halako poz,
andre harrigarriagorikan,
dena buru, dena bihotz,
Andre Maria salbu, zeruan
inoiz sartu ez delakotz.

5 Beste guztientzat poza eta
etxekoentzat zer esan?
Aita buru dutela zer festa
egingo dioten gaur han!
Orain artean zerua zer zen
zeudenak jakin ustetan,
berorrekin ikasiko dute
egizko zerua zer dan.

6 Berorren sarrera izango da
benetan miresgarria;
Etxeko eta gainerakoak
ezpainetan zer irria!
Ezpainetan irria eta bi
begietan zer argia!
denen ahotan lertzen delarik
izen bakar bat: ‘MARIA’”.

- 7 Gero nerea esango nion,
ez dakit nik nola baina;
nola bizia eskatzen nuen
berorri zaintzeko aina,
hori eginda uste bainuen
dena neukala egina.
Orain zertarako nagon hemen
daukat asmatu ezina.
- 8 Eta esan ... esan edo behintzat,
negar, malko eta antsi,
beharko nion nedukan min bat
nolabait adierazi;
ez nuela berorrekin izan
behar hainbat pazientzi,
eta barkatzeko baldin eta,
banion sufriarazi.
- 9 Eskutik helduko nion eta
egingo genuen negar;
zer negarra gure hura eta
zer bihotzen lertu-behar,
barnean pizten zitzaigularik
gure zorion-ortzadar!
Zeruak eta lurrak betiko
hantxe joko zuten elkar.
- 10 Zeru-errainu bat senditzen dut,
ama, berorren itzala,
begiek galdu dutena baita
bakar-bakarrrik axala.
Nai duenak nai duena esan
edo pentsatu dezala;
gu biok elkarrekin gerade,
ama, len ginen bezala.

Munduak jakin dezan

Ilobajende haundia dut nik; jaio eta zenbait urtez nere besoetan ibilitakorik ez dut, bertsotan esaten dudan Deñe eta Nerea besterik.

Biek batera egin zuten Lehenengo Jaunartzea, nahiz eta segirako urte banatakoak diren, "urte bat eskasarena" badute ere aldea.

Egun horretarako prestatu nituen bertso hauek gure arteko festak kontatuz.

¶

Deñek eta Nereak
gaur Jaunartze egun
zelebra dezagun
kanturik ederrenak
harturikan lagun.
Bihotzak dion hura
eztarriz erantzun
munduak jakin dezan
bi iloba kuttun
osaba gizarajo
batek nola ditun.

- 2 Deñe sortu zitzaigun
bietan aurrena,
Nerea hurrena,
alde guztia urte
bat eskasarena;
martxoa dute hila,
primaberarena,
hogeitabostak zuen
ekarri lehena,
eta hogeiak berriz
hurren zetorrena.
- 3 Bi maite hauek beren
segira bazuten,
ez ordea zuzen;
txilborresteak ito
ta eraman zuen.
Beltxaran-beltxarana
hirugarren hau zen,
osabaren bistatik
ez baita itzaltzen...
Gotzone hartua du
zerurako izen.
- 4 Aingerua zerura
deabruak hemen,
hauxen da zoramen!
osabaren magala
izan da libreen;
beso banatan hartu,
belaunetan hurren,
kolkora biltzen ditut
ahalik laisterren...
Guk badakigu ongi
gozamena zer den.

5 Kontua ta kantua,
muxua ta festa,
hor besterik ezta,
atean utzi behar
buruan den kezka.
Ipurdiak dantzari,
mingainak galdezka,
eskuak geldi ezta,
nondinaitik hozka...
Gure pakea zer den
asmatzen errez da.

6 Magaleko saioa
hor buka baledi
halare gaitzerdi;
laister behar, ordea,
zutitu ta segi.
Kolkoan nituenak
orain bizkar-aldi,
lurrean nadukate
eginikan zaldi...
Zer jinete pareta
ni zaldi banendi!

7 Ordua iristean
badoaz ohera,
bakoitza berera.
Koartoko bidea
ikasiak gera!
Mantapetan sartuta
hartu dute era,
nik otoitz egiteko
belaunak lurrera.
Hirurok egin dugu
dakigun moldera.

8 Muxuak dira gero.
Biei mordo bana...
Al dakit zenbana!
Hasi ta ezin buka
bihotzaren lana,
jango eta ezin jan
laztanak laztana,
bat izan nahi eta
bat ezin izana...
Zerurako uzten dut
hemen falta dana.

Bertsozale haundi bati

Antton Ibarguren zenaren hileta-mezetan kantatuak dira. Irakurleak dakikeenez, Himalayan galdu zen gure Antton. Elkarrekin ginen guztietan bertsoan bukatzen genuen beti. Haatik diot “Gure betiko bertsozko legez” hori. “Haurtxo txikia negarrez dago” bezala.

1 Gure betiko bertsozko legez
natorkik gaur ere, Antton;
bihotzen solaserako nola
inoiz urrunik ez dagon.
Hi Himalayako puntan eta
naiz gu gauden Antiguon
maiteak maiteekin zitezkek
bakar-bakarrikan egon.

2 Lehengo bera haugu hi eta
gu ere gaituk lehengo.
Hire maiteak nola diraden
zertako diat esango?
Hire bihotz haundiaren faltan
zer min ez ditek izango!
Emaztearen begi gorriek
ditek aditzen emango.

3 Etxeko zuloaren haundia!
baina ez zulo bakarra:
pobreek ere hasia ditek
beren kezka marmarra;
beren ogia defenditzeko
non aurki orain indarra
hi bai induten orain artean
beren babesle azkarra.

4 Min dik herriak ere holako
gizona galdu izana,
urria baita hi bezalako
abertzaleen andana.
Hemen gelditzen duk hire oroiz
gaurkoan guk hitzemaña;
bukatuko dugula herrian
zuek hasitako lana.

5 Zuri Himalaya elurretan,
zuri Tabor-gaina argiz...
Mendia duzue Pedrok eta
biok hauta atsegin-tokiz.
Egizue ezta eta festa
egindako lanen sariz.
Gu goazenean gaituk, Antton,
bertsotan ariko berriz.

Añorgako sakristau zena

Blax Gastesi zituen izen-abizenak gure sakristau maiteak. Naparroako Irañeta herrikoa zen jaiotzez, eta lan bila Añorgara etorria, beste asko bezalaxe.

Gorputzez ez zen haundia; baina bai sendoa eta bizkorra. Goizeko bosteterditarako han izaten zen igandero, sei retarako mezetarako orduerdi bat lehenago kanpaiak joz, uda eta negu, hutsegina gabe. Eguerdiko hamabietako meza bukatu arte han aritzen zen.

Seiretako meza bukatu, eta zortzietakoa hasi bitartean, formak egiten eta horrelako lanetan aritzen zen, asterako zenbait lan guri aurreratuz. Zortzietakoa eta hamarretakoa bitartean, gosalduta egiten zuen bakar-bakarrik sakristian. Etxetik ekarritako bokadiloa litro-laurderen bat ardorekin. Zenbat aldiz sumatu ote nuen ondorenean kantari! Elizako kantak ia beti, edo beti.

Hura gustoa zen gizon hura meza laguntzen eta aldare inguruko zereginetan ikustea! Sakristian lanik ez bazuen, meza guztiak entzuten zituen. Azkenean -hamabietan izaten zen- bukatu, sakristiko ateak itxi, diru-poltxa hartu, hura erretoretxean entregatu, han bidez baxo bat ardo hustu eta etxera gure Blax bere bastoia eskuan zuela. Zer oroitzapena utzi zuen gizonak, haren inguruan ibili gintzaizkionongan!

Hamaika mezalaguntzaile ere ibili zen urte haietan haren inguruan; baina ez dut uste inork gaizki esateko haundirik izango duenik. Urtero elkarrekin egiten genuen egun-pasa bat harek, mezalaguntzaileek eta nik. Parrokiaren kontura izaten zen.

Bazterren batean ederki bazkalduta kantari itzultzen ginen. Behin pasa egin zitzaigun edanarekin. Haiek parrak gureak! Zugarramurdin ginen eta hango kobazuloak ikustera joan ginenean, lurpeko bidexka eta koska haietan, erori egiten zitzaigun, eta eutsi egin behar guk. Par egiten zuen berak ere, eta leher gaizto egin genuen guk parrez.

Jaun maitagarri hari jarritako bertsoak dira ondorengo hauek. Biba gure Blax sakristaua!

1 Naparroako lurak
finik bada finak;
baina han ere denak
ez dira berdinak.
Irañetako horrek
hartu ditu gainak:
ai! nolakoak diren
hango krabelinak.

2 Halabeharrak edo
ekarri ziguna
Añorgan bazen denok
maitatu duguna.
Betikoa ez baitzen,
zerura da juna.
Harek utzi du, harek,
hemen hustasuna!

3 Horrela baitzen nonbait
Goikoaren naia,
hari ere iritxi
juteko garaia.
Orain falta da haren
irudi alaia;
baina ez da aztuko
utzi dun usaia.

4 Ipurdia ez zuten
goian haren galtzak;
baina gizona ez du
egiten gorputzak.
gure balioa du
ematen bihotzak.
Harena ikusteko
hor daude egintzak.

5 Gizonik ez da inor
osaturik arras,
beti da zerbait gure
izaeran eskas.
Joan zaigunak ere
bazukean akats;
baina inor badata
ona zen gure BLAX!!!

Aretoa

Izena hori jarri zaio: ARETOA. Eta izana ere horixe du: areto haundi eta eder batena. Antzokitara-ko eta beste gauza askotarako balio du Santo Tomas Lizeoan. Bedeinkatzen eta estrainatzen genuen egunean, ni ur bedeinkatuz bazterrak zirtatzen ari nintzen bitartean kantatzeko, ondorengo hiru bertso hauek jarri nituen:

I Badugu Aretoa
haundi eta eder (*bis*).
Zeinek ez du senditzen
halako zeozer?
Berriaren pozetan
egin gabe leher
esan dezagun behin
eta mila bider:
zor zaien guztieri
miloï bana esker (*bis*).

2 Zaharrak omen berri...
Berriak bai zahar! *(bis)*
Irautearen gaitzak
horixe baitakar.
Guk estrainatzen dugu
poz eta irripar,
berri hartzen dugun hau
dezagun goxo har
gaur den bezain berria
izan dadin bihar. *(bis)*

3 Belen dugu gogoan
Gabonak dirala... *(bis)*
denok biltzen gaituen
Haur baten itzala.
Txiki eta haundiak
hemen gabiltzala
pertonagintza gogoz
eta eginala
Belengo haurtxo horrek
bedeinka gaitzala. *(bis)*

Rober Alfonso

Gizon maitagarria. Gimnasiako irakasle izan dugu urtetan Lizeoan.

Eragozpen haundi bat zeukan lan horretarako; bera erdi-elbarria izatea. Eta nola lan egin! Nola gaintitu bere eskastasuna! Haren despeirarako egindako bertsoak dira horiek.

Zertara bildu garen
badakigu denak: *(bis)*
Rober Alfonso dira
izen abizenak.
Laguna izan dugu
ikasle ez ginenak;
orain badoa eta
horra aitormenak:
ez duela aztuko
gure oroimenak. *(bis)*

2 Ba ote daki zenbat
istimatu dugun *(bis)*
ezinak gainditzeko
kusiz zer egin dun?
zure aleginari
denok gara zordun.
Galderatxo bat, Rober,
dadukagu egun:
Nondik atera duzu
hoinbeste ontasun? *(bis)*

3 Lanak bukatu dira,
hortan ez da gaitzik *(bis)*
lasai hartu ezinik
ez duzu arnasik.
Libre baldin baduzu
goiz edo arratsik
gurekin elkartzeko
ez izan perezik.
Beraz ez adiorik,
gero arte baizik. *(bis)*

Mikel Atxaga

Kazetaritzako sari bat eman zioten, eta neronek joaterik ez nuen izan sari-banaketako ospakizunera. Ordez bertso hau bidali nuen, berrogeitamar urtetik gorako adiskidantzaren seinaletan eta lagunaren ohoretan.

Sendoa da gizona
gorputz ta anima
alde guztietara
ondo egina:
frontoiean abilak
ezker ta eskuina,
badaki nola dantza
luma ta mingaina.
Hori bada baina
beraren tamaina
dohainen dohaina
dakinak dakina...
adiskidez da Miel
ordain ezina.

Besoetako iloba txapeldun

1998. urtean txapeldun atera zen segan nere besoetako iloba Mikel. Bizkaian irabazi zuen eta hango bati kendu zion buruzagitza. Hurrengo astean atera zitzaizkidan bertso hauek. Hoberik mereziko luke; baina hauekin konformatu beharko du.

1 Besoetako iloba
ikusirikan hain gora
nola ez hasi, inoiz badata,
kantuan osaba?
Bizkai haundian du froga
Gipuzkoatik kanpora
segalarien txapela ez dela
aurkitzen gustora.

2 Gaztelu du jaioterri,
jaiotetxe Apeztegi,
Mikel esaten zaio ta gero
Aranaldez segi;
badu beso eta gerri
bestela ere bai neurri...
Txapeldun planta paregabea
ez al du ageri?

3 Ez da lenengo txapela
Gaztelura datorrela,
Gabirondoko semea hor da
buruan duela;
txapel haundien epela
luzaz goza dezatela
edo erantzi hirugarren bat
jazteko bestela.

4 Ez daude begira zarrak,
etxeko ta auzotarrak,
zer fruitu eman duen ikusiz
beraien zuztarrak!
Lengoak ziren azkarrak,
berriak ez datoz txarrak.
Nola ez kanta: Gora Gaztelu
ta gazteluarrak!

Miel Aranalde (1932-1996)

Jaiotetxeko anaia hil zenean, nere ilobek bertso bat eskatu zidaten rekordatorioetarako. Bederatzi puntuko hauxe bidali nien gogoangarritan.

Apeztegiko Miel
gazteluar guztiz
horrera aldatzen da,
Jauna, aberriz.
Amestutako zenbait
gauzaren egarriz
doa Samariako
andrea iduriz;
Zurekin eguerdiz
aseta ur berriz
zoriaren zoriz
dagienean hitz
Zuk esan ez azteko
bere fameliz.

Urepelen

“Xalbador Pertsularia” liburuaren aurkezpena egin nuenean Urepelen, 1996ko azaroaren 3an, ondoren datorren bertso honekin bukatu nuen.

Hor esaten den bezala, aste hartan ziren hogeit urte gure artzaina hil zela. Urepeleko elizan egin zen aurkezpena eta jaialdia, eta nik nerea bertso honekin bukatu nuen:

Hogei urte eta hau
diokezu, lagun,
ikusiz zeinen gauza
guttiz natortzun.
Amodio ote
zeraut bihur aizun
ttipitzen dudalarik
zure haunditasun?
Adiskide, entzun,
ikasi dezazun,
atzo eta egun
nerea zer duzun:
Xalbador izen haundi
horren oihartzun.

Antton Ayestaran Pikabea (1939-1986)

Izen-abizen horiek irakur ditzakeenak badaki, Donostiako Orfeoiaren direktore famatuaz ari naizela. Kargu horrek eman zion osperik haundiena Añorgako seme honi. Baina ez zen hori bakarrik izan gure gizon argi, bulartsu, burutsu eta bizkor hura. Industri-gizon ere izan zen, eta ez nolana-hikoa! Istripu batek eraman zuen gure artetik bere berrogei eta zazpi urteetan. Eta ni lagun ninduen, eta nik ere lagun nuen hura. Adiskidantza horrek eraginak ditut, ondoren datozen hiru bertso sail hauek

“Nola ez negarrez egon?”

Neroneri tokatu zitzaidan aldarean mezemaile-buru izatea eta gero hitzegitea. Ezustekoaren haundiak gainez eragiten zion ohiko ospakizunari, eta bost bertso hauek kantatu nituen hitzaldi orde Eguberri bezperako hileta hartan Añorgako elizan, “Haurtxo txikia negarrez dago...” kantuaren airean.

Erderaz ere zerbait esan behar izan zuen, eta hartarako Lizardik egin zidan argi. Haren Xabiartxo aingeruen korua osatzeko eraman zuten bezala Belenera, gurea korua dirijitzeko eraman zigutela esan nuen.

1 Kantuz hasten duk gaurkoan, Antton,
hire lagun Joxe Mari.
Irripar bihurrik ez haiok
egin nere kantuari.
Zer esan behar zioat gaur nik
hemen dagon jendeari?
Ez al duk ikusten hik erorrek
negarrez nola den ari?

2 Nola ez dik egingo ba negar
hik aldegin eta, Antton?
Galde hezak hire laguntzarik
izan ez dunik badagon.
Denok zordun gatzizkik bizitzan
txiki, haundi, aiton, amon.
Orain hi falta haugula eta
nola ez negarrez egon?

3 Mundu zabala zapaldu huan,
azken jira duk lekuko.
Non ez ote duk gaur hire izen
haundi hori aipatuko!
Baina hire txoko maite honi
ez hioan egin uko.
Munduak ahotan, baina Añorgak
bihotzean hau hartuko.

4 Apaiz lagun honek bazekian
hire fedearen berri:
inoiz ekaitza nola zen eta
inoiz nola zen ateri.
Fedez bestalde horretan denok
baitiagu guk aberri,
laister gaituk hor eta prestazak
gu denontzat Eguberri.

5 Nere lagunak, Martak bezala
"Zu hemen izan bazina"
diogu denok gorde ezinik
barruan daukagun mina.
Fedearen hitza hor daukagu,
Jesusek albiste zina,
laister garela Anttonekin berriz
orain joan zaigula baina.

“Biba, lagun”

Antton hil ondorenean berehala eginak ditut hauek. Horregatik halako tragedia aire hori. Donostia aldean nembilela sortu zitzaizkidan, eta ez da harrigarri Igeldo-eta agertzea.

Olentzero kontuak eta, berriz, abenduaren 22an hil zelako dira. Hor 4. bertsoan aitatzen den Idoia hori, orfeonista bat da, gure ikasle izana, eta haren musua da “hiretzakoa” hor. Ederregia zen neretzat izateko, malkoz bustia eman zidan hura. 5. bertso-ko gau kontu hori, iluntze batez hil zelako da.

I Zer zuen egun hark hala
negarretan urtzeko
galdetu beharrik ezta
iadanik ulertzeko.
Zetorren deskalabroa
ez al zen hainbesteko?
Eguraldi bihurri hark
zirudin deabruzko,
nagusiaren arriskuz
nola zakur kateko.
Non ginen gu argi gorri
guztiak ez pizteko?

2 Zer negarra eta ai zer
galera Donostiak!
Galdua ote dukeen
hauspoa abestiak...
Hi bezalako gizonak
hain dituk galestiak!
Erregetzak baduela
ordaina bezekiat.
Ez dituk, ordea, berdin
erregetza guztiak.
Hire makilak eskatzen
dizkik esku aztiak.

3 Giza-jale ase-ezin
bide madarikatu!
Ikazkinez jantzitako
ai otso amorratu!
Sasi-olentzero hori,
hirekin duk tronpatu.
Ai laguna, ai laguna,
nolaz ez duk pentsatu
tripazai harek hirekin
nai zuela bazkatu?
Aurrerapenaren laka
biziaz duk kitatu.

4 Berriaren harria duk
bihotzez-bihotz jautsi.
Ez hezak galdetu baden
hark ez duenik hautsi.
Begietan zauriaren
odola duk ikusi,
min gorria zioagu
elkarri erakutsi
musu eta besarkada
malko eta igurtzi...
Idoiak hementxe zidak
hiretzakoa utzi.

5 Ilunaren beltzak gorde
dik sarraskiarena,
gau batez bistatik kenduz
sinets nahi ez zena.
Zergatik argitu ote
zuen biharamuna?
Ez al henkien, eguzki,
egunak zekarrena?
Gorpuari tapakia
kentzen dionarena?
Hik jan duk gauazko gure
sasi-itxaropena.

6 Zertan ez ote zen izan
egunetan azkena
hi gure artetik, lagun,
erauzi hinduena!
Zer biharamuna hura
hi gabe heldu zena!
Igeldo bere lekuan,
itsasoa lehena,
bizia bere pausoan...
Hura penaren pena!
Non zuten hiretzat beren
negarrezko omena?

7 Min-lagunik ezak zidak
hil bihotzen mina;
nigar egiteko baizik
ez bagerade dina;
kosmosak ez badu behar
entzun gure zotina,
zertan haragi bizitan
erakutsi anima
sar diezaigun kupira
gabe bere hagina?
Ez, lagun! Hire duk eta
hotok ere min mina.

8 Minaz bestaldetik haiz hi,
ni hik dakikanean;
erdian zer dugun ere
nagok ezjakinean;
bakar-bakarrik zekiat
hautala hemen-ean:
aurpegiz-aurpegi haukat
bihotzaren barnean
lehen-orainak bereizten
ez diraden unean...
Biba, lagun! orain eta
BETIKO EGUNEAN!!!

“Lagunaren kantu-hotsa”

Oraingo hauek geroago eginak ditut. Gauza batek eta bestek hura gogorazten zidaten eta horrelaxe eginak dira. Hor 2. bertsoan agertzen den “herrian eta elizan” hori, ez dago esate aldera jarria. Galtxamotxetan elizan jendeari kantuan laguntzen zion muttiko hura gogorazten du horrek. Koperati-ba, berriz, ORONA da.

1 Buruan habilkrit, Antton.
Ezin nauk isilik egon:
jakingo nitek gure artetik
zergatik haizen jon.
Hemen lanik ez al zegon
herria eta Orfeon?
Ala gurekin, arraio hori,
aspertuta hengen?

2 Etxeko txikina hintzan,
arrebaik ez huen izan,
Ebarixto ta Iñaxiokin
hirugarren listan;
guraso onen gerizan
herrian eta elizan
Añorgak laister ikusi zian
ume hura zein zan.

3 Maite huen deporte
eta ez hintzen dorpea,
hankaz ta eskuz erakutsia
duk hire artea;
eskolan berdin partea
azkarra zela gaztea.
Ez duk erreza zertan ez hintzen
ona esatea.

4 Gazterik hituen hartu
ia batean bi kargu:
koperatiba berri bat eta
Orfeon famatu.
Bata hasi ta bukatu
bestea ohoreztatu.
Jakin nai nikedek hire eskutan
zer ez den loratu.

5 Diruak ez hinduen jan
ez eta famak eraman
giza-neurritan hintzen hintzena
hartu eta eman:
heu hintzen txikien galgan
heu hintzen haundien galan...
Horra gizona, gizonik hemen
behar baldin bazan.

6 Gazterik hintzen urdindu
ez hintzen urtez adindu
heldutasunak hinduen garaiz
gizonez berdindu.
Geroaz lanak dik agindu
atsedena zaik ezindu:
dozenerdi bat langilerena
bakarrik egin duk.

7 Asko egin huen baina
dena ez zegok egina,
inork ez baitu inoiz iritxi
maite zuen gaina.
Hire lanaren ordaina
gu guztion alegina...
Hori duk hire oroiz egiten
dugun lagun-zina.

8 Nere berriketa motza
norbaitek baleza osa,
banikek hiri diagun zorra
hainbateko poza.
Lagunaren kantu hotsa
ez badare aproposa,
hola mintzo duk, Antton, isildu
ezin den bihotza.

Gure Maite

Maite Aizpiolea Beraza koinata, anaia Andrexen emaztea, Maite eta Ander neska-mutilen ama, bere berrogeita bost urterekin hil zen eta hari jarri nizkion bertso hauek. Maite genuen denok. Gure amak, bisitara etortzen zitzaion guztietan, hala esaten zion: "Orain ere ez zatoz zu esku-hutsik". Horregatik esaten ditut "esku hoietan ez da faltatu ogi ta arrainik" eta horrelakoak bertsoan.

1 Zure heriotzarenak
bukatu ditugu denak.
Haiek jendetzak, Maite, elizan
bildu ziradenak.
Zuretzat zer goralmenak
egiten zizkigutenak!
Maitea zinen poza bederen
badu gure penak.

2 Izena ere zuk Maite.
Politagorik non daike?
Izanarekin bat egin eta
hori zorapide!
Zuregan biak ahaide,
bikiena dute aire,
zein zeini zaion bietan zordun
Jainkoak dakike.

- 3 Bazenuen zer emanik
zeu askodun ez izanik
non ezagutu da zuk arindu
ez duzun preminik?
Bere horretan gordinik
edo opari eginik
esku hoietan ez da faltatu
ogi ta arrainik.
- 4 Eskuz zinaden zabala
bihotzez ere zu hala,
zerorri zinen ematen zure
gauzak eman ala.
Nola itsasten zinala
indar bizi bat bezala!
Ai! nola dugun eskertu zure
argizko itzala.
- 5 Presa bezala zenduan
on egiteko orduan
guztiongana iritxi nai bat
bihotza eskuan.
Susmoren bat al zeguan,
Maite, hor zure goguan
guk behar hainbat etzinadela
biziko munduan?

6 Labur bizi izan zera
denboraren arabera:
urte gutxiren buruan izan
duzu akabera:
Berrogeita bost danera;
baina obrak kontatzera
zure adina heltzen da, Maite,
Matusalenera.

7 Maite, zu iritxi zera;
laister da gure ertera;
berandu gabe abia zure
maiteon bidera.
Presaka joango gera
beidatu gabe atzera
besoak zabal-zabal eginda
zu besarkatzera.

Herriaren otoitza

Koinata Maiteren hileta-mezetan kantatu nituen, "Agur, Jesusen Ama" bezala, Herriaren ototzetan, azkena denok errepikatzen genuela.

1 Biziak heriotza
zor duela hemen!
Maitek ordaindua du
guk nai baino lehen.
Jauna, Zu baizinduen
bere itxaropen,
Zuregan har dezala
betiko atsedan.

2 Emazte eta ama,
zeinen gauz haundia!
Hutsunea nola ta
nork erremedia?
Falta dutenak, Jauna,
beharrean dia.
Zerorrek babes zazu
Maiteren sendia.

3 Batzuk sartuak dira
eternitatean;
guk laister joko dugu
bertako atean.
Orduaren zai, Jauna,
gauden bitartean,
haiekin gogoratuz
ibili gaitean.

Amezqueta

Sor Kontzenzion adiskideak, osaba Joxe hil zitzaizela eta haren hileta-meza ematera joango al nintzen galdetuz dei egin zidan behin. Baietz erantzun nion. Harek deitu zidalako eta gustatuko zitzaizola banekielako, kantuz egitea pentsatu nuen Herriaren otoitza, eta bertso hauek eraman nituen Amezketako elizara. "Agur, Jesusen Ama," bezala kantatu genituen.

1 Egin dezagun otoitz,
senide maiteak,
elkar-maitasunean
bihotzak beteak.
Jauna, pozten baizaitu
aita izateak,
zabal Joxeri zure
etxeko atepak.

2 Zure ondoan hura,
gu hemen saminez,
sartu zaigu arantza
atera ezinez.
Minak ez dezan egin
bihotzetan gainez
oroitu zaite, Jauna,
gure bihotz-minez.

3 Badoaz ta bagoaz,
azkena han dugu;
hemengoa guztiok
jakina daukagu.
Aita, zure etxean
besteak eta gu
bil gaitzazun egiten
dizugu erregu.

“Zure oroitzapena”

Jon Randez zituen izen-abizenak mutilak. Atsegina zen benetan. 15-16 urte zituen guztiak. Futboleari zela bihotzekoak eman eta berehala hil zen. Haren hileta-mezetan kantatu nituen bertso hauek. Hor esaten dudan bezala, goizean hilobira lagundu genion, eta gero arratsaldean izan ziren hiletak. Lizeoko ikaslea zen.

Polloen izan naiz goizez,
Jon, zure ondotikan
hilobira zuri lagun
egiteagatikan;
han ez zen entzuten ezer
negar hotsa baizikan
aita-ama eta zure
senideengandikan,
malkoak berriz lagunek
bi begietatikan...
isiltasuna otoitzez
hautsi da bakarrikan.

- 2 Zure elizara orain
berriro bildu gera
zure aita-ama eta
senideen artera
saminezko otoitz bana
ta bera egitera.
Negar-malkoen artetik
zer besterik atera?
Jesusek bezala gatoz
Aitari esatera:
“Egin bedi zure naia”,
gure Aita onbera.
- 3 Badakizu bihotzetan
utzia duzun pena.
Nork neur dezake zure
sendi maitearena?
Zein da zure irriparra
ordain dezakeena?
Orain beltz dagoen gure
zeru hortan barrena,
Aitaren etxean elkar
ikusitako arte hurrena,
izar-argi bekigu, Jon,
zure oroitzapena.

Nere irakasle lagunen despeiran

Jubilatu nintzenean, gure mailako irakasleek bazkari bat antolatu zuten neri agur esateko. 1. bertsoan esaten diedan “hobeak e” hori, pikardi puntu batekin esana dago. Ordurarteko despeiretan, gehienetan, omenduari kantatzeko bertsoak nere gain izaten ziren; eta egun horretan, jakina, beste norbaitenak behar zuten izan. 3. bertsoan esaten dudan “nere iloba maitea” hori, horrela da. Nexka argi eta eder bat da bera, gure ikasle izana, eta ordurako han zebilena ordezkotza batzu eta egienez; eta ni atera nintzenean, fijo hartu zuten. Maite Aranalde du bere grazia.

I Erregali eta bertso
ez zen nekeza asmatzen;
hobeak'e ikasiak
zarete zuek kantatzen.
Neretzat aina baziren eta
zer ari naiz ni trufatzen?
Zartu ezkerro txorakeriak
besterik ez da esaten.

2 Zahartzeak joatea
ez al darama berekin?
Hazitako gelditurik
ez da ikusten beñepein.
Ni Lizeoan beti bezala
pozik nengoen zuekin;
baina urteak badoaz eta
ni're banoa haiekin.

3 Baina hitz bat esan gabe
ez naiteke ni desager.
Zuentzat da, guztiontzat,
ez dezaket inor bazter.
Hau esan gabe ez nago ondo,
egin bainindeke leher:
Irakasle on maitagarriak,
bihotz-bihotzez MILESKER.

4 Bai, zorretan joango naiz,
hori dut nahigabea.
Hala ere arkitzen naiz
poz txiki baten jabea:
nik ordainetan uzten dizuet
nere iloba maitea,
ederragoa ni baino eta
ni baino askoz hobea.

5 Beraz kito egin eta
buka dezadan mitina,
oso ona ez akaso
baina bai zinez egina.
Zorrak zor eta lepoa lodi
da alprojaren dotrina...
Nork ordaindua izango data
segi edaten txanpaina.

Gabon agurrak

Nolabait bataiatu behar, eta GABON AGURRAK jarri diet izen ondoren datozen hamabost bertso hauei. Banakokoak dira. Donostiako Santo Tomas Lizeoak beretarrei agur berezi bat egiteko ohidura du Gabonetan. Eta horretarako, ohiko postal bat edo bialtzeko partez, berak egiten zuen tarjetatxo bat. Han bertso edo kopla bat idatzi eta hura bialtzen zien. Nik izaten nuen agur hori idazteko ardurara. Hamabost horiek baino gehiago ere bazitezken; baina nik jasorik bat bakarrik ere ez. Marixol idazkariari zor dizkiot horiek ere. Urtea datatu egiten dugu barrenean, garaiari dagokion aipamenik bai-baita bertso edo kopla horietan.

Egunak galdu ditu orduak
udazkeneko haizetan,
eta Gabonak hor heldu dira
Olentzeroren hortzetan.
Guztion bihotzetan
haurrezko ametsetan
loratzen da esker-larros...
Hori besterik ez daukagu-ta
zuri eskaintzera gatoz.

1982ko gabonak

Gabonaren konpasean
hasi zaigu tuntuna,
nahi eta ezinaren
mugan entzun duguna.
Bakoitzari bere zaio
Belenen oihartzuna,
bihotz orok bere moduz
baitu hura entzuna.
Denontzat esperantzazko
gerta bedi eguna.
Hori da Lizeo honek
zuri opa dizuna.

1.983ko Gabona

Izenak gogoan daude...
Izan da hemen naigabel!
Etxe ta herri malkoak ezin
geldituta gaude.
Non da guretzat aterpe?
bihotzek galdetzen dabe.
Ikazkinaren mezuak dio
BELENGO ESTALPE.

1.984ko Gabonak

Berriz ere heldu zaio
bihotzari ordua.
Gabonetan dirudike
gizarteak ondua.
Guztia izan ez dadin
ametsezko gandua,
Belenen aurki dezagun
GURE BIDE GALDUA.

1.985 Gabonak

Errege Reagan eta
Errege Gorbachov
aurtengo Gabonetan
eskuz-esku datoz.
Zeruak irri dagi,
munduak hartzen poz,
armen bakea uzten
hasi direlakotz.
Belengoa nagusi
bedi mundu osoz.

1.987

Murruek dute egin
behera pusketan...
jendeek jai hartuta
bakezko ustetan.
Lehen hutsegin digu
usteak bostetan.
Berritzekotan gudan,
bai eta bestetan,
Haurrari gagozkion
so Gabon-bestetan.

1.989ko Gabonak

Armak jarri ditugu
begira elkarri;
hortzak ez dio hemen
barkatzen hortzari.
Nola ihes egin guk
lege zaharrari?
Bihotzak zabalduta
Eguberriari
beha diezaiozun
Belengo Haurrari.

1.990ko Gabonak

Kantu hotsak hasi dira...
jaiotzak berriz argira...
zer garai den ageri da.
Begininitan ikus daiteke
esperantzaren dirdira
guztiak daude begira
ekialde urrutira...
Belen aldean argi da.

1.991ko Gabonak

Aitak begietan du
maitezko dirdira...
amaren aurpegitik
minak joan dira...
Aurtengo Gabonetan
HAUR horri begira
bihotz gogorretan sor
bekigu kupira.

1.992ko Gabonak

Kantari eztarriak
bihotzak dantzari
gabiltzala Gabonez
atariz-atari
lekua egiogun
batak besteari
bakean ospatzeko
denok EGUBERRI.

1.993 Gabonak

Zeruak bakea dio,
munduak dio gerra.
Etxe eta auzo, zeinek
horri atea zerra?
Haur bat dugu esku-bila
eskubi naiz ezkerra...
Eskutxo hortan bekigu
hil bihotzeko herra.

1.994ko Gabonak

Mila bederatzereun
larogitamabost
bake hitzak ahotan...
obretan gerra hots...
Altxa ditzagun begi,
buru eta bihotz
Haur bat bakearekin
heldu zaigulakotz.

1.995ko Gabonak

Eguberritan
argi berritan
mundu zabala dakusgu.
HAURRAREN festak berriagoa
bihotzetara bekargu..

1.996ko Gabonak

Gure bide ez luzean
urratsak zuzen nork emon!
Ezezagun zaigu gure
izan eta gure egon.
Eskuz gabiltza bila haztamuz
zuzia non ote dagon...
Erne belarriz! Haur-negar bat da
gure egun, gure GABON.

1.997ko Gabonak

Bakea aho betean
batean eta bestean.
Belengo estalpean
aingeruen artean
zerua dago kantari:
"Bakea dela zueri".

1.998ko Gabonak

“Haritz Aranekoa”

Nere iloba baten semea da Haritz. Arane etxean bizi da. Oso zalea da marrazki bizidunena, eta itsua Lazkaotxiki zenaren horientzat. Neri irudipena sartu zitzaidan, bertsozalea ere ba ote zen gure mutti-koa. Eta arratsalde batean, norbaiten zai nengoela, desapio moduko hau atera zitzaidan. “... egun-azken...” horrengatik jartzen dut hemen. Norbaitek esan ote du inoiz “egun-azken” arratsa edo ilunabarra esateko? Neurri errimatuen beharrak horrelakoxe asmakizun politak eragiten ditu.

Haritz Aranekoa,
kukukurru hemen...
Kikirrikirik hortik
ote da izanen?
Hire egunsenti ta
nere egun-azken
kantuz lotu ditzagun
ni isildu baino len.

“Ene bihotzaren egun”

Horrela definitzen dut Xalbador 5. bertsoan, “ene bihotzaren egun” zela neretzat. Saltoka bezala hasi ohi zitzaidan bihotza, Aldudetik haren sortetxea ikusi orduko. Halakoxe argi-eder-iturri zen gizon hura neretzat. Ez dago, beraz, esatez esana. 5. bertsoko malko kontu hori bezala. Ez dago ezer asaturik. Sukaldeko beheko suaren kokkan jarrita ikusi nuen nik Xalbador negarrez. Beste lagun bat eta biok izan ginen testigu. Emaztea ohean zuen eri, eta bera ere ez zen ongi. 11. bertsoan diodana ere holaxe-holaxe da. “Ez dakigu zer poza daukadan” esan nion sari bat irabazi zuen egun batez. Eta “bai, badakit” erantzun zidan. Harek bazekien, nik esan gabe ere, poztu egiten ninduela ni haren garaipenak. Eta aski baditu ohar hauek, bertso horiek “Haurtxo txikia negarrez dago” doinuarekin kantatu nahiko lituzkeenak.

I Lo beltzak joa ikusi zaitut
ohean luze etzana,
gehiago deus ez zetorren
zuregandik neregana.
Artean bat ginenok, Xalbador,
orduan ginauden bana,
puskatua genuen betiko
gorputzezko harremana.

2 Zenbat aldiz bihotz honek zerbait
esan nahi ote zizun!
Jauzi ere pozik egingo zen
iratzartzen ote zintun.
Zu berriz hantxet ixil-ixila,
hain hurbil eta hain urrun!
Egundaino ez nuen senditu
orduan hainbat hoztasun.

3 Gure arteko haria berriz
nahi nuen nik bilatu,
etenik omen genuenaren
bi puntak korapilatu...
Ia-ia mirari bat ere
zerura nuen galdatu...
Ez nuen, ez, berehalakoan,
Xalbador etsia hartu!

4 Bi aldetara behatuz nabil
aurki ote zaitzakedan,
ea nonbaitetik zure zantzu
biziren bat datorkidan.
Erantzunik ezaren hotza dut
senditzen hemen eta han.
Lurrari beharko diot gaurtik
zuretza musu eman.

5 Zuk ez dakit ni zenbateraino,
nik guztiz zintudan lagun;
loreak intza bezala ene
barneak hartu baizintun.
Ni baitan on zitaiken guztia
ondu ta edertu zenun.
Hargatik nitan ez zara hilko,
ene bihotzaren egun.

6 Behin ikasi nuen bidea
zuen etxe atarira,
eta geroztik badut eginik
hortik hamaikatxo jira.
Alduderat orduko begiak
xuxenik zuen tegira...
Hura ikusi eta bihotzak,
ai zer nolako pilpira!

7 Urepeletik zueneraino
zeinen malda eroso!
Ez dakit zein zoan laisterrago
zangoa edo gogo.
Eskua latza bezain bihotza
eskaintzen zenun gozoa...
Bitan esan gabe ematen zen
etxe barnera pausoa.

- 8 Supazterrak hitzegin baleza,
baleukake zer esanik!
Gure hangoa zoramena zen
ala festa, dakita nik?
Mahainaren betea alborat
uztekoa ez izanik,
sukalde hartan bagenuen guk
bestelako jan-edanik.
- 9 Beti ez ginen egon izandu
elkarren ondoan alai:
eguzkirik gabeko egunak
ere bagenituen, bai.
Zure begiak ikusi ditut
malko beroz bustiak blai...
Negar haren testigu izana
ez dut deusez trukatu nai.
- 10 Malkorik ez nizun, ez, txukatu,
ez baineukan ahalmenik.
Hortarako gai ez izanaren
“errua ez daukat, ez, nik”.
Baldin ukan banu gogoaren
araberako kemenik,
ez zuen lanik izango inork
kondatzen gaur penik.

11 Nik esan gabe jakin zenuen
zure penak eta pozak
beste norbaiten gogoarentzat
ez ziradela arrotzak.
Geroztik eta zurea hartu
zuen arte hilen hotzak,
min beraren ardatzean ziren
mugitzen gure bihotzak.

12 Bakandu ginen eta hor gaude
bakoitza gure ertzean
esperantzazko egunaren zai,
besterik ezer ezean.
Bilduko gaituen esku harek
biok beregan hartzean,
lot gaitzala betiko, Xalbador,
hausten ez den ardatzean.

Poesi-nahiko bertsoak

Ondoren datozen hiru sail hauek, poesi-izenean eginak dira. Aspaldi haietan antolatzen hasi ziren sariketatarako egin nituen. Neri ez zait gertatu Xal-bador zenari gertatu omen zitzaionik. Harek hala aitortzen du hogei eta hamahiru urte lehenago egindako bertso batzuk berriz aurkitzean eta irakurtzean: “Nik, segurik, gogotik behatu diot ene “oilanda arroltzeari”, eta badakizue zeri ohartu naitzen? Hogeia eta hamahiru urte horietan gauza guti ikasi dutala”. (“O. M.” 89 orrialdean).

Neri polikitxo ikasi ote dutan iruditu zait, berriz, nere hauek berriz ikusi ditudanean. Hala ere ez diet gurasotzarik ukatu nahi. Bere horretan uzten ditut, ortografia eta baturako formak salbu. Eta errimaren baimenarekin, jakina! Morrontza horretatik libratzerik ez dago bertsoan.

“Hirutasun-ispilu”

Uda batez egin nituen. Arantzazun sariketa bat antolatu zuten udazken alderako, eta hara bialtze-ko egin nituen. Nik uste, 1956. urtea zela. Amabirjinaren ospakizunen batekin zerikusia zuen sariketa izan behar zuen. Hitz-lauz edo laxoz egindako beste lantxo bat ere bidali nuen, eta hari accesit bat eman zioten. Beste hau isilik pasa zuten, harritzeko ez dena.

Ama Birjinaren sortzezko garbitasuna du gai. Zergatik behar zuen izan guztiz garbia aditzera eman nahi da. Ez da teologia, poesia da; eta apaizgai gazte baten poesia.

Zortziko txikia dute neurri; baina ez nituen banatu 7-6ka. Lerro luzean egin nituen eta bere horretan uzten ditut.

1 Otoitz biren lurrina igo Jainkogana...
Lurrean intzirika Jokin eta Ana.
Gero, berriz, zaiote batu Hitzarena,
betidanik Aitaren altzoan esana.

2 Odol-irakinaren indarrez ez baina
seme-minak bultzata erne dute soina.
Aitak honi txertatu gogo bat apaina...
sortzez garbia baita gure Ama Birjina.

- 3 Otoitz bi hoiien sare harroa trinkotu,
Aitaren naia jota intz ttantto biurtu...
Bikoaren gogo-gau ilunean zerutik
Anaren sabelera jaitxi da zerutik.
- 4 Lore-xorroan intza argizpiz josita
gau eta egunaren alaba polita...
Hala Mari Anaren sabelean jarrita
Lege Zar eta Berri arteko intz-ttanta.
- 5 Soina odol haragi-goserik gabia:
Guraso xarrek eman erne-muin garbia.
Gogoa Hirutasun-ispilu argia
Jainko giza-kume-mina hiltzeko kabia.
- 6 Txori askok beren lumekin eta guzti
apaintzen die goxo kumeeri kabi.
Gogo Guren Beraren oso luma txuri
Jainkoseme berriok dugu ANDRA MARI.
- 7 Zikinak ez du argirik beregan hartzen...
Jainko-musua hobenakin ez ziteken.
Ondo ustelari menturik ez itsasten...
Gogo-txertoak ere garbia eskatzen.
- 8 Adimen-argiz erdi-ikusi genduna
egiztatuaz zaigu mintzo Goiko Jauna.
Ordezkoaren bidez hau digu esana:
"SORTZEZ GARBIA DELA JAINKO TA GURE AMA".

Lehen eta orain

1961. urtea zen. Tolosan omenaldi bat antolatu zioten Lizardiri, beste zenbait ospakizunekin batean. Eta harritzekoa ez den bezala, gure olerkari argitsuaren omenetan, poesi-lehiaketa bat ere jarri zuten. Harako egin nituen bertso hauek. “Agur, Tokaio” zuten lema eta “Tokaio” ezizenarekin izenpetuak joan ziren, Lizardi ere Joxe Mari baitzen izenez. Bigarren saria eman zioten poesi moduko honi. Aurrena Orixe izan zen. Hirugarrena Lukax Dorronoro antzerki-gizon ezagunarentzat izan zen.

Zenbait lagunek eta, osabak eginak izango nituela eta toreatzen ninduten ondorenean. Ez, ez ziren osabak eginak izan. Iritzia bai, eman zidan. Zati batengatik “digno de Lizardi” esan zidan, eta oso irakurri zuenean, haxe esan zuen: “Oso ona beharko du izan honi eramango dionak”. Horra osaba mirestuaren esanak bertso horiengatik.

Lizardi paragabearen olerki eta bertso asko dira gogoangarriak eta gogoratuak; baina ez dira asko izango honako hau baino ezagunagoak eta aitatuagoak eta ederragoak:

“Oi, zein dan ituna
behera-behar hau.
Nik ez nahi eguna
bihurtzerik gau”.

Pentsamendu horri buelta eman bezala eginak daude.

Orixek bere lagun minaren -"los enamorados" esaten zieten Tolosan- omenetan saria irabaziz bukatu zituen mundu honetakoak. Handik gutxira hil zen, urte horretan bertan.

1 Agur, Tokaio! Uste baino len
etor zitzaizun eguna,
"egun haundia", zure amonaz
berriz elkartu zinduna.
Xabier ere han zendukan zai,
kolkoko seme kutuna,
Belenerako Gabon egunez
aingerutu zitzaizuna;
han jakin zendun "bera behar hau"
ez dugula hain ituna.

2 Bizitz-arratsez zuk gau usteko
herio-loak hartzean
ilun-herritik argi-herrira
bitarteko muiatsean
amets zenegin; baina ez amets
irudi josta-zalean,
Adimen jauna, etxeko jauna,
ohi dunez, lotaratzean;
amets zenegin bizi berriko
egunsentiz esnatzean.

3 Amets! haizezu, haundi-usteko
ezer ezaren huts-zulo,
ikaratien aurkako guda
errexen garaile harro,
zorianaren eskaleentzat
gezurrak daduzkan goxo,
gauaren kume argiak jana
eguna zabal orduko,
uste hutsezko izadi berri
ta zoroen sasi-jainko.

4 Zure ametsak ez zun azkenez
esnatze gazi-ondorik,
ezta hutsari toki eginez
argitan itzal-beldurrik;
ez baitzindagon egi zirudin
gezurrez liluraturik;
ostera, gezur zirudin egiz
bete-bete jabeturik,
egiz Egi den Haren argitan
zeunden zorion-ordirik.

5 Zer esnatzea! Eguzki berri
ikusi zendun goiz hartan,
alde-urrunik, sartu-ertenik
gabe, beti eguerditan.
Beroan itzal, itzalean bero,
lausorik ez begietan,
ur-garbi-giro hezur ta mami,
grinak atsegin-loretan,
eta zu Jainko-zorion askan
murgildurik igeritan.

6 Hura eguna! goizik arratsik
bere mugetan ez duna,
“gaur”aren jabe, gaur bat inoizko
“atzo”ri zor ez diona,
ez beldur ere ondoren etsai
letorkion biamona,
igarotzerik ez dueneko
guztian geldi-egona,
Egun... haundia... bitarte... txiki...
une den Jainko-eguna.

7 Jaungoikoaren geldi-unean
kokatu zinen geldirik,
sortuzko zendun alda-beharra
Harengan aldakaizturik.
Harengandiko zurea duzun
bizi, berea denetik
baitzizun txerta, bere bizitik
zu Hargan Hura eginik.
Bazenekina ordun agertu:
Jainkotan zu jainkoturik.

8 Amona ximur, bigarrenez haur
zela agurtu zenduna,
ta Xabiartxo ezaguera
argira baino len juna,
han topa zendun bikote bikain
Jainko-gerrian altxuma,
adin beteko, bata bestea
bezain ezagueraduna.
Zorioneko “bera beharra”
hola berritzen gaituna.

Jainko-arpegi gurean

Hau ere Tolosarako egina da. Nere mandakoa, beraz, bihar ez ezik, etzi ere Tolosarako. Oraingoan Orixeri egiten zitzaion omen. Hura hil eta handik pare bat urtera izan zen. Akaso geroxeago.

Honek ere bigarren saria izan zuen. Aurrenekoa Gabirel Aresti jaunari eman zioten eta bigarrena neri. Hirugarrena, berriz, aurrekoan bezalaxe, Lukax Dorronsoro jaunak eraman zuen. Beraz ez naiz nolanahikoen aurrenbigarren izana.

Poesia hau dela eta, badut kontatzeko polit bat. Don Manuel Lekuona jaunarekin tokatu nintzen autobusean Añorgatik Donostiara bidean. Hura Lasartetik zetorren. Eta ez dakit nondik eta nola, baina Tolosako lehiaketaren kontua etorri zen. Bera ez zela esan zidan mahaiko, baino ikusiak zituela eta kalifikatuak, Don Antonio Labaien jaunak fagorez eskatuta. Eta hor hasten zait gorai patzen bat, holako eta holako gaia zuela eta oso ona iruditu zitzaio-la eta hura jarri zuela aurren beste guztien gainetik. Berehala jabetu nintzen nerearengatik ari zela, eta deklaratu egin nintzaion. Hura poza hartu zuen! Nik ere ez nuen, berriz, txikiagoa eraman Donostia aldera.

Gaia, hitz batean, Jesus Jainko ikusezinaren aurpegi dela du, eta apaiza Jesusen ordeko izan beharraren haundia eta nekea.

Laino gainetik eguna dagin
eguzkiaren antzera,
giza-arpegi baten gordetik
Jainko-arpegi gurera.
Berez ikusi-ezina dugun
argi danen Aita bera
ikuskai gerta, Haren Semeak
harturik giza-jazkera.

2 Giza-estalpeko Jainko gordeak
gainez egin du errainuz
Tabormendian eta arrantzale
batzuk zora ditu keinuz.
Zorioneko mozkor batean
geldi dira Jainko-kukuz.
Gizonak nolaz jasan zezaken,
beraz, dena-den agertuz?

3 Izan gorria izate duna
ta badanaren sortzaile
bakarra dena, datorgu giza
izate bila eskale.
Izan bizitan agertuz gerta
ez zedin gure hiltzaile,
Jainko-dirdaiak itzali ditu
jantzirik giza-izate.

- 4 Zurea dugun gure izate
ez baita Zure izaera,
gurea denaz zeretuz orain
gizaseme gerta zera.
Gu garenez Zu gizasemetuz
batez geiagotu gera...
Zu zeranez gu jainko-semetuz,
Harenak zenbatetara?
- 5 Izan-jatorriz ta izanean
baigara alderantzizko,
arrotz ninduzun zure nintzen hau,
ez baininduzun Zerezko.
Zuretik hartu nunagaz, baizik,
gerta nintzen bestelako.
Orain Zerorri zeranez ukiz,
sor nauzu Zu bezalako.
- 6 Jainko-gizonak giza-jainko gu,
sorkari berri eitean,
len ginadenaz neurritan ongi
geneukan gizalegean
ezin ezarri ginezke orain
izan-neurriz aldatzean.
Giza-mamitu zaigun Jainkoa
dugu lege orainean.

7 Jainko-arpegi giza-arpegiz
agertu diguzun Iesu:
Gure begiek galdu zaituzte...
Laino zipotzak du erru.
Ai ene! baina maite-agerpen
hura ez duzu bukatu.
Gaurko gizadik ikus behar dun
Zure aurpegi ni nauzu.

8 Zulo haundixko ez ote duzu
uzten nik bete dezadan?
Hutsa naizen hau guzti denaren
lekuko nolatan izan?
Zure ordezeko nadin ni, zadi
Zu nere ordezeko nigan,
Zu jatorraren ordezeko jator
zadin neretik Zuregan.

9 Egi-gailurrez bizira bide
zaitugun Jesus maitea,
herio-gailur gertatu zaizu
gurutzez egi-bidea.
Sinismenean maita dezadan
egiaren gurutzea,
era hortara zuzen dezadan
Zuregana gizartea.

OHARRA:

Norbaitek aldizkari baterako eskatu zidan. Nik idatzi nuen; baina hura ez zen jasotzera etorri. Duela 10 bat urteko kontua.

Bertsolaritza gaur

Oraindaino idatzi dudanetan, banekien zeinentzat idazten nuen, eta banekikeen nola hitzegin behar nuen, gaurkoan, ordea, ez dakit zeinek irakur dezakeen nere artikulu hau. Zer esan beraz?

Esan dezadan, aurren-aurrena, modan dagoen zerbait iruditzen zaidala gaur bertsolaritza. Nonahi eta nornahi dabil gaur bertsoarekin. Haurrak berak ere bai.

Urteroko ohidurari jarraiki, aurten ere izan naiz udaleku batean. Eta han, zazpitik hamaika urte bitarteko haurrek ihardun dute, beraiek aukeratuta, bertsoak moldatzeko lanetan. Aditzea bazuten, nonbait, bazela hor bertso gintza izeneko entretenimenduren bat, eta han aritu dira bertso moldaketan.

Garai batean bertsoa kantuz erabiltzen zen bakarrik. Horretara egiten zuen ahal zuenak ahal zuena. Gaur lapitzez eta plumaz darabilgu. Eta tresneri hori erabiltzen ez dakienik ez bait dago ia inor, ia denok darabilgu bertsoa lapitzez eta plumaz.

Horregatik pentsatzen dut nik modan dagoen zerbait dela gaur bertsoa, edozeinen eskuetan bai bait dabil.

Hala ere, inon bada-eta, eskolan egin du bereziki sarrera bertsolaritzak gure aldi honetan. Gure ikasleek ikasgai dute beren asinaturatan, gustatu edo ez gustatu, bertsozale izan edo ez izan. Hizkun-

tzari dagozkion gaietan, bat bertsolaritza dute. Beraren historia eta funtzionamendua eta abar, ikasi egin behar dituzte, eta gero horren kontu eman behar dute.

Ez da hori, hala ere, eskolan egin duen sarreraren adierazgarririk nabarmenena. Ikasgai ez ezik, praktikagai ere bada gaur bertsolaritza ikastoletan. Eta bertsoa eta bertsolaritza zer diren ikasi bakarrik ez da egiten. Bertsolari izaten ere ikasten da gaur eskoletan. Horretarako eta horregatik sortu dira bertsolari eskolak. Horiek ez dira informatzeko bakarrik, ez eta horretarako bereziki. Horiek, formatzeko dira batipat. Ez dira bertsolaria zer den jakiteko. Bertsolari izaten ikasteko dira.

Eta bertsolari-eskola ez da berez sortu den zerbait. Teorizazio bati zor dio bere jaiotza. Xabier Amuriza izan da, batez ere, idearen sortzaile eta saltzaile. Harek hautsi du etorriaren mitoa.

Lehen uste zen, jaio egin behar zuela bertsolariak bertsolari. Orain uste da, eta erakusten, egin ere egin daitekeela bertsolaria. Horretarako sortu dira eskola horiek: bertsolariak egiteko. Hargatik ez dira bertso eskolak, bertsolari-eskolak baizik.

Badago jendea sinismen gehiegirik ez daukana eskola horiekin, eta bertsolariaren sorleku bakarra amaren sabela dela uste duena. Hortik ez omen da garai bateko bertsolariak bezelakorik sortuko. Ez omen dute, eskolakume horiek haiek zuten grazia-rik izango. Berezkorik ez duena alperrik ibiliko omen da eskolan. "Billabonakoa" nagusi izango omen da beti.

Dena dela etorriaren eta ekarriaren arteko hauzi ori, berezkoaren ala ikasiaren nagusitasun hori, dudarik ez dena, zera da: Gertakizun haundi bat dela bertsolaritza eskolan sartze hori.

Haundia da, hasteko, bertsolaritzak egundaino izan ez duen egoera bat delako. Beti eskolaz kanpo sortu eta bizitu eta garatu den zerbait da bertsolaritza. Ez zen uste, gainera, bestela izan zitekeenik ere. Uste, horrela bakarrik izan zitekeela uste zen. Eta orain eskolan dago. Aburu aldaketa funtsezko bat izan da hor. Eta horren fruitu da egoera berri hau.

Eta haundia da, bestalde, bazter-gauza bat izatetik kultur-lekurik konsagratuenera sartzeko delako. Horrek ere ez du aldaketa makala eskatzen. Gizarteak eman dio lekua oraindaino ukatzen zion sailetan. Duela denbora gutxi pentsa ez zitekeen aitormen hori egin dio gizarteak bertsolaritzari eskolan lekua egitean. Hori gertakizun haundia ez bada, ez dakit zer izan daitekeen.

Eskola entzun eta, badakit bakarren batek kopeta zimur dezakeela, eskolak ez bait du izen onik gure artean. Gurea dugu harako "eskolak galdu du mundua" hura. Ez dakit aburuz aldatua den ala ez gure herria gauza horretan. Ez al digu, baldinbait, horrelakorik egiten bertsolaritzarekin. Nik ez dut uste. Bere okerrak egin zitzakeen eskolak bere denboran, baina ezak haundiagoak egin dituela esango nuke, bai hemen eta bai beste nonnahi.

Ez da eskolan sartze hori bertsolaritzak gure garaian ezagutu duen nobedade bakarra. Bada besterik. Estrainatu berria du bere elkartearen ere. Hori ere bertsolariek orain arte egundaino izan ez duten zerbait da. Zeinek ezagutu du inoiz Euskal Herriko Bertsolarien Elkartearen bezalakorik ezer beroien artean? Hori ere pauso berri bat da. Eta ez al dira bi gauza horiek, eskolan sartzea eta elkartearen sortzea, aro berri baten haserako mugak jartzeko hainbateko gertakizunak? Ez dut uste horretan dudarik egin daitekeenik.

Badirudi, beraz, apio edo pilare barriak jarri nahi zaizkiola gure bertsolaritza xaharrari. Elkartea behintzat ez da sortzez sortua. Eginkizun batekin jaio da. Bertsolaritzaren geroa bideratzea eta segurtatzea ditu helburu.

Izan ere gaurregun ez da bertsolaririk, ez bertsozalerik, gure herri-arte honen geroak kezkatzen ez duenik. Noizpaiteko garaietan sortua da eta beselako giro batean garatua, eta nahiko bildur ematen du mundualdi berri honi ez ote dion erantzungo.

Egungo jendeak mila modutako eder-gauzak badauzka gaur bere gozamenerako. Nahiz begientzat, nahiz belarrientzat eta nahiz beste edozein senarentzat, zernahi eskaintzen zaigu gaur komunikabideetan eta haietaz kanpo. Eta ez nola nahiko gauzak. Zer balio du gure hitz-jolas, edo joku, soil eta xahar honek, gehienez ere aire ezagunen bat lagun, egungo argizko eta kolorezko eta marrazkizko eta irudizko eta doinuzko mundu zorabiagarri honetan? Gure zentzu guztiak betean eta ia-ia derriorean hartuz eskaintzen eta sartzen zaizkigun entretenigarri burrunbatsu hauen ardian, zeinek dauka goserik edo egarririk bertsoaren hari mehe eta motel horri belarria jartzeko? "Goliat" mamu honen aurrean zer egiten du gure "David" ñaño honek?

Zoaz edozein herritako enparantza batera festetan. Ari dadila aurrena konjunto bat jotzen eta igo dadila ondoren kiosko berera bertsolari bat. Ia zer inpresio egiten dizun. Erauntsi baten ondoren xirimiria irudituko zaizu. Aurreko musika-zurrunbilo haretan zorabiatu diren haiek, nola luzatu beren belarria ondorengo huskeria haretara? Gauza ahula eta pobrea ematen du bertsoak beste espektakulu haundi eta zaratatsu horien ondoan. Horragatik, mundualdi berri honetan, bertsoaren etorkizuna kezkarri gertatzen zaio edozeini.

Eta kultur-egoera horretaz parte, hizkuntzarena ere hor dago. Euskal Herri osorako ez du balio bertsoak. Ezta alderatzekorik ere. Euskara dakiten guztiak bertsozale ez izateaz aparte, euskaldunik gehienek euskaraz ez dakite. Ordurik eta unerik jendetsuenak, erdaldun dira Euskal Herrian. Non eta norentzat kantatu beraz?

Komunikabideetan bertsoa saltzen, berriz, oraindik ez dugu ikasi. Egia esan, aparteko eginahalik ere ez dugu egin. Eta zer saldu eta nola saldu ez dakigunean gaude oraindik. Eta hor sartzen eta saltzen ez denak, egun gorria dauka gaurko egunean konpetentzia egiten.

Bada, beraz, eskuak bete lan bertsolaritza aurrera ateratzen. Beharko dira eskolak eta beharko da Elkarteak eta beharko mila modutako beste inizatiba guztiak, bertsolaritza indarrean eta gordin zaindu nahi bada. Ez da nahikoa izango bagabiltzala eta ibiltzea.

Eta horretan bukatzen dut, zeinek irakurri dezakeen ez dakidan artikulua hau. Aipatu ditudala uste dut bertsolaritzaren inguruko gertakizunik seinatuenak eta arazorik nagusienak.

Joxemari Aranalde

OHARRA:

“Deia” egunkarian agertuak dira ia-ia denak, 1985-1990 bitarte horretan. Beste ehun bat ere badira hor, baina hemen ez ziren kabitzen. Beste noizpait agertu beharko dute.

Xinpletasuna

Bertsolaritza bapateko ihardun bat dela esaten ari gara beti.

Eta egia da hala dela. Hori du bere ezaugarrieta-ko bat. Beraz pentsatzen aritzeko betarik gabe egin beharreko zerbait dugu. Horrela da, norberak bertsoa hasi eta bukatzen duenean; eta horrela da, bestek bertsoa hasten nahiz bukaerazten duenean. Eta... komeriak dira hor.

Askotan ez da burura etortzen esatea komeniko litzatekeenik, edo nahiko litzakeenik, edo-eta litekeenik behintzat. Hala ere zerbait esan gabe ezin da utzi, eta edozer gauzarekin betetzen da bertsoa. Halakoa izaten da hura.

Zerbait etortzen denean ere, ordea, ez da beti nahiko litzatekeen hura etortzen. Gero bai, exerlekura joandakoan, bururatzen da arrazoi politik; baina beranduegi. Bertsoa pasa zen. Eta joandako urarekin ez da presarik betetzen.

Baina eskasiarekin bakarrik ez dira izaten arazoak. Ugaritasunak ere izan ditzake bere arazoak. Gai mamitsu bat ematen dizue eta ikusten dizkiozu mila helduleku. Nondik hasi orduan? Eta non buka? Aukera ezin egin behar horrek ere bertsolaria aidean bezala uzten du. Eta zalantzak oso txarrak dira bertsotan ongi egiteko. Zer egin horrelakoetan?

Guztia esaten hastea kaltegarri izan daiteke. Ezer esan gabe gelditzeko arriskua du, edo nahaskilo ulerkaitz bat egitekoa, edo gutxien esan nahiko litzatekeen huraxe esatekoa. Punta bakar bati hel-tzea da hoberena. Eta zenbat eta ximpleagoa den bera, orduan eta hobe.

Bertsoak, ezer bada-eta, ximplea izan behar du. Lehen kolpean jasotzeko modukoa. Zenbait apaindurik eta bihurriketak kalte besterik ez diote egiten.

Nik, esaten ari naizenaren exenplu bat jarri beharko banu, Xalbador zenaren bat jarriko nuke. Txapelketa batekoa da. Orain ez zait gogoratzen zeinetakoa. Arratsaldeko saioa zen, eta bazkaria serbitu zionarentzat eskatu zioten bertso bat. Honela da (edo honelatsu, buruz ari bainaiz):

Nik bazkaltzean gaur bi aldetaik
hartua dut atsegina:
bazkari ona eta gainera
serbitzailea apaina.
Gaur arte ez nun inoiz probatu
ekarri duzun kozina,
naiago nuke nik zerbait baino
gure etxean bazina”.

Ez da errez bertso hori baino ximpleagorik eta egokiagorik asmatzen. Xinpletasun hori beharrezkoa du bertsolaritzaren haunditasunak.

“Ederra bertsoa”

Bertsoaren inguruan badabil hor halamoduzko iritzi bat, behin eta berriz errepikatzen dena. Bertsoa ez omen daiteke neurtu noski. Metroak ez omen du hor balio. Gusto kontua omen da, batari bertso bat iruditzea hoberena eta besteari beste bat. Nik arriskutsu derizkiot iritzi horri.

Mila gauza badira bizitzan esakto neurtu ez daitezkeenak eta ederki neurtuak dauzkagunak. Zein den lagun on bat eta zein ez ere, ez daiteke metroz neurtu, baina ederki erabakia daukagu.

Bertsoa ere berdin. Gure herriak jakin du garia eta lastoa bereizten bertso kontuan. “Ederra bertsoa” edo “Ez huan ederra bertso horixe” eta horrelakoak askotan esan eta entzun izan ditugu. Eta hori ez da bertsoa neurtu gabe esaten. Hori esan duenak, akaso ez du jakingo zehazki adierazten eta arrazoitzen zeri zor zaion bertso baten ontasuna edo ahultasuna, baina senaz neurtzen bai, badaki.

Eta bertsoa neurtu duelako, bertsolariak ere neurtu egiten ditu. Eta neurtu dituelako, batzuk ez direla iristen iruditu zaio eta beste batzuk baietz. Hauek berekin hartu ditu eta haiek bazterrera utzi. Eta bereizketa hori, neurri bat erabiliz egin du herriak.

Gusto kontua ere badela? Jakina! Baina non

sartzen da gusto kontua? On-on baten eta txar-txar baten artean sartzen al da? Ez.

Hor ez da izaten gustorik, ez dudarik. "Desgustoa" izaten da bakarrik hor. Bata ona eta bestea ere ona direnean hasten dira gusto kontuak.

Baina orduan ere kontuz gustoen tartea omen den horrekin. Ez dadila izan gure kamustasuna esaltzeko aitzaki. Hoberenek ere badituzte beren akatsak eta abantailak, eta horiek ongi kontatzen bazaizkie, ikusiko dugu nola desberdintzen diren eta nola bata bestea baino hobea den.

Bertsoaren hamarretatik bederatzi ederki neurtzen da, ederki neurtu izandu du herriak, eta gero ere, nik uste, horrela segiko du.

Hutsezinik ez da hemen inor, eta baloraketetan ari denak hutsegin dezake, eta hutsegin ere egingo du behin baino gehiagotan; baina oraindainokoan gaizki neurtzeak baino kalte gehiago egin dio bertsoari artabero usainak.

Nolanahi dela ere, alea eta lastoa bereizten egiten den ahaleginak, mesede egingo dio bertsolari-tzari. Beste gauza askotan bezalaxe, hemen ere gero eta kalitate hobea eskatzen du jendeak. Mokoa fin-tzen ari zaigu eta gero eta hazkurri goxoagoak eskatzen ditu bertsozaleak. Beraz, zenbat eta bahe es-tuagoa erabiltzen dugun, orduan eta hobe.

Xalbador: 9 Urte

Xalbador hil zela 9 urte kunplitu dira. Hilabete honen 7an kunplitu ere; iluntzeko 6ak inguruan gertatu zen, gu haren omenezko jaialdiaren bukaerako “Gernikako arbola” kantatzen ari ginela. Ez zen nolana hikoia izan haren heriotzak Euskal Herrian sartu zuen hotzikara. Handik hiru egunetara egin ziren hiletak testigu! Izango da oraindik Artze anaien txalapartaren kunkunaz egin zaitzaion azken agurra gogoan duenik. Hura jendetza eta hura doluaren haundia!

Bederatzigarren urtemugako honetan ez ginen halako jendeketarik bildu. Ez zen elizan kabitu ezinik eta jatetxeetan sartu ezinik. Erosoago ibiliak gara. Hainbeste malkoz eta malko minez agur egin behar izan zion herri honek ahaztua ote du iadanik “Urepeleko artzaina”?

Donostiako Anoeta pelotalekuan, 1967ko ekainaren 11n, Xalbador zutik, ikaragarritzko txistu artean, ikusi zuen bertsozaleak, ez du egundaino ahaztuko gizon hura. Egun hura ongi seinalaturik geldituko da bertsolariaren historian, ez baitu parekorik ezagutu.

Eta nola ahantz dezake “hildako emaztearen soinekoari” halako bertso pareta eta paregabea kantatu zion bertsolaria? Xalbadorrek plazan utzi zuen arrastoa, ahaztu ezina izango da hura ezagutu ge-

nuon artean. Gaur oraindik txapeldun dugun Xabier Amurizari entzuna diot –eta zuk ere, irakurle, entzuna diokezu, Euskal Telebistatik esan baitzuen–, Xalbadorrek hura, bertsojartzaile baino ere gehiago, plazako bapateko bertsojartzaile bezala harritzen duela. Eta etxanotarrari berari, edo beste horrelakoren bati entzuna diot, ia gaur –bertsoak paperean ikusita gero– nor ez lizatekeen lotsatuko Xalbador ez den beste norbaiti txapela ematen 1967ko txapelketa haretan; baina berak bukaeran kantatu zuen bezala “txapela beti ondo dagola / le-nago zagon lekuan”.

Hala ere, hura zela txapeldun amets egin duen haur gipuzkoar bati honela erantzuten dio: “ez gogregi har egia, bainan / ez nauzu ni xapelduna”. Ez, ez zen txapeldun izan; baina plazako bertsojartzaile eman zion halako berotasun dizdiratsu bat, herriak nekez ahaztuko duena. Haren ahots barnetikako eta barnerakoi hura noizpait entzun zuenak, gogoran izango du beti Urepeleko artzaina.

Haizeak, ordea, eramanez egiten omen ditu hitzak eta esanak, eta harenak ere noizpait eramango bali-tu, hor geldituko dira haren liburuak. Hor geldituko da haren “Odolaren mintzoa” idatzia. Hori izango da bihotz harrigarri baten testigu. Eta hori izango du gure kulturak bitxirik preziatuenetako bat.

Eta bukatzeko, beste zenbait bertsojartzaile ere ikasi beharko luke bere bertsoetako dohain bikain hori, bertsoak kantatuz ez-ezik, bertsoak idatziz ere baliatzen gure literaturarako.

Alderdirik neurterrezena

Matematika oinarri duten jakintza motei, jakintza esaktoak esaten zaie. Horrelako horietan neurgailuak eta neurgaiak, biek dituzte ertz jakinak eta garbiak. Hor ez da alde-aldeko konturik, numero-tan biltzen baita dena, dirudienez behintzat.

Bertsoak ere, nahiz eta matematika ez izan bera neurtzeko neurgailurik nagusia, badu alde bat ia-ia numero hutsez neur daitekeena. Silaben eta zangoen kontua da. Segun eta zein doinu hartzen duen bertsolari batek bere bertsoa kantatzerakoan, badakigu zenbat silaba –adibidez 10– behar dituen lerro batean eta zenbat –adibidez 8– bestean. Eta hutsegiten badu, laister sumatuko dugu erren bat bezala egin duela eta min hartu duela bertsoan. Gutxiegi nahiz gehiegi gerta dakioko okerra.

Bietara da bertsoa itsusten eta txartzen.

Bada bertsolaririk hutsegite hori poliki disimulatzen dakienik; eta doinurik ere bada hartan laguntzen duenik. Zenbait bertsolariri askoz nabarmenago gelditzen zaio hutsegite hori beste zenbaiti baino. Nik norbaiti esan izandu diot, hobeki disimulatzen ikasi beharko lukeela. Botileroentzat ez litzateke hori eginkizun txarra.

Esanak esan, neurritz kanpoko lerro edo puntu bat atera zaiola bertsolariari eta oker bat dagoela hor. Eta nahikoa al da silaben kantitatea

neurriarena egiteko? Ez al du beste alderdirik neurriak?

Zenbat diren ez-ezik, nola lerrokatuak eta mul-tzokatuak dauden ere ikusi behar da. 1967ko Txapelketa hartan, Xalbador zenak honela bukatu zuen bere bertsoetako bat:

“dirua irabazlea ni ta
haren jabea ijito”.

Puntu horretan zangoak juxtu daude: 10 eta 8; baina lehen lerrokoak 3-5-1-1- zatitan banatuak daude: Beraz lehenengo bostekoa eta bigarrena egiteko, hitz bat bi erdi egin beharra dago. “Irabazlea” bi puska egin beharra dago: ira/bazlea. Hobe zuen bi bostekoen tartea bi hitz diferenteren artekoa izan balitz, eta ez, hemen bezala, hitz beraren bi erdien artekoa.

Hala ere hori da failorik txikiena hortan. Askoz itsusiagoa da, hori bera, lerrotik lerrora saltatzera-koan egin behar izatea. Orduan da batez ere akats nabarmena.

Ez da erraza esaten zenbateraino txartzen duen makets horrek bertso bat eta zenbateraino jaitsi behar den horrelako zarpil bat daukan bertsoaren balioa; baina kontuan izan behar dela, ez dago dudarik. Kantitateak ere badu bere kalitatea.

Ofiziotako bertsoak

Orain urrengo txapelketakoan, bilera batean geunden bertsolari batzuk eta zenbait antolatzaile. Hoietako batek, gaiekin atera zuen bere keja edo arrangura. Gaiak ez zirela onak. Ez omen ziteken trabatu. Bertsolari bakoitzari bere aldetik joaten uzten omen zioten gai haiek. Keja hori azaldu zue-nari errez asko erantzun ahal izan nion nik, esanez, hari lagunak eman ziola aukera ederra trabatzeko, baina ez zela asko trabatu. Lehenengo puntuan erantzun omen zion, noski. Neri erantzuteko balio zezakeen ateraldi horrek, baina bertsotan erantzuteko ez. Bertsotan azken puntuan erantzuten da.

Gertaera hori etorri zait burura, bertsolariek ofizioa egin ohi duten iharduna aipatzerakoan. Ofiziotako sail horretan, mokokatu egin behar omen dute bertsolariek, hartu eta eman, jo eta autsi, elkar menderatu arte. Elkarri erantzunez sortzen den ikamika hori omen du bere alderdirik haundiena ihardun horrek. Dena dela, asko estimatzen da bertsoza-leen artean ariera hori. Ez da dudarik, bere merituetako bat ofizioetako bertsoak horixe duela: aurrekoaren erantzuna izatea.

Puntu hau aipatzerakoan, Xalbador zenak eta Mattin zenak egindako saio bat etortzen zait beti gogora. Honela zuten ofizioa: Xalbador herriko jaun ertora da; Mattin berriz eliztar bat. Bazkoazkoa egin nahi du delako eliztarrak, eta txartel famatuaren

bila dator horretarako. Eta jaun ertorak esaminatu egin nahi du lehenik eta hiru galdera egiten dizkio, Mattin dotrinean zer moduz dabilen ikusteko.

Hona galderak eta erantzunak:

Lehena: “nahi nuke jakin zuk badakizun zer adin duen Jeinkoak”.

Erantzuna: “nik baino bi gutiago nik uste jaungoiko Senperekoak”.

Bigarrena: “erradazu ba xuxen-xuxena nortzu dagon ifernuan”.

Erantzuna: “beraz ez gira aise sartuko han Xalbador eta biak”.

Hirugarrena: “mutxurdinak zer salatzen dio maizenik konfesorrari”.

Erantzuna: “ardurenian erraiten tuzte bertzek egin pekatuak”.

Horra hor aheztar argiaren erantzun paregabeak. Lehenengoari ez dago zuzenean erantzuna ematerik eta zeharka ematen dio: Senperen bada jainkoa esaten dioten bat eta Mattinek baino bi gutxiago ditu. Bigarreanean, infernua aberatsen lekua dela dio, eta beraz Xalbador eta biak, miseria ikusiak direnez, ez direla han aise sartuko. Eta hirugarrenak ez dauka esplikazio beharrik. Neskazaharrak besteren pekatuak kontatzen ditu konfesionarioan.

Horri esaten zaio erantzutea eta bertso egitea. Eta hori da bertsolariaren azkartasuna.

Bertsotan aspertu

Nere lagun batek askotan zera galdetu ohi dit: “Baina al ez zara aspertzen hainbeste bertsorekin?”. Eta nik ez diot ezer erantzuten. Nahiko erantzun bada lehenean segitzea, aspertuko banintz ez bainuke tarte horretan segiko.

Baina lagun honi, eta beste edozeini, esan behar diot, bertsolariak baduela zerbait asperdura guztiak gaindierazteko gauza dena. Zerbait hori, berritasuna da. Behin ere ez da lehengo; beti oraingo eta hengo eta gaurko da. Hemen ditud bi adibide lehengo astekoak bertatoak. Hogeitazazpi urte honetan bertsolariekin nabil eta egundaino ez nuen horrelakorik ikusi eta entzun.

Lehenengoa, lehengo ostiral gauean izan zen. Afaltzera bildu ginen ikasle izandako zenbait lagunekin. Eta tartean genuen Eguskitze bertsolaria ere, gure ikasle izana baita hura ere, nahiz berak ez gaituen irakasleok asko famatzen. Ioseba Tapia trikitilaria ere han zen afarian, honek ere izan baitzuen suerte berdina gurekin.

Afaria haundienez aurrera zela, gutako batzuk bertsopestan hasi ziren eta gerora gu ere sartu ginen laguntzera, Eguskitze bera ere bai. Halako batean, nolahalakoak isilaldia genuen tartetxo batean, gure Eguskitze, Tapiaren soinua lagun zuela, denoi koplaxo bana eskaintzen hasi zen. Berarekin ha-

masei lagun ginen afaltzen eta beste hamabostoi bota zigun koplaxo bana. Etenik gabe bete zuen bere egitekoa. Soinuak azkena errepikatzeko hartzen zuen tarte izaten zen bakarrik batetik bestera. Hura gauza polita gure bertsolari gazteak egin zuena!

Nere ondoan zegoen nexka donostiar batek “Gehiegi, gehiegi” errepikatzen zuen behin eta berri oraingo moda berri horretan. Pena bat daukat bakarrik: saio osoa zintan jaso ez izana. Benetan antologikoa izan zen.

Bestea biharamunean izan nuen.

Añorgan nintzen bertso jaialdi bat gidatzen. “Zeinen jaialdi polita egin duzuen” esan zidan entzuten zen bertsolari batek. Jaialdi polit hartan politenetakoa, Peñak eta Amurizak agurrekoan egin zutena izan zen. Peñak kopla doinuz egin zuen bere agurra eta han zeuden haurrei “muxu bana” eskainiz bukatu zuen. Amuriza zen hurrena eta honek ere kopla doinu berean kantatu zuen eta Peñak muxu bana eskaini zien bezala, Amurizak “nik bina” esanez bukatu zuen. Zeinen gauza polita! Ez zitzaidan egundaino gertatu.

Berritasun hori da neri bertsoa beti asperkaitz egiten didana. Arrazoi berdintsuak eta saioak ere entzungo dira, baina berdinik sekulan ez.

Orain badaki nere lagun zahar horrek, ni zergatik ez naizen aspertzen bertsoekin.

“Nahi dezunian”

Izan berria dute Azpeitia alde horretan Txapel zenaren oroigarritako jaialdia, eta entzun dudanez, gogoangarri horietakoa izana izan behar du. Bertsozaletasunari eragin badiote, bejondaiela bertsolariari. Egun berean ni beste jaialdi batean izan nintzen, eta han ez det uste beste hainbeste lortuko zutenik. Hura baldarra izan zen.

Bertan izan ez banintzen ere, Azpeitiako horretatik badut zerbait entzunik, eta Joxe Lizasoren ateraldi batek ematen dit gaurko honetarako aukera.

Semea zuen gajartzaille Joxek eta harek baka-rik egin ziezaiokeen galdera egin zitzaion “rusoari”: zergatik ez zara apuntatu txapelketan? Erantzunaren laubost bertsoetan, besteak beste, “Xaharra” eta “Berdia” ere ez zirela apuntatu esan zuen Joxek, bera ez apuntatu izanaren arrazoia hori bazukeen bezala. Berea bukatu zuenean, exerlekura joan zen gure Lizaso aita; eta hor entzuten dio seme-ari mikroaren aurrean berak entzuteko modukoa. Altxa eta hor zihoak gure Joxe, lehen berotuta utzitako mikrofonora.

Semeari kantatu zion bertsoa, eta honela bukatu: “Nahi dezunian”. Prest dagoela, alegia, bere abilitadeak semearekin neurtzeko. Ai, Joxe, Joxe! Zilbor gehiegi daukazu petxupean eta ile gutxiegi buru gainean lan horietan hasteko. Bihotz eder hori ika-

ra dezake seme haundi horren errainuak; eta behin adin batez gero arriskutsua da ikara gehiegi bihoztarentzat. Zuk hobeko duzu nik dakidan baten mi-moak jasoz segi, semearekin burrukan sartu baino.

Gainera, zuk ez al daukazu hor lehendik txapela? Ez al zizun aspaldi jantzi buru eder horretan herri bertsozaleak bere txapela? Zuk eta "Xaharrak" eta "Berdiak" eta abarrek txapelketan jazten dena baino haundiagoa beharko zenuteke, neurrikoa izatekotan behintzat.

Esan berria dit norbaitek "Ez zegok bertsolari-rik, bertsolariak zeudek". Guztia denik ez dagoela, alegia. Elkar osatzen dutela.

Eta neronek ere esana diot norbaiti, jaialdi batean harek betetzen duen txokoa ez duela beste inork betetzen nere gustorako.

Bertso-sinfonia bat bezala den jaialdi batek, era guztietako gailurguneak eta magalguneak behar ditu betea eta osoa izateko. Asko modutako sendimenduak dira gure bihotzetan daudenak eta horiek guztiak dantzan jar eraztea da ederra.

Betiko negarra eta betiko parra, irain bat dira bizitzan. Eta hori guztia elkar osatuz lortzen dute bertsolariak.

Lizasoren freskotasunak izango du beti lekua jaialdi batetan eta bertsolaritzaren munduan, semeari jokatu ala ez. Urteberri on, bertsolariak!

Giltzak

Zenbait bertsoarientzat bertsoa betetzeak ez du aparteko zailtasunik. Haieri ere ez zaie beti materiala neurri-neurrian etortzen, baina tira, nahiko errez eusten diote bertsoari bere luze-laburrean. Beraz betetzea ez da kontua, nola betetzen den baizik.

Nik hemen dakardan bertso-zati hau, zortziko haundi baten bigarren partea da. Ikus nola den:

“Oi gurasoa, beti bezala
bihotz oneko bazera,
garai bateko seme galdua
badator berriz etxera”.

Garai batean etxetik aldeginako seme bat ari zaio bere aitari hizketan, berriro etxera datorrenean.

Bertso-erdi horretan ez dago ez eskasirik eta ez soberarik. Kantitatez ondo dago. Zer da hor aurkitu nahiko litzatekeena eta aurkitzen ez dena? Bi puntu horien arteko lotura. Sumatu bai, sumatzen zaio zertsu lokarri dagokeen bien artean, baina ez du agerian adierazten, ez du esaten, eta sumatu litekeen arren, ikusi ez da egiten. Ni baldintzazko “ba” batekin hasten banaiz, ondorioa zer izango den ere esan behar dut. Eta hor ez da hori egiten. Ez daude bi puntuak hizketako legez josiak.

Beste exenplu hau ere zortziko haundi baten bigarren alderdia da:

“Zure andrea bere koartoa
nik negarrez baidet suma,
nei esateko esan baizidan
berak esan ezin zuna”.

Bere lagun bati, lagun horren andrearen enkar-guz, merezia daukala esaten ari zaio.

Bertso-erdi horretan bi “bait” ageri dira elkarren segirako bi esalditan, eta elkarren segirako bi “bait”-ekin ez da ezer errematatzen, eta bertso bat, gutxiago. Hizketako legea ez da horrela. Hori ez da ulertzen, horrela ez baita hitzegiten.

Igeltsero batek ez ditu ladriluak elkarren gainean parez-pare jartzen. Hori alperrik lanean ihardutea hainbat litzateke. Hormak ez luke iraungo zutik. Eta goiko bertso-erdi hori bezala egindakoak ere, erori egiten dira.

Bertso batean ageri diren zatiak, giltzatuta egon behar dute, gorputzeko zatiak bezalaxe, edo horma bateko harriak bezalaxe. Bestela bertso horrek ez du batasunik eta nortasunik.

Basarri-Uztapide

Badugu bi kontu esanik joan den aste honetan Basarri-Uztapide bikoteaz. “Oraindik ez ote zaizkio bukatu?” eginez ari daiteke norbait azpitik marmarean. Gu bezalakoari hasi baino lehen bukatu behar litzaizkioke kontuak, baina askojakinak isilik dauden bitartean, eskura egon ohi garen besteak ari behar berriketan.

Ez zaizkit bada bukatu, irakurle. Eta gaur esatera noana, oraindik esan gabea daukat.

Esan dut nolatsuko bertsolariak izanak diren Basarri eta Uztapide. Basarriz nolakoa “izana” dugun bakarrik ez, nolakoa dagoen ere esan beharko litzateke. Hura bertsote ederra lehengoan Errezilen egin zuena! Urte askoan horrelaxe entzun eta ikusi dezagula!

Esana dut ere, bakarka haundi ziren bi hauek, elkarrekin bihankako haundi eta eder zirela. Biena hartzen zuela bakoitzak elkarren ondoan jartzen zirenean. Esan ez dudana, zera da: zenbat bihankako eta zenbat gizon ziren.

Bihankako horrekin, zera esan nahi litzateke: ez zutela nolana hiko sasoiak izan. Bertsolariak pasara txar asko eman izan dio eta ematen dio bere buruari. Beti edo gehienetan festan dabilen jendearen zurrunbiloan ibili behar izaten du, eta horrek, badakigu zenbat gehiegizko jate eta edate, zenbat logaltze

eta zenbat ezordutako ibilera txar duen berekin. Ez du nolana hiko osasuna eskatzen, urtea joan eta urtea etorri, bertsoak lan gaizto horretan irauteak. Eta gure bikote honek iraun zuen. Ez aparteko bihankako izan ez balira.

Baina hori bakarrik ez da nahikoa. Gizatasunetik ere behar da puska bat, hor zehar luzaroan ibiliko bada. Zuk dakizu, irakurle, gu bezalako zenbat ergel bildu ohi zaion bertsolariari bere ingurura eta zenbat ezerezkeria esan behar izaten diogun? Eta hutsa "sano" daudenak bakarrik bilduko balitzaizkie ondora.

Zurrutaren indarrez ez balitz, burua inoiz altxako ez lukeen pranko etorri ohi zaie beren abildadeak bertsoan erakustera ere.

Zabiltza hor inorekin pipertu gabe eta inori faltatu gabe, eguna joan eta eguna etorri. Hor ibiliko denak gizatasunez iristen dena behar du izan.

Eta gure bikote haundia, haundi da horregatik ere; eta horregatixe akaso. Gizalege bikaina erakutsi dute beren langintza horretan. Ongi merezia zuten egiten zaien omenaldia.

1936: Txirrita txapeldun

Zeinek ez du entzun izandu gure artean, 1936ko Bertsolari Eguna hartan, bertsolariek jokatu zuten txapela, Uztapide zenari zor zitzaiola eta ez Txirritari, honi eman bazitzaion ere? Orain arte entzun bakarrik egiten genuen. Orain irakurri egin dugu.

“Bertsolari Guduak 1935-1936” izeneko liburua argitaratu du Gipuzkoako Aldundiak Basarri-Uztapide bikoteari omenaldia dela-eta. Eta han irakurri ahal izan dut, orain arte entzun bakarrik egin nuen. Atzeko azalaren barnekaldeko ezpainean Uztapideren argazki bat dator eta beraren oinean honela dio: “askotxoren ustea da egun hartako txapela Uztapide gazteak jaso behar zuela”. Zeukan izenarengatik emango omen zitzaion Txirritari, eta gainera, zahartua zegoenez, aukera berririk gabe gelditzeko arriskua omen zeukalako. Bigarren horretan arrazoi zuten: urte hartan bertan hil zen gure hernaniar haundia.

Eta gauza horiek entzun eta irakurri ondoren, zeini ez zaio halako tentaziotxo bat etortzen, jendeak zergatik eduki zezakeen uste hori ikusten hasteko? Edozeinentzat tentazio daitekeen hori, gu bezalakoarentzat utzi-ezinezko bizio bat da. Eta halahalako begiratutxo bat eman gabe ezin utzi bertso haiek eta alde-aldeko konparaketa bat egin gabe ere ez.

Berrogeitamar urteko alde badago epai haren eta gure miaketaren artean, eta hala ere orduko mahaikoekin erraz sortzen da adostasuna, lehenengo hirurekin behintzat. Baina horrekin ez da konformatzen gure ikusmina. Lehenengoa eta bigarrena jarri nahi dira elkarren parez-pare, ea zeinek zeini eta zertan kentzen dion alde ikusi nahiz.

Bertsoak irakurtzean, Uztapideren pota haundi batekin egiten da topo. Garai hartan hutsegite horri ematen zitzaion garrantziarekin, ez zuen erreza izan behar gero zulo hori tapatzen, eta are eta gutxiago, Txirritari kendu behar baldin bazitzaion koska.

Gainera ofiziokoetan Uztapide nolabait xamar dabil. Eta gerra madarikatuz kantatutakoetan, hor dago Txirritaren bertso famatu hura, nik egundaino hitz berdinekin kantatua entzun ez dudana, eta paporean dagoen bezala hemen jartzen dudana:

“Zenbait errezo egin izan dut
nere denboran elizan,
ta pozik nago ikusirikan
pakean nola gabiltzan.
Ni naizen bezin kobarderikan
iñor ezin leike izan
semeak gerra ez joateatik
mutilzar gelditu nintzan”.

Bertso hori izan zen egun hartako famatuena, eta orduko eta geroko bertsozaleen memoria aberastu duena. Horiek horrela, non ken ziezaiokeen zestoarrak hernaniarrari alde, txapela Zestu alde-ra joan zedin?

Mahaikoek ez zuten urteei zor zaien begirunearen arrazoi beharrik izan Txirritaren alde epaia emateko. Zahartua egon zitekeen gure Joxe Manuel Lujanbio, baina txartua ez.

Patxi Etxeberria

Egun haundia biharkoa bertsolari-familiarentzat! Batetik, bertsolaritzak izan duen izenik haundienetako baten Txapelaren Urrezko eztaiak ospatzen dira egun horretan, eta bestetik, gaurko bertsolarigoak eta bertsozaleek beren omenaldia eskaintzen diote Patxi Etxeberria bertsolariari. “Bertsolari Eguna” zuen izena orduko harek, eta gaurkoa ere hala izan ohi da:

Bertsolari Eguna.

Urte hura, Txirritaren txapelak eta beraren heriotzak markatua gelditu da. Aurtengo honek ere txapela berri baten errainua hor izango du. Zeinek jantziko ote du Txirrita zenaren Urrezko Eztaietakoa? Euskal Telebistatik Bertsolarien Batzordeko Lehendakariari entzun genionez, lehengo buru berak izango ote duen zori hori. Esan ohi den bezala, “Gero agiriko, Pello Gabiriko”.

Jazten duenak jazten duela, Patxi ez dela izango badakigu.

Eta ez desiorik ez zuelako, aurrera segitzeko eskubiderik gabe gelditu delako baizik. Ez zaio berehalakoan ahaztuko gure oriotarrari Oinatiko egun hura. Gero Andoainen ia-ia erremediatuan ibilia izan behar du orduko okerrak; baina horretan gelditua da: ia-ian. Andoainen aurrena izateak ez zuen ekarri behar bezain aurrera partaideen lerroan, txapelketan segi ahal izateko.

Hala ere, ahaztuko ez zaion eguna, batez ere, biharkoa izango du Patxi Etxeberriak. Hor ikusiko du eta sumatuko, Orioko arrantzale zen eta orain Lasarteko arrain-saltzaile den honek, bere anai bertsolarien berotasuna. Eta bertsozaleen esker-ona ere bai.

Eta bere bizitzan ez zaio ahaztuko egun hori eta urte hau.

Bertsolari librea da gure oriotarra. Erraz eta neurrian erabiltzen du bere materiala. Entzuteko berriz atsegina da. Ahots garbia eta ongi ebakia. Eta bertsotarako perezarik ez du ezagutzen. Plazan nahiz beste edozein txokotan, eskahala ematen duen bertsolaria da Patxi Etxeberria.

Eta bertsolariaren aipamenik ez baita egin behar beraren bertsoren bat aitatu gabe, hona hemen Patxiren bat. 1980ko Txapelketakoa da. Joxe Mari Iriondok jarri zion puntua. Ikus zeinen bertso ederra osatzen duen oriotarrak:

(Oharra: jan egin zidaten bukaerako bertsoa, eta hurrengo astekoan argitaratu nuen. Hurrengo orrialdean dago beraz).

Agindua zor, eta beste

Lehengo larunbatean lotsagarri gelditua naiz. Bertso eder bat agindu egin nuen, eta eman ez nuen egin. Azkena izatearen ajeak dira horiek. Gaur aurrena jarriko dut. Entzun:

Hona puntua:

“Honek ez du autsiko
lanian hezurrik...”

Erantzuna:

Hortantxe ikasi nun
dakitan apurrik.
Nik lana egiteko
ez daukat beldurrik.
Langilia naiz eta
ez esan gezurrik”.

Patxi Etxeberriarena da eta beraren ohoretan jarri nahi izan nuen lehengo larunbatean. Huraxe izango zen artikulu haretan apartatzekorik eta huraxe jan, alajaina! Egun haren bederatziurrena ez da ordea bukatu eta bihoa hortxe, orduan balio zuenak gaur ere balioko du-eta.

Patxi Etxebarriarentzat, berriz, egun harek, bederatziurrena ezezik milaurrena ere izango du. Lehengoko gozatu horrek, oraindik ezezik, geroxeago

ere iraungo dio oriotarrari. Ehun urtez dagizula on oroitzapenak, Patxi!

Egun ederra izan zen denentzat ere. Bertsozalea, ederki antolatutako jaialdia izan zela esanez atera zen eta horrek asko balio du gerorako ere. Aurten gustora atera denak arriskatzen du hurrengoan etortzeko ere. Eta hurrengoan, omentzekoa denaren itzala bera nahikoa izango dela uste dut jendea ekartzeko. Erreza al da Azpillaga baino izen biltzaileagorik entzuten?

Eta egun gozoaren ondore, egun estuak datozkie orain bertsolariei. Laister ekingo diote berriro txapelketa haundiari, eta hor ere “jokua ez da izango errenta” denentzat. Galtzailearen gazia ere tokatuko zaio bati baino gehiagori. Irabaztunek errez ikusi usteko dute beren merituz direla irabazle; baina galtzaileei kosta egingo zaie beren failoz direla galtzaile ikusten. Eta errudun bila has daitezke.

Errudunak, berriz, izatekotan, badakigu zeintzu diren. Aurten, gainera, ez da mahai izango. Mahai-koak izango dira, edo daitezke, osoan nahiz bakoizka. Egiten dutena egiten dutela eta erabakitzen dutena erabakitzen, nere begirune egizkorik ez zaie faltako.

Eta bukatzeko, Amurizak esan zuen bezala, “Txirritaren animak anpara gaitzala”.

Kezkak

Bertsolariak jaialdiaren ondoren hiztunago ikusten omen dira jaialdiaren aurretik baino. Hala esan zidan lehengoan batek. Ni ohartu gabe nengoen gauza horretaz; baina ez ninduen harritu entzun nuenak. Zeinek izaten du, izan ere, berriketarako gogorik kezka bat daukanean?

Eta zein da bertsoetara kezkarik gabe datorrenik? Alperrik egingo ditu urtean ehun jaialdi. Hurrengora ez da kezkarik gabe joango. Beraz ez da harritzekoa berriketarako gogo gehiegirik ez edukitzea jaialdiaren aurretik; eta ondorenean berriz, es-tuasuna pasa eta gero, bestela baino berrituzago agertzea.

Baina ez da bertsolaria bakarrik urduri hurbildu ohi dena tranpadurara. Gaijartzaileak ere eraman ohi du beretzat haina kezka. Eta ez bakarra gainera. Larritasuna bakarra eramango du; baina kezkak bat baino gehiago.

Lehenengo, gaiek berek sortzen diote. Oso gutxitan gelditu ohi da guztiz gustora bildu dituen gaiekin. Beraz, hori du bere lehen kezka: gaiek behar hainbat egokitasun ba ote duten.

Norberari egokiak iruditzen baldin bazaizkio, askoz trankilago joaten da gaijartzailea. Baina hori oso gutxitan gertatzen da.

Ez da trankildu makala hartzen norbera gaiekin gustora gelditzen denean!

Orduan ere ez da, ordea, guztiz trankiltzen gaijartzailea. Orduan sortzen zaiona, beste hau da: Bertsolari bakoitza konforme izango ote den gaijartzaileak berari jartzea pentsatzen duen gaiarekin. Ez da beti asmatzen. Behin baino gehiagotan esan izan zaigu ez dutela nahi guk jarritako lana. Eta eskubide osoa dute horretarako. Baina kezkarik haundiena ez du ematen ezezkoa jasotzeak.

Gaizki iruditu arren gaia, hartzeak ematen du kezkarik haundiena. Kezka eta pena eta mina eta denak ematen ditu horrek. Horrelakoxe burutazioekin ibili ohi da gaijartzailea jaialdiaren aurretik.

Eta ez dira hor bukatzen buruhausteak. Munduan diren gairik hoberenekin ere ez dago jaialdi onik zihurtaturik, bertsolariek ongi erantzuten ez badute. Eta hori du hurren kezka gaijartzaileak: erantzungo ote duten. Bertsolaria ere ez dago beti bere onean eta failatu dezake. Eta orduan zer? Orduan? Ahal den laisterrena etxera eta kito.

Xexen txarrarekin horixe egin ohi du toreatzaileak. Trapuari jarraitzen ez dion edo iheska dabilen eta adarka galtzarbera jotzen duenarekin ez dago luzitzerik. Ezpata hartu eta lehenbaitlehen hiltzea izaten da hoberena horrelakoetan. Bestela jendea aspertu egiten da eta xixtuak eskaintzen. Bertsolaria ere horixe du hoberena, jendea ahozabalka hasten zaionean: Bukatzea.

Buruan daukadana

Buruan daukadana, San Pedro eguneko jaialdia da. Gipuzkoako Lasarten dut. Festak dituzte. Urte oroz izan ohi dute. Eta aurten bezalaxe sei bertsolariekin gainera. Batzuk badaramatzat neronek ere gaijartzen. Orain ere deitu didate eta han izango naute, Jainkoak ondo banau.

Han izango naiz, baina ez nuke joan nahi esku-tsik. Jaialdi polit bat eraman nahi nuke prestatua. Eta hor dago koxka. Egia esan, koxka ez dakit non dagoen, hor edo hemen. Badagoela dakit bakarrik, eta nik eragin behar diodala.

Berez ez dirudi kezkarria jaialdi horrek, bertsolariak onak baitira. Hona hemen izenak: Lizaso (Txapelduna), Lopategi, Amuriza, Agirre, Mitxelena eta Patxi Etxeberria. Tartean ijito apelidoren bat bada, baina horrek ez du bentaja besterik. Sei bertsolari haundi dira eta horiekin jaialdi on bat egitea erreza dela dirudi berez. Ongi toreatzen jakin behar. Baina hor dago koxka. Nondik eta nola toreatu bertso te atsegin eta on bat eginarazteko?

Oraindik orain irakurria dut, “esan nahiko lutekeena esaten” ez omen diegula uzten gaijartzaileok. Lizaso Txapeldunak esana agertzen zen paperean. Gustatu zitzaidan esana, neronek ere idatzia bainuen horrelako zerbait oraindik orain. Bakoitzari berea esan eta eman eraztea zela esaten nuen nik

gaijartzailearen eginkizuna. Horrela bakarrik kantatzen zuela benetan bertsolariak, eta benetako iharduna zela entzulea ikuitzen eta berotzen zuena ere.

Eta nola ikuitu nik sei jaun horien bihotz ezberdin eta banan-banako horiek? Berriz esan, hor dago koxka.

Bakoitza bakoitz dela beti eta ordu eta egun bakoitzean, ez dago dudarik; baina ez hori bakarrik. Bakoitzak bere abildadeak eta bere abileziak ditu gainera, eta batarenak eta bestearenak ez dira berdinak. Inork ez ditu denak, zein eta ona den bera. Bakarrak ez dezake seiena eman, eta nik seiena behar dut jaialdi luzitu bat ateratzeko eta ordu gogoangarri bat uzteko.

Ari naiz, ez uste, pentsaketan. Hasia naiz gaiak burura etorriahala, edo ekarriahala, papelera pasatzen. Buruan darabilzkit sei bertsolariak. Bakoitzarengandik entzuleak espero dezakeen bihotz-doinua nola ateraziko diodan bakoitzari ari naiz pentsatzen. Gero bihotz hori, egun horretan eta ordu horretan tenplean egongo den edo ez, hori beste kontu bat da; baina nik dagoeneko belarrian dauzkat seirek atera ditzatekeen doinuak. Asmatuko ahal dut bihotz horiek jotzen.

“Botila bat ur”

Hori eskatzen zuen lehengo batean nere adiskide batek. “Besterik ez bada ere botila bat ur ekarriko al dute” zioen. Ez pentsa, irakurle, Epulon hura bezala sugarretan zegoenik delako adiskide hau, ura eskatzen zuenean. Bertso saio bati ekiteko trantzea besterik ez zuen gure gizon egarbera honen. Zer den arriskuaren usainak sortzen duen larritasuna! Lagun bat nahi zuen harek. Zerbait, hari eskua bota ahal izateko. Eta besterik ezean, ura.

Gozoa jarriko zen gure Txirrita haundia, bertso saio baten aurrean hura eskaini izan baliote. Entzun beharko zituen epelak norbaitek. Ez zen hura iturrikoarekin konformatzeko horietakoa. Eta ez zen bakarra horretan. Zeinek ez du ikusi bertsolarien argazkia, botila edo pitxarra eskuan dutela eta handik elkarri edaten ematen? Onak zeuden haiek urarekin konformatzeko. Orduan horrela ziren ohi-turak. Nolabait axolakabetu egin behar zen publikoari aurpegia emateko, nik uste, eta alkohola droga ona zuten horretarako.

Jendaurrean ari beharrak sortzen dituen estuasunak ez ditu berdin jotzen bertsolari guztiak, eta besteak ere ez. Zenbaiti hankak dardaraziko dizkio. Beste zenbaiti izerdia mugieraziko dio. Bada urdail aldea astintzen dionik ere. Gure honi, berriz, ezta-rria lehortzen dio. Eta hori bustitzeko behar zuen delako “botila bat ur”.

Ez da bakarra hori gertatzen zaiona. Telebistaren aurrean eta antzokietan eta abar, urari hoinbeste tiratzen dioten horiek, zergatik uste duzu izaten dutela hoinbesteko edan beharra? Egarririk daudelako?

Ez. Nerbioek eztarria lehortzen dietelako baizik. Eta eztarria lehortzen zaionarentzat ura da senda-gaia. Bihotzak ere esango luke zerbait gauza horretan. Ez dira, ez, berdinak izango bertsolarien pul-tsazioak jaialdiaren aurretik eta ondoren. Mihia libratu egiten zaiela ondorenean? Bai bihotza ere. Harek ere hartuko du lasaitu ederra.

Publikoan ari beharrak, inork uste baino gehiago jaten du pertsona. Eta norberak uste baino gehiago ere bai askotan. Lehoi bat zela esan zuen norbaitek publikoa, eta ez da gezurra.

Txaloak

Bersolariek badakite, eta beste nornahik ere bai, publiko guztiak ez direla berdinak. Badago alde herritik herrira eta eskualdetik eskualdera. Leku batzuetan ia bertso oro txaloak jotzen dira, eta beste batzuetan ia denetan ukatzen. Horregatik askotan entzuten zaie bertsolariei “hau oso publiko ona da” eta horrelakoak esaten.

Eta entzulegoaren erantzunak asko esan nahi du bertsolariarentzat. Erantzun hotzak larritu bezala egiten du bertsolaria. Eta sosegua galtzen du erraz. Beroak, berriz, badirudi irudimena piztu egiten diola, eta bihotza lasaitu. Eta bertsolariak tranquil iharduten du orduan, bere burua ispiluaren aurrean eder ikusten duenaren graziarekin eta gozoarekin.

Gainera, txaloek tarte bat ematen dute hurrengo bertsoari heltzeko, eta konfiantza ematen diote bertsolariari bere lanarekin jarraitzeko, entzulegoaren oniritzia txaloek ematen baitiote. “Ondo ari nauk” esan bide dio bere buruari, eta handik aurrera seguruago eta ederkiago kantatzen du.

Gaijartzaileok eskatu ere egin izan dizkiogu inoiz entzuleari txaloak; baina hori tranpa bat bezala da. Berez jaio behar dute, bertsolariarentzat denik saririk hoberena diren eskerronezko lora horiek. Udaberriko eguzkitara zizak bezala sortu behar dute bihotzetik txaloak.

Bada entzulerik bertsolariari txalo egiten dionik, eta ez bertsoari. Horrelako horrek "bere" bertsolariari jotzen dizkio txaloak. Batez ere txapelketetan gauza nabarmena izaten da hori. Eta handik kanpora ere bai askotan. Txalo horiek erdi-ustelak dira, eta erdi-gezurra. Eta gezurraren alderdiak badakigu nola diren.

Norbera ere ez da txalojotzaile berdina ordu oro. Bazkalondoan eta bazkalaurretik ez gara berdinak. Eta afalondoan, berriz, zer esanik ez. Emankorrenak afalostean izan ohi gara. Ederki afalduta joanda, apustutan bezala oihu eta marru hasten diren horiek joko luteke ipurdiz ere.

Hura ere ez da txalorik garbiena. Lausoaren arriskua du berekin. Txaloak argitan jo behar dira eta argiz, bertsoaren edertasunari erantzunez. Beste guztia faltsoa da.

Inoiz egin ez nuena

Inoiz egin ez nuena egina dut herenegun Añorgan. Festak dituzte Donostiako auzo horretan. Eta beste hainbat alditan bezalaxe, bertsolarien jaialdi bat antolatu zuten eta ni izendatu ninduten gaijartzaille. Gozatu ederra hartua da jendea Lizaso (txapelduna), Amuriza, Lazkao-txiki eta Peñagarikano-ekin.

Horrera arte ez dago ezer apartekorik. Lau bertsolari horiek jendea gustora uztea, ez da behin ere berri eta harrigarri. Berria nik egin nuena izan zen.

Jaialdia prestatzen ari nintzela, burua Añorgako saloira joaten zitzaidan behin eta berriz, harritzekoa ez den bezala, eta han entzundako bertso gogoangarri batzuk gogoratu nituen. Hori ere ez da berri. Berria, sortu zitzaidan burutazioa da.

Bertsolarieri denkantsu emanaz, neronek lehen-go horietako bat edo beste kantatzea pentsatu nuen. Batez ere lau bertsolari direnean, horrelako eten bat ez da gaizki etortzen askotan.

Pentsatu eta egin. Bi kantatu nituen. Bat Lasarterena da eta bestea Xalbador zenarena. Biak lau oinak emanda kantatuak dira. Ez dira jaialdi berekoak. Gaur honera dakartzat, norbaitek ikasi nahiko balitu ere.

Hona Manuel Lasarterena:

“Sosik ez poltxikuan,
hau da moztasuna;
baina kantari ari naiz,
badet poztasuna.
Jaun zerukoak eman
beza osasuna,
hori izango da gure
aberastasuna”.

Nik dakidala, bertso hau ez da agertzen inongo liburutan. Orain papelean behintzat gelditzen da. Horrela nekezago galduko da bertso eder hau.

Eta orain Xalbador zenarena:

“Ene anai-arrebak,
altxa arpegia,
iluna badoa ta
badator argia.
Nik emango dautzuet
ispilu garbia:
gorrota gezurra ta
maitatu egia”.

Hau “Herria gogoan” liburuan badago, AUSPOA sailean. “Iluna badoa ta badator argia”. Ea noiz argitzen duen gure eguna.

“Nik ezingo nitek”

Hala bota dit lehengoan lagun batek: “Nola egiten dituk hoinbeste jaialdi? Nik ezingo nitek. Lan gaiztoa zegok gai-jartze hori”. Nere lagun hau lanarekin zerbait ikaratzen hasia ote dagoen ere banago; baina gaijartze-lanarekin ikaratuta egoteak ez nau batere harritzen.

Ez da gezurra, nahiko lan zaila gertatzen dela gaijartzea. Jaialdi asko egiten da eta zoko guztiak miatuak daude. Pentsa, esate baterako, zenbat gai pasa den joan den Txapelketa nagusian. Eta beste hainbat txapelketa eta saio eta jaialdietan berdin.

Eta hasten zara orain zu gaiak bilatzen. Jotzen duzu egoera nahiz asunto batetara. Hartzen duzu pertsonaia bat edo beste. Eta beti lehen ibilitako lekura iristen zara. Zapaldu gabeko tokirik ezin duzu aurkitu. Lehengo udaran hala esan zidan jaun batek: “Halakori, lehengoan beste herri hartan jarritako gai bera jarri diozu”. Ez zen egia. Ez zen berdina. Antzekoa zen bakarrik. Eta antzekoekin, nahi eta nahi ez, ibili beharra dago. Antzekoak berdintzat jotzekotan, etxean gelditzeko moduan gara gaijartzai-leok. Ia zein bihankakori bururatzen zaizkion, kara batetik ez bada bestetik, inoiz ikuitu gabeko gai berriberriak.

Ahal dela, inork ez du nahi izaten lehen ibilitako gaiak berriz jarri, ez bi lekuak elkarrengandik hur-

bil daudenean eta ez urrun daudenean, nahiz urruntasunak ematen duen inoiz horretarako bai-menik. Bertsolariak berak ere nahiago izaten du beti berria, lehen pasa gabekoa, alegia. Eta gajartzai-leak berdin.

Nik jarri izan dut gai bera eta leku berean; baina urteak ziren tartean. Gainera adierazi egin nion entzulegoari lehen jarria zela, eta zergatik jartzen nuen berriz. Konparatu egin nahi nituen orduko bikotea eta oraingoa. Lehenengoan Mattin eta Lazkao-txiki nituen "bikiak", eta oraingoan Sebastian Lizaso eta Peñagarikano.

Akaso ez genuke horrenbeste erreparo beharko gai bera leku batean eta bestean jartzeko, baldin eta leku horien artean kilometroak edo urteak baldin badaude.

Dena dela, bai lehengoak jarri eta bai berriak ekarri, direla antzeko nahiz alderantzizko, bada eskuak bete lan jaialdi bat ongi prestatzen.

“Alegiazko gai batzuetaz”

Xalbador zenari hartu dizkiot hiru hitz horiek. “Gosta gabe deusik ez” izeneko zati bat badu “Odo-laren mintzoa” liburuaren hitzaurrean, eta zati horretan ageri dira hitz horiek. Orrialdea, hirurogeita zortzigarrena da, eta lerroa, hamahirugarrena.

Bertsoak idazten dituztenekin ari da hor, eta horiei konseju bat eman-ez-eman dago gizarajoa. Auzartzen da azkenean, eta hala dio: “Ez ditzen beti ar alegiazko gai batzuetaz; behar lukete ari beren bizi-ko gertakari eta sendimentuetaz”. Hori da konsejua edo aholkua.

Alegiazko gaiak, ipuin huts edo asmakizun huts diren zerbait dira. Eguneroko eta benetako bizitzarekin ez dute zer ikusirik. Eta horiekin ez gehiegi ibiltzeko aholkatu nahi ditu urepeldarrak idazleak.

Berak ez du esaten zergatik den hori; baina edozeinek badaki zergatik den. Bihotza ikuitzen ez duten gaiek, ez dute irudimena pizten eta sendimendurik dantzan jartzen. Hotz uzten dute egilea. Eta egileak berotu egin behar du, zerbait onik atera nahi badu.

Harek berea bertsojartzaileengatik esaten du. Eta nik uste dut gauza bera, edo beratsua, esan daitekeela bertsobotatzaileengatik. Askotan erabiltzen ditugun gaiek, ez dute ez irudimenik pizten, ez bihotzik ikuitzen, ez gurea den ezer astintzen edo eragiten.

Nola edo hala bertsolaria bera ikuitzen duten gaiak jarri behar genizkieke bertsolariei. Bestela nekez kantatuko dute benetan. Ari egingo dira bakarrik; baina ez bihotzez eta egiaz. Eta entzulea ere ez dute berotuko. Ez diote zirrararik eragingo.

Neri Lopategi haundiak behin, Agiñagako jaialdi baten ondoren, hala aitortu zidan: “Zuk poesia egiten ere laguntzen diguzu”. Gaiemailearen zeregina hori da: bertsolariari laguntzea. Nik esan ohi dut, luzitzen lagundu, berak egin dezakeen hura ahalik eta ongien egiten lagundu. Eta laguntza horrek, bertsolarien maizeneko sendimenduak bilatzen ahalegindu beharko luke, bertso-motor hura berotzen. Orduan erantzungo dute bertsolariaren ahalmenek betean eta batean. Buru-bihotzez kantatuko du bertsolariak eta dezakeen hura emango.

Gaijartzailea

Horra hor pertsonaia bat tranpaduraren gainean eta mikrofonoaren aurrean, bertsolariak atzekaldean dituela. Horrek ez du kantatzen, bera bertsolaria denean ere.

Horrek kantatu arazi egiten du. Jaialdiko lana berak banatzen die bertsolariei, eta beraren esanera egin beharko dute bertsolariek jeiki eta jarri eta ihardun. Une horretako itzantza berari dagokio. Hori da gaijartzailea.

Bidasoaz bestaldekoek "gaiemailea" esaten diote. Eta gaia, "afera" esaten dute, batez ere bertsolariek buruz-buru ari behar dutenean. Guk asuntoa esango bagenu bezala.

Hemen ez dago inor, delako gaijartzaile eta gaiemaile deritzan pertsonaia hori ezagutzen ez duenik. Ez eta ere ez dago, zer garrantzia duen ez dakienik. Nahiz bertsolari eta nahiz beste, denok jabetuak gaude gauza horretaz. Bada bertsozalerik bertso-saio bat entzutera beti joaten denik, pertsona jakin bat baldin bada gaijartzen. Ez daiteke uka, beraz, gaiemaileak garrantzi haundia duela.

Zenbaitek jaialdi on baten zama berari erantsi nahi lioke. Beraren gain omen dago, batez ere, bertso saio bat ona izan edo ez izan. Ehuneko hirurogei gaijartzailearena zela entzun nion behin bertsolari bati. Ez dakit nik hoinbesteko portzentaiarik

zor zaion pertsonaia horri. Jaialdi baten edertasunak asko zor diola bai, badakit.

Eta garrantzia, onerako eta txarrerako du. Mesede egiten dion bezalaxe kalte egin diezaioke jaialdi bati. Esku ona ezagun-ezagun izaten da, eta aldrebesa ere bai. Bertsolarientzat laguntza noiz den gaijartzailea eta oztopo noiz den, ederki ikusten du entzuleak.

Eta bertsolariak berak zer esanik ez. Aurpegiz-aurpegi gehiegitan esaten ez badigute ere, handik edo hemendik enteratu ohi gara. Egia esan, keجاتu ere, gehiegi ez dira keجاتzen. Badakite berek, abilidadez ez bada ere, borondatez ongi hornituak ibiltzen garela, eta isil-isilik pasa ohi dute guk egindako zenbait pikardi. Hala ere asmoak badituzte gaijartzaileekin eta bilerak egiteko eta denen artean hitzeginez bihankako honen zeregina zehazteko, ikusten baidute zer garrantzia duen berentzat eta bertsolaritzarentzat pertsona honen lanak.

Ez dute epoka txarra bertsolariek, zeregin horretan ibili ohi garenok egiten ditugun triskantzak ikusteko eta nozitzeko. Festa-bolara hau pasatzen denean, udazkenean, gaztain erre batzuk janez, ez lukete urtesasoi txarra horretarako, artean fresko egongo baitira oroitzapen gozoak eta gaziak. Bitartean asko eta ongi kanta dezatela opa diegu.

Ilusioak Baldan

Donostiako Balda frontoia ilusioz beteko da gaur. Eta txikiek bakarrik izan ditzatekeen ilusio haundiz bete ere. Udaberriaren edertasuna eta zorotasuna ikusi nahi dituenak, badaki bazkalondoan nora joan.

Han izango ditu gure eskoletako bertsolarigaiak jo eta ke, su eta gar, soinu eta keinu bertsoak kantatzen, edo kantatu nahian behintzat, Baldan ere ez baita tongorik izango. Hor intentzioa izango da pina eta abildade gutxitxo aukeran. Txalo ederrik joko zaie hala ere.

Zer esango ote lukete garai bateko bertsolari zahar haiek, oraingo gaxte hauei nola laguntzen zaien ikusita? Beste askok esan ohi duen hauxe: gu horrela hartu izan baginduzte! Eta ez da gezurra.

Bertsolaritzan eta beste mila gauzetan, laguntza asko dago gaur. Garai batean bakoitzak egin behar izaten zuen bere bidea. Eta laguntzarik eza ez-ezik, oztopoak izaten zituen gainditu beharrekoak. Bertsolarien mundua ez zen apraposena, apustulariena ez zen bezalaxe, etxeari puska erasteko. Eta zein hasiko zen horretara bultzatzen inori?

Xalbadorri irakurtzen zaio, berak etxekoen partetik beti izan zuela laguntza, eta horri esker aurrea atera zela bertsolaritzan, eta bera bezala lagunduak izan balira, beste gehiago ere ateratzen ahal

zirela lehenagoko garaietan, eta haren beraren garaikideetan ere. Zorionez, “bihia” galdua izateko arriskua pasatzen ari zaio gure bertsolaritzari.

Gaur ez dauka bertsolariak zurrutaren zai egon beharrik, lotsaren hesiak hautsi eta bertsolari helduen tartean sartzeko. Ez dauka ere adin jakin batera iritxi zai egon beharrik bertsotan hasteko. Gaizki kantatuaren lotsaizuna jasan beharrik ere ez dauka. Bere kidekoekin eta parekoekin has daiteke bere garaian eta bere giroan, alkoholaren laguntzaren beharrik-eta gabe. Xalbadorrek, edaria galerazi ziotenean, hala esan ohi zuen: “Lehen haren gain uzten nuen ene lana. Orain nihaurren gain hartuko dut”. Hori da irabazi duguna bertsolaritza normalizatu baten bidean.

Eta horri eskerrak esan ahal izango da “oraindik bagerala / Balda da testigu” ez-ezik, “aurrera goazela / Balda da testigu” ere.

Txapelketa edo errekreoa

Txapelketa edo errekreoa zirudien gaur zortziko harek? Bertso askorik entzun gabe gelditua naiz behintzat ni Balda frontonean. Hura zen haur festa, hura! Sekulan baino gehiago bildu ere egin zen eta iskanbila ere hala izatea, ez da betere harritzekoa.

Eta iskanbila ez da lagunik hoberena bertsoak entzuteko. Lagun berritzu bat aldamenen ere ez da ederra; baina hari, aitzaki-maitzaki bada ere, ihes egiten diozu. Baldan ez zegoen nora aldeginik.

Neri beti eman izandu dit kezka haur jendea aurrean dudala jaialdi bat egiteak. Haurrak, geldi egoteko, aurrean komeria behar du, eta bertsoak ikusteko gutxi du, entzuteko asko duenean ere. Eta ikusteko komeririk ezean, komeriak egiten hasten dira gure txikiak. Ni, inoiz, beraiek mikrofonoa ekarriz-eta aritu izandu naiz jaialdi bat egiten, beraiekin batera bertsolarietara gaiak emanez eta abar.

Baldan ere, akaso, beste zerbait egin beharko litzateke, bertsoa gustorago entzun ahal izan dadin. Atentzioa eskatu eta lortu ahal izateko, atentzioa eteteko aukerak ere jarri beharko lirateke. Zergatik ez biribildu jaialdia bertsoa ez den beste zerbait tartekatuz? Adibidez txiste, ipuin, pailazo..., edo ez dakit nik zer. Gaia bera ere, hitzez esateko ordez, eskura zerbait emanez edo adierazteak ere, antzerki

tankera gehiago emango lioke. Badakit gauza ez dela erraza, baina ezina ere akaso ez da izango.

Haurrek berek lukete mesede. Gutxiago asper-tuko lirateke eta bertsoak hobeki entzungo lituzte-ke. Bi gauzak egingo lituzke horrela haurrak: hobeki pasa eta bertsoa hobeki aprobetxatu.

Baina mesede, batez ere, kantatu behar dutenek luteke. Bertsolari haundiek badakite ederki asko zer esan nahi duen isiltasunak bertso bat kantatu behar denean. Isiltasun faltak, atentzio falta esan nahi du, eta horrek ez du animorik ematen kantatzeko.

Beraz, denen hobebharrez, txikien atentzioa meioratu behar da. Mejora al baleike behintzat. Lehen esan dut ez dirudiela erraza.

Bestela ederki joan zen Baldakoa. Aristorenaren buruan lehen bazen txapelik, eta orain badu berria. Urepeleko izarra ez du gidari txarra. Hala ere, ez da ahaztu behar, bakoitza bakoitz dela eta norberaren neurriko maisurik ez dagoela.

Zorionak berari, eta beste irabaztun guztiei, eta ezirabaztunei!

Nafarroako bertsolari txapelketa

Nafarroa zaharreko Bertsolari Txapelketa ere amaitu zaigu. Joxe Fermin Argiñarena errazkindarrak jantzi zuen aurtengo txapela. On dagiola oraingoak eta ez dadila azkena izan. Burrunda haundirik gabe pasa da aurtengoan nafar norgehiagoka hau. Ez da harritzekoa. Euskal Herri osokoa izan berria genuen, eta haren oihartzunak indar gehiago zeukan oraindik ondoren hasi zen berriak baino. Finala gustatu zitzaidan. Nik uste baino bertso polit gehiago entzun nuen. Mendiburu beti bezain bertsozile ikusi nuen, Alkat berezko eta kupira gabe, Xalbador zerbait lotuxeago, Joxe Miel Argiñarena beti bezain brinkoso, Joxe Fermin inoiz baino xuxenago eta Ezponde betiko galgan. Horiek nituen nik ezagunenak eta horien artean ez zen neretzat sorpresarik izan.

Zortzikotean ziren beste biek eman zidaten sorpresa atsegina. Azpillaga asko askatu dela iruditu zitzaidan. Bakarkako gai astun eta haundian -harentzat batez ere astun, bera mutiko gaztea baita, eta ez guraso zahar, han izatea zegokion bezalaberhera egin bazuen ere, buruz-buru bota zuten bakoitzean, ederki aritu zen. Herri bertsolaritzak baduela uste dut jarraipena.

Taberna da bestea gogoan gelditu zaidana. Inoiz edo behin entzuna nuen; baina ez neukan idea garbirik nolatsuko bertsolaria zen. Orain badakit ber-

tsolari fina dela. Goxo kantatzen du eta arrazoiak ezustekoak bezain politak ateratzen ditu. Bidasoa aldeko bertsolaritza jaso dezakeela uste dut bertsolari gaxte bizarmotx honek.

Sendimendu on horiekin eta buruan pentsamendu horiek nituela itzuli nitzen Doneztebetik. Nafarrek beren txapelketa egiten segi dezatela nion nere baitan. Euskal Herri osokora datozela nahi dutenak; baina berenik ez dezatela utzi. Puskatuta dagoen Nafarroa, bat dela erakusteko bide bat da hori ere. Eta sobera gutxi ditugu horrelako aukerak.

Baina ez zen hori bakarrik neri burutapen hura sorrerazten zidan gauza. Kidetasun berezi bat hartzen nien hango bertsolari guztiei. Eta aldi berean, berezitasun bat aurkitzen nien hemengoekiko. Zer den beraiek elkarrekin kideago eta hemengoekin bereziago egiten dituen hori, ez dakit. Akaso nere irudipena bakar-bakarrik.

Dena dela, zorionak, eta aurrera, nafarrok!

Sagardotegiak eta unibertsitatea

Leku haundietan ibiliak gara aste honetan bertsolariekin eta bertsolaritzarekin. Unibertsitatean izanak gaituzue lehengo asteartean mahaininguru batean. "Sagardotegiak" eskolako maisuak sartu zaizkigu Salamancakoen artera.

Ez dira beti elkarrekin eskuz-esku ibiliak bi eskola hauek. Hemen ez da ez dakienik, nolako mespretxuz begiratu izan dion zenbait garaitan Unibertsitateak beste eskola honi. Bizi dira oraindik -Don Manuel Lekuona lekuko- Sagardotegiak eskolako artea aintzakotzat hartzen hasi zen belaunaldiko gizonak. Jende horri eskerrak irabazi du bertsolaritzak, gaur daukan itzala.

Gaur ez da etsaigorik bi eskola horien artean. Bukatu ziren Salamancakoaren hantusteak eta mespretxuak. Izatekotan ere, beste eskolan sortu da oraintsu zenbait errezelo txar Unibertsitatearentzat. Halamoduzko jokaeratzaren bat erakutsi du zenbaitek. Karreradunek eskua sartzea sail honetan, ez da denen gustoko gauza izan; baina ez dut uste irudipen txarren bat besterik izan denik hor. Berriz esanda ere, gaur adiskide dira Sagardotegiak eskola eta Unibertsitatea.

Eta hala behar du. Elkarri egin behar diote lagun. Salamancak jakin behar du, bera ez dela sekulan gai izango, Sagardotegiak eskolak bezalako

artistak sortzeko. Unibertsitateak eskoladun haundiak egin ditzake, eta egingo ditu; baina bertsolaririk nekez egingo du. Eta beraren humeek egingo dituzte lan ederrak eta eder-lanak; baina ez dituzte bizia eta heriotza kantatuko beren pausoan, bertsolaritzak bezala. Eta hau ere ederra da, edertasun beharrezkoa. Ez da izango akaso bestea bezain biritila; baina bai biziagoa eta jaso errezagoa eta egunerokoagoa bestea baino. Bakoitza bakoitz da.

Herri-artistak ikasi beharko du jakiteak on egin diezaiokeela. Esan diezaiokeela zertan den eder berak egiten duen lana eta nola daitekeen ederrago. Ereduak zein izan daitezkeen ere erakuts diezaioke, ez berek oraindik ez dakitelako; baina bai zergatik diren eredu erakuts diezaiokeelako.

Beraz EUTGko Fakultatean aurrez-aurre hain arreta haundiz eduki genituen ikasleek badaukate zertan lan eginik eta beren jakinduriarekin zeini lagundurik. Hor dago herri-literaturak gurean sortu duen bapateko sorkuntza hori. Azter ezazue material hori eta esaiguzue bertsolari haundiak zergatik diren haundi.

Jakin nahi genuke zehazki, zeintzu arau erabiltzen dituzten eta sortzen beren bertsogintzan. Zerbitzu on bat litzateke hori bertsolaritzarentzat. Zai gelditzen gara.

“Joxe Tolosa” asko

“Joxe Tolosa deitzen zen gizon hori”. Horra hor izena. Ez dago nolana hiko lekuan. Xalbador zena-ren “Odolaren mintzoa” liburuan dago. Eta edozein euskaldunek irakurri ahal izango du. Aipamen hori izan ez balitz, paper-zahar aztertzaileek bakarrik aurkitu ahal izango zuten. Orain nornahiren esku-ra dago. Eta zergatik sartzen du urepeldarrak bere liburuko “Pertsutan hastea” kapituluan izen hori?

Beste gehiagok ere kontatua daukate non edo non, beren bertsolaritzako hasera nola izan zen; baina inork gutxi eduki dezake Xalbador zenak bezain zeharo egina. Zeinen ederki aditzera ematen duen, nola ikusten zuen berak bertsolaria bere haurtzaroan! Ametsezko pertsonaia bat zen Xalbador haurarentzat pertsularia, guztiz miresgarria. Tarteka izeba Marianak ekartzen zizkion bertsopa-perak, eta haiek ikasi hainean, harrituta egoten zen pentsatzen nolako pertsonaiak ote ziren harek ikasi zituen kantu eder haien egileak. Halako batean enteratu zen “horiek deitzen zirela pertsulariak”. Jakin zuen ere, tabernetan-eta bertsotan nola aritzen ziren, eta jendeak nolako parrak egiten zituen be-roiekin. Baina berak ez zuen artean behin ere entzun bertsolaririk, eta aurpegiz ezagutu ere ez. Ez zegoen gaurko telebistarik eta horrelakorik.

Behin, herriko festak ziren batean, bertako taberna batera hurbildu zen gure artzain gaztea, bere

mendiko etxolara joan aurretik. Ez zen barnera sartu. Kanpoan gelditu zen, leihotik barne aldera begira. Eta hor non entzuten dituen pertsuka bospasei gizon. Zeinek asma dezake nolako arretaz entzungo zituen gure artzaintxoak? Ez zuten bete. Ez zitzaizkion iruditu harek ametsetan ikusten zituen haiek bezalakoak. Baina han ari ziren eta han asi erazi zuten Xalbador. Hain onak iruditu ez zitzaizkiolako, bera ere ausartu egin zen eta gau hartan kantatu zuen bere lehenengo bertsoa urepeldar haundiak. Han entzun zen lehenengoz haren “odolaren mintzoa”.

Zenbait bertsolarik ez ote luke aterako Xalbadoren historiaren antzekorik berea kontatzen hasiko balitz? Zenbat Joxek ez ote du Xalbadorenaren antzeko ahotsaren “mintzoa” entzun araziaren meriturik? Bada bai tabernarik eta sagardotegirik, hamai-ka hazi eder erne arazitakorik.

Gure Joxe Tolosa hau Gipuzkoako Zaldibitik joana zen Urepelera. Honek eramana zela uste zuen Xalbadorek tabernan bertsoan aritzeko ohitura hori. Eta batere lotsarik gabe aitortzen du Joxe horrengatik Gipuzkoari dion zorra bere bertsolaritzan.

Urepeldarra ez da izango horrelako jendeari zorra dion bertsolari bakarra.

Aipamen hau izan bedi eskerronezko aitormen bat Joxe horren antzeko nolahalako bertsolari guztientzat. Horietan ditu askotan bere sustraiak gure bertsolaritza haundi eta ederrak.

Gazteak nagusi

Txapelketa batek beti sortzen du aparteko giro bat bere inguruan. Hori berea eta betikoa du txapelketak. Baina bukatu berria dugun honek ikusmin berezi bat zekarren berekin.

Antolaketa eskuz aldatzeak ematen zion halako berritasun bat. Antolatzaile berriek asmatuko ote zuten eta abar, bazen zalantzarik eta horrek suspentse bezelako bat erantsi zion. Baina hori guztia bertsoaren inguruko zerbait zen, hala ere. Bazen bertsoaren eta bertsolaritzaren barnekoagorik Txapelketa honen baitan.

Izan berria genuen Fernando Amezketarra saria. Hor ez ziren banaka neurtu bertsolariak, taldeka baizik. Eta Segurako taldea izan zen irabaztun. Baina taldea mutua da. Taldekideak dira kantariak, eta norbaitengatik nagusitzen da azkenean talde osoa. Hori ez dago esan beharrik.

Izan ziren hor norbaitzuk polikitxo nabarmendu zirenak. Eta nabarmendu, batez ere, txokoan zeuden zenbait bertsolari egin ziren eta askorentzat hain ezagunak ez zirenak. Baina ez ziren gazteak. Aspaldiko bertsolariak ziren. Haietako zenbait, buruan soilgune gutxiago zutela ezagutu genituan, aspaldi xamar gazte izan ginenok. Orain, ordea, ahaztuxeak eta bazterrean bezala zeuden, eta askorentzat sorpresa haundi bat izan zen, plazetan hain

gutxi ikusten zituzten bertsolari haiek hain ongi kantatzen ikustea.

Gero horiek guztiek Txapelketarako eman zuten izena. Eta jende askoren buruetan halako irudipen bat sortu zen: ia hauek konsagratu horiek botatzen dituzten. Ikusmin haundia zegoen, plazetako bertsolarien ondoan zer egiten zuten jakiteko. Baina ez da ezer pasa.

Txapelketa honetan sorpresa eman dutenak ez dira izan bertsolari konsagratuak, ez eta zaharrak, nahiz plazako eta nahiz txokoko. Gazteak izan dira harridurarik gehien sortu dutenak eta beren burua gehien jaso dutenak.

Ez da aurtengoa bakarrik gauza hori. Zeinek esan behar zuen 1935eko Txapelketa haretan, Errezilgo gazte batek jantzi behar zuenik txapela, Txirritan handiaren-eta aurrean? Orduan ere, bertsolari izendun guztiak, eramandako txapela bakarrik buruan zutela itzuli ziren etxera.

Berria, gazte ezezagun batek eskuratu zuen. Ez zen sorpresa makala izango hura ere. Aurtengoa ez da hainbestekoa izan txapela kontuan. Irabaztuna ez da izan bertsolari berri bat, nahiz gaztea izan. Beste gazte batzuk izan dira hor bazterrak gehien harritu dituztenak. Zer izango zen hemeretzi urteko horietako batek irabazi balu? Zaharrok marka gutxi jarri ohi dugu. Gazteena da eginkizun hori eta etorkizuna ere bai.

“Klasiko gazte bat”

“Klasikoa” jarri zaio deitura aurtengo Txapeldun berriari. Horrela definitu du norbaitek Urolako bertsolari hau, eta hori esan eta hotsegin du batek baino gehiagok.

Klasikoa deitzen zaion moldea, zernahitaz dela ere, eta zerbait izatekotan, eredutzat jartzen eta hartzen den molde bat da. Beraz, aurtengo honetan, dirudienez, ereduzko moldera egin du jauzi bertsolaritzak.

Ez dakit aburu hori zenbatsu burutan dagoken; baina nere haundi honetan sartzen kostatzen zaio. Lehen ere ezagutu izan dut horrelako bataiatzailerik eta ni ez naiz konforme egon izandu. Berea dagokio, nonbait, nere honi ere aburua.

Hona hemen aurtengo Txapeldunarena ez den bertso bat:

“Emakumea esanda
esana da dana.
Emakumetan bada
bat txit bakana.
Irratian han dago
sortu ninduana;
Baldatikan oraintxe
noa beragana.
Aita dut joana.
Hau pena dudana!

Bainan haren dama
bizirik dut ama...
Hauxen da poza bertsoz
ezin esana”.

Hor dago bertsoa. Txapelketa batekoa da. Bederatzi puntukoa gainera. Nik badakit zergatik aukuratu dudan, eta beste norbaitek ere badakike.

Ez da aurtengo txapelketakoa; baina bai bere buruan txapela jantzi izandu duen norbaitena.

Nahiago nuke norbaitek hori baino bertso ego-kiagorik, bapateko nahiz jarririk, lau puntuko edo seiko edo zortziko edo nahi duenetakorik, ekarriko balit. Eta... klasikoagorik, jakina!

Eta ez da aire motel batean kantatua. Bederatzi puntukoan ezagutzen den airerik laisterrenean kantatua da. Xenpelarren “Behi betroia” delakoaren doinuan emana da bertso hori. Horrek baino askoz deskantsu gehiago du beste zenbai bederatzi puntukok, bai airez eta bai neurriz.

Hor dago bertsoa, zirpilik eta zarpilik gabea. Klasikorik behar bazen, klasiko; eta eredurik behar bazen, eredu.

Horra hor bertsoa.

“Agur eta ohore”, Urola

Bertsolarien Txapelketak 51 urte egin ditu aurtentzen. Eta mendeerdi pasatxo honetan, bederatzi aldiz jantzi dute beren buruetan bertsolariak.

Basarrik estreinatu zuen 1935. urtean. Txirrita izan zen hurrengo txapeladuna 1936garrenean. Basarri datorkigu berriro. Mende laurden baten burura jantzen du berriro. Tarte horretan txapel baten babesa istimatzekoa bazitekeen ere, txapela ahaztu xamarra eduki zuen jendeak. Burua salbatzarekin izan zuen nahikoa euskaldunak ekaitzaldi luze horretan. Gure zerua zerbaiz garbitzen hasi zuenean jokatu zen hirugarren hau, eta Zarauzko gure errejildarrak jantzi zuen berriro. 1960a zen urtea.

Uztapide izan genuen hurrengo txapelketaren irabaztuna. Urtea 1962a. Hurrengo bi ospaldietan ere Uztapidek berak jantzi zigun txapela. 1965ean eta 1967an ospatu ziren beste bi hauek. Eta berriro ere txapelketarik gabeko tarte luze bat dator. Hamairu urtekoa etena.

Amuriza dugu hurrengo txapeladuna 1980. urtean. 1982an jokatzen da hurrengo txapelketa eta berriro etxanoarrak sumatzen du txapelaren gozoa eta epela. Eta bederatzigarrena dugu oraintxe-oraintxe bukatu zaiguna.

Lizaso gazteak, Sebastianek, jantzi du oraingoa. 1987ko martxoaren 23a gogoan izango du bere bi-

zitzan. Bihoazkio zorionik zinezkoenak gure partetik.

Badirudi txapelak itzuli oso bat burutu duela bederatzi ekitaldi hauetan zehar. Eta itzuli hori, Urolatik Urolara dei dezakegu.

Oraindainokoetan, lehenengoa eta azkenengoa, Urolak bildu ditu. Basarri errezydarrak jantzi zuen ordukoa eta Lizaso azpeitiarrak oraingoa. Eta bitartekoetan ere Urolak etxeratu ditu gehienak. Bederatzietatik sei horrera hegatu dira: Basarriren bi, Uztapideren hiru eta Lizasoren oraingo hau.

Gure Sebastian ez da nolana hikoan lerroan sartu lehengo horretan. Badira norbait bertso laritzan errezydarra eta zestuuarra.

Eta lehengoz gain, orain txapeldun berria du Urolak. Horiek ere esan dezateke, lotsa haundirik gabe, Azkoitiako alkate harek bezala: "Zer gea ordie gu?". Zuek, oraindainokoan, Txapelaren historian, txapeldunenak zarete. Bada zerbait. Agur eta Ohere, Urola.

Bilbotik bueltan

“La Casilla”, izena bera ere, ezezaguna nuen nik lehengo igandea arte. Bertsolarien artean ez zen ohizkoa izen hori. Eta nola jakin bidea? Autobidetik non atera behar nuen ikasi nuenean, hala ere, kontentu! Baina gero nondik nora jo Bilbo haundi horretan?

Pentsamendu eta kezka horiek buruan nituela egin nuen ertera, eta sarrera. Eta bapatean hor non hasten naizen ikusten “Bertso saioa” txartelak han emenka. Markatua neukan bidea. Hura esker-on hotsa hasi zuen nere barrenak antolatzaileentzat! Detaile ederra iruditu zitzaidan, eta ezohikoa bezain beharrezkoa gure artean. Ongi hasten zitzaigun eguna. Sendimendu alai horiekin iritxi nintzen gure polikiroldegi ezezagunera.

Egun argiegiak, ordea, nekez izan ohi du iraupe-
nik, eta nerean ere berehalaxe hasi ziren lainoak eta ostarteak nahasten. Batari merezi baino gehiago eman ote zioten. Besteak eman ziotena baino gehiago merezi zuela. Mahaikoak ez zeudela ados. Hitz batean, gure betiko usteak eta aburuak. Horrelako gazi-gozo batean pasatu nuen eguna, besteak bezalaxe, nik uste. Aurrera pasatzen zirenen pozak eta atzera gelditzen zirenen penak, han zebiltzan nonbait gu denon buru-bihotzetan.

Eta ez ziren han bukatu gure kontuak. Ondo-
rengo egunetan izan dugu hango zenbait bertso be-

rriro entzuteko aukera, eta gure usteen festak izan du jarraipenik. Eta guztien buruan, honetaraxe iristeko: Gauza ez dela askotan norberak uste bezain erreza eta argia.

Eta orain hemen gaude igandera begira.

Txapela izango du bere azken puntu norgehiagoka honen historiak. Eta oraingo honetan azken hitza, edo azken puntua, ez du izango apezak. Ez-eta epaimahaiak ere, ez du izango. Esana libre izango da geroago ere, eta esamesak ere bai. Hori betikoa dugu.

Nik opako niokeena egun horri, hauxe litzateke: Txapelketa eder honek merezi bezalako bukaera izan dezala. Jendearen emana ikusia dago. Hemen nago ni, eskatu zizkidaten sarrerak eskuratu gabe oraindik. Eta ez naiz bakarra, agi denean. Bertsolariak dute orain hitza. Zortzikote horrek ez dut uste hutsegingo duenik. Egun on bana izan dezatela eta hoberenak irabaz dezala Txapela.

Bertsoa, bertso; txistea, txiste

“Urepeleko artzaina” zaigu mintzo bere “Odolaren mintzoa” liburuan. Entzun nola: “Azken denbora hauetan, pertsuzale batzuk atera daukute ez duela rimak inportantziarik haundiena pertsu batean; barnean zer duen dela gehienik konda.

Behar bada, pertsulari batzuek ere atseginekin entzun dute ateraldi hori, askatasun horrek arint lezakelakotz gure lanaren zailtasuna. PERTSULARIAK PERTSUAK EGIN BEHAR DITU. Nolakoak egin diren, hori besterik da. Bainan arrazoinamendu txar bat ongi rimaturik, pertsuago da, arrazoinamendu on bat gaizki rimaturik baino. Irinik hobere-narekin egin oreka ere ez da ogia, labean axala egin artean”.

Garbi dago Xalbador zertan ari den eta zer ez duen onartzen. Errimarenak ematen dio horretarako aitzaki eta bera da espreski aitatzen duena, baina bertso osoa ere hartzen du. “Pertsulariak pertsuak egin behar ditu”. Hori du lehenengo baldintza, eta ez txiste edo filosofia edo teologia edo ez dakit nik zer. “Arrazoinamendua” gero dator.

Xalbador zenaren horrek, orain dela hogeita zortzi bat urte Ordizian ikusi eta entzundakoa derakart gogora.

Irailako lehenengo ferietako batean Euskal Festa bat egin ohi dute Goiherriko kapitalean. Eta urte

hartan, beste askotan bezalaxe, bertsolariak ere bazituzten; eta gainera, norgehiagoka bat antolatu zuten beraiekin. Ez dakit zein bertsolari motarentzat izan zen deia; baina denetarikoak bazirela han bai, badakit.

Barka bezait familiak, orain aipatuko dudan hau izenez ez aitatzea. Ezizena bakarrik daukat go-goan, nik han bertan ikasi nuena. "Izurako Moxo" esaten zioten. Beste gehienak gazteak ziren, eta hau urtetan sartua zegoen ordurako.

Harek egin erazi zizkigun parrak! Zer ez zuen esan harek! Txirritak txapela berari utzi ziola ere hari entzun genion. Xelebrekeria xelebrekeriaren gain botatzen zuen. Gauza bat ez zuen botatzen bakarrik: bertsorik. Bertsorik ez genion entzun; eta jakina, saririk ez zuen eraman.

Parra egineraztea eta bertsoz parra egineraztea, bi gauza dira. Eta bertsolariak bertsoz eginerazi behar du par, bertsoan ari denean behintzat, eta ez txistez bakarrik.

Gure adierazpenak modu askotara egin ohi ditugu. Mutuak seinuz eta keinuz adierazten ditu beraren pentsamenduak eta sendimenduak. Margolariak margoz. Gehienok hitzez soilik egin ohi dugu; baina badira gure artean bertsoz edo hitz neurtuz egin nahi dituztenak. Hori dute beren tresna, eta tresna horren bondadea da bertsolarien adierazpenaren bereizgarria. Horregatik, lehenengo baldintza, bertsoa izatea da, eta gero gainerakoa.

Azkar eta ondo

Bertsoa hasten denbora asko xamar pasatzen duen bertsolaririk bada.

Beti ez bada ere, inoiz behintzat. Gaia ematen zaio eta han dago, buruari bueltak ematen edo, isil-isilik mikrofonoaren aurrean. Eta jendea luzetsia. Ia-ia larritzen hasita ere bai inoiz.

Iduri luke, horrelakoak, bertsoa egin egin nahi duela buruan eta gero buruz kantatu, ikasitako bertso bat bezala. Eta zenbaiti ez zaio gertatzen hori gai bati bota behar zaizkion hiru bertsoetatik aurrenekoan bakarrik, bakoitzarekin gertatzen zaio gauza bera.

Eta berantze edo luzapen hori baloratu egin behar omen litzateke bertsoa edo bertsoak neurtzerakoan. Bapatekotasunarekin zer-ikusi haundia omen du horrek eta bertsolarien gaitasunarekin ere bai. Bada kronometroa erabili behar litzatekeela dioenik, eta erabiltzen duenik ere.

Kronometroaren beharra ez dakit zenbaiterainokoa den, memoria ere hor baitago; baina hor pasatzen den denbora gehiegizko dirudien hori kontutan izatekoa da noski. Bada tarte bat, gaia ematen denetik kantuan hasten den bitartean, bidezkoa dirudiena, eta bada beste bat gehiegizkoa iruditzen dena.

Eta erreza ez bada ere segundotan neurtzen, noiz bukatzen den legezko isilunea eta noiz hasten

legez kanpokoa, hori badela denok dakigu. Ohiko senak erakusten digu. Beste kontu bat da, gero bertsoari eman behar zaion notan, zenbaiterainoko gorabehera egin erazi luzapen horri numerotan. Hori zailagoa da erabakitzen.

Dena dela, ez dut uste arriskurik haundiena, hasten berantzearena dutenik. Akaso, behar hainbat segundo hartzeko kapazitaterik ezarena haundiagoa dutela esango nuke, edo hartzen dituzten hoiekin baliatzen ez jakitearena.

Azkar hasten den guztia, ez da azkar abiatzen, hasteko presto dagoelako, prestatzeko gauza ez delako baizik. Horregatik ihes egiten dio hainbat bertsoak gero eta sumatzen zaio hainbeste betelan.

Eta bertsoa, kontrolatzen jakin behar da. Ez du bertsoak eraman behar bertsolaria. Honek egin behar du ekarri eta eraman bertsoa. Abilidadea horretan dago. Bertsoa mendean duen harek bakarrik egiten du bertso ona. Eta besteak beste, bertsoaren alderdirik hoberena, ona izatearena da, ez azkar botea izatearena.

Azkar eta ongi badakigu zeinek egiten omen duen. Eta biak ezin direnean, ni ondo egitearen aldekoa naiz.

Joxe eta biok

Bergaran, lehengo igande eguardiaratean, Joxe Lizaso eta biok gertatu ginen elkarren ondoan Txapelketako saioan. Bertsoak arreta haundiz entzun genituen; baina gure kontu potxoloak ere esan ahal izan genituen tartean.

Eta biok erabili genituen solas haiek eta nik nere kasa izan nituen burutapenak datozkit gaur mihiaren puntara.

Eta jaio zitzaidan burutazioetako bat, hauxe da: bertsolari gehiago egon beharko lukeela epaimahian. "Jakina, -lio ke norbaitek- corri ez hago han eta. Hik zer esango duk". Ez da horrelakorik. Jakin beza edozein malezidunek nahiz malezigabek, han gustora egoten eta aritzen nintzela; baina gustorago nagoela hemen. Ez da hori kontua. Joxe Lizasok entzun hainean egiten zituen oharrek sortarazi zidaten pentsamendu hori. Eta gauza bera gertatu zitzaidan biharamonean beste Joxe bat -Joxe Agirre-bisitatzera klinikara joan nintzenean. Han ere bezperako bertsoak izan genituen gure elkarriketa-gai eta gauza berbera etorri zitzaidan burura.

Bertsolariek ez dute bertso bat bera ere entzuten neurtu gabe. Eta nola neurtzen dituztelako bertso bakoitza eta sorta bakoitza eta beraien inguruak! Ederki dakite zeinek duen alderdirik txarrena manimano ari direnean eta nola baloratu behar di-

ren txarrenetik ari denaren arrazoiak. Eta bi muturretatik heldu beharreko gaiari zeinek eman dion buelta norberaren aldera, Fernando amezketarrak apaizaren fuenteari bezala, primeran ohartzen dira. Baita zeinek ihes egin duen gaitik ere. Hitz batean, bertsoaren goibeheak eta erdiak eta saiheutsak eta hezur-mamiak, begiratu batez neurtzen eta baloratzen dituzte.

Bi Joxe hauek ez dakite nik burutazio hauek erabili nituenik haiekin berriketan nengoen bitartean eta ez dira enteratuko ere, noski, artikulua honetatik, ez baitute ohiturarik ni bezelakoaren alde-aldeko kontuak irakurtzeko.

Joxe Lizasok eta biok, gutxienez bi aldiz esan genion elkarri "tema horretan bestea hastea hobe izango zen". Alegia, baserritarrari multa egitera doan polizia, bera hastea hobe zela kantuan, eta medikuaren bila doan aita gaixoaren semea ere, bera hastea hobe izango zela, medikua hastea baino. Gauzak hala du itxura. Gaiari berezko haria hartzeko ere, horrela egokiago dela esan daiteke.

Baina gure solasak ez ziren kritika bat. Eta hau ere ez, ez da. Izatekotan ere, ohar bat da. Ez dut uste Laxaro Azkunereren lanak gaitzespen haundirik merezi duenik. Aspaldi honetan horrelakoxe kontu potxoloak esanez gabiltza eta ez dut uste, oraindik puxka batean, faltatuko zaizkigunik.

Doinuak edo aireak

Txapelketako saioetako bat Oiartzunen jokatu zuten lehengo kanporaketan bertsolariak. Saio hartan kartzelako gaia ere bazen. Gai arina. San Ferminak Iruñean pasatutako batek, Donostiarako tren hartzeko partez, Bartzelonara doana hartzen du, eta premiazko loaldi bat egin-eta esnatzen denean, hor non ikusten duen bere burua Bartzelonan. Hori izan zuten gaia.

Esan bezala, gai arin bat da hori. Eta badirudi, gai hori tratatzerakoan bertsolariak, doinuak ere hala beharko lukeela izan: arina, alai, bizi... Hantzen hala gertatu. Batek bakarrik hartu zuen zortziko txikiarena. Eta beste batek bakarrik hartu zuen zortziko haundi alai baten doinua. Beste guztiek doinu serio eta formalegietan ihardun zuten.

Nahiko maiz hartzen du zenbait bertsolarik hamarreko haundia, bakarrik kantatu behar duenean. Bakarren bat bada aldi oroz hala egiten duena. Eta beti doinu berean gainera.

Eta egia esan, hamarreko haundiak -zortzikoak ere bai- bere alderdi onak baditu. Gehienetan patxara haundiagoko doinuak dira, eta horrek beta gehiago ematen dio bertsolariari kantatu hainean pentsatzeko. Gainera, neurriak zabalagoak direnez eta lekuak ere haundiagoak, badirudi errezago dela hor, egin beharreko betelanak egiten, txikiaren neu-

rritan errenditzen baino. Bere buruarekin konfiantzarik ez duen bertsolaria, nekez hasiko da zortziko txikian kantatzen. Hor azkar korritzen du doinuak, eta nai baino gehiagotan ihes egiten dio bertsolariari. Horregatik jotzen duela uste dut nik zenbait bertsolarik neurri haundietako doinuetara.

Baina ez dira bakarrik abantailak edo bentajak neurri haundiarenak. Baditu bere alderdi txarrak ere. Eta bat, eta nagusiena nik uste, ongi betetzearena du.

Tamaina horretako bertso bat betezeko, zer esana behar da ugari, eta askotan hori izaten da eskas. Neurri txikikoan ere gertatzen da hori, baina han lasterrago pasatzen da eta ez du hain gaizki ematen, azkena lehenago etortzen baita. Baina bestean oso nabarmen gelditzen da. Askotan, alde-aldera, nontsu bukatu behar duen ere antzematen diozu, eta sekuletan iristen ez azkena.

Ondo betetzen ez den bertso haundia, oso nekagarria da entzuteko eta oso itsusia erakusteko.

Horregatik, doinua aukeratzen jakiteak, badu bere garrantzia bertsolaritzan. Egia da, txapelketa batetan, ez dutela izaten bertsolariak nahiko lutekeen neurriko doinua aukeratzeko modu haundirik. Bakarka ari behar dutenean bakarrik ematen zaie aukera hori, eta orduan ere ez beti. Dena dela, doinuaren eta neurriaren aukera bere esku dauzkanean ez dezala pentsa bertsolariak, neurri haundikoa beti hoberena denik ongi kantatzeko eta bertso onak egiteko. Noiz-nola hor ere, beste gauza askotan bezalaxe.

“Ezusteko epela”

(“Eguna” astekarian argitaratua)

Duela zazpi-zortzi urteko kontua da. Zabalegin ginen. Galarreta inguruko Nekazazi-eskola horretan. Bertsoa genuen aitzaki, behin behar eta. Eskolarteko txapelketa hasten zen, eta bapateko ekitaldiak baino lehen, idatzizko ariketa zuten partaideek. Batzuek hiruna bertso egin behar zuten eta beste batzuek bina, adinaren arabera. Ez dakit zen gai bakarrarekin edo banarekin. Nik gogoan dudana, zera da: “Kalabazak” zutela gai hiruna egin beharrekoek. Ikasleen kalabazak, jakina, ez baratzakoak.

Eta gogoan dut nolako hiru bertso eder irakurri nituen norbaitek gai horri jarriak. Xabier Perez bat omen zen egilea.

Delako mutiko hori, ez nekien nik zein zen; nere aldamenekoren batek bai, bazekien. Ondorenean bapatekoetan aritu zenean ezagutu nuen aurpegiz. Hitzik ez genuen trukatu elkarrekin egun hartan.

Handik hilabete batzuetara izan nuen egokiera berarekin hitzegiteko. Ez dakit batere non. Eta “Zer moduz amaren blastadak” geldetu nion nik. Eta “zergatik galdetzen didazu hori” berak. “Ez al haiz gogoratzen -segi nion nik- zer idatzi huan Zabalegi-ko ariketa haretan?” Eta hiru bertso haietako baten hiru errimak gogoerazi nizkion. Harritu zen Euskitze nik bertso haiek gogoan izatearekin. Harrezkero izan dugu harremanik eta elkar ezagutzeko aukerarik, bertso eta prosa.

Badakit irakurle eta ikasle izan dudala, nik bertso kontuetan esan eta idatzi ditudan gauzetan; baina badakit nigandik ikasia dukeenari ez zaiola zor berak bertsoan erakusten duen kategoria. Elkarren berri ez genuela harritu ninduen ni. Nigandik ikasi ez daitekeen zerbaitengatik agertu zen profeta bere herrian finalerdietan. Inorengandik ikasten ez den zerbaiteagatik izan da sorpresa mirregarria Txapelketa osoan, finala barne. Eta inolako maisurengandik ikasi ez duen zerbait da berak erakutsi duen maisutasuna. Hori ez da ikasten. Zoragarritzko "prepezioa" lortu du bapatekotasunak Euskitzeren ezpainetan. Hor ez dago zirpilik eta zarpilik. Egokia da gramatikaz, egokia da errimaz, egokia da erritmoz, berdingabea da neurritz. Badu humorea, badu lirismoa, badu pikardia, eta ederki egiten du ziri eta arrazoi ordainetan.

Gezurra badirudi ere, bapatekoak ez diola ia-ia zorrik erakusten du idatziari. Hori da Euskitzek txapelketa honetan eman duen sorpresa, eta jarri duen maila eta erakutsi duen bidea. "Hori hizketie" zioen errezildar bertsolari eta bertsozale batek Euskitzeren egokitasuna entzutean Azpeitian. Azpeitiar bertsolari gazte honekin ez dago bertsoa bukatu zai egon beharrik zerbait esaten duen jakiteko. Entzun hainean ere ez dago sufritzen egon beharrik, egiten dituen hutsekin. Dena berez eta ederki doa.

Hemendik aurrera ezin zuritu ahal izango ditu inork mila modutako akatsak, bapatekotasunari zaion zorra omen direla eta. Hemendik aurrera ongi egina beharko du bertsoak, ona izateko. Lehendik ere ondo egina izatea zirudikeen behar zuela bertsoak ona izateko; baina hemendik aurrera gehiago. Hor dago marka jarria. Ondu nahi duenak badaki nondik gora jo behar duen. Ezusteko epela eman du aurtengo txapelketa honetan, inongo bertso-eskolan ibili gabeko azpeitiar gazte honek.

Martintxo hil omen da

(*"Argia" astekaritik*)

Horrelatsu zabalduko zen berria Tolosako ferian, Martintxo hil eta ondorenean. Eta jendeak pena izango zuen, batez ere gizonezkoek. Gehiago ez zuten bertsotan entzungo Tolosako tabernetan. Jende askok hartuko zuen pena, ezagutzen zuten guztiek. Nik ere pena hartu nuen. Hartuko ez nuen bada!

Gogoan daukat oraindik, txiki askoak ginela, anaia eta biok nola jeikitzen ginen ohetik, eta koartoko atea irekita, nola egon ohi ginen harek tabernan kantatzen zituen bertsoak entzuten. Askotan gaulehenetik izaten zen, eta beste askotan goizaldera. Hamaika astelehenetan ere ibili ginen ohera joan nahi ezik iluntzean, gizonezkoak feritik etortzean, Martintxo haiekin baldin bazetorren. Alde-aldera antzematen genion bertsotan hasiko zen edo ez. Eztarriarekin ateratzen zuen hotsetik igertzen genion. Eztarriari halako karrankako bat ateratzen baldin bazion, eztarria garbituz edo tenplatus bezela, bertsotan hasiko zen seinale. Eta gure poza haren bertsoak entzuteko!

Horregatik, pena hartuko ez nuen bada? Jainkoak zerua diola Martintxo bertsolariari.

Hala ere pena haundiagoa amaten dit hura Euskal Herri osoak ez ezagutu izanak. Horretan berak ere bazuen herrua. Zenbat ahalegin jo zuten haren

adiskideek hura beste bertsolariekin plazara atera zedin, eta hura beti ezezkoan! Egia esan, urtetan sartuxea harrapatu zuen bertsolarien oraintsuko burrundara zoragarri honek, eta alde batera ez da harritzekoa plazara atera nahi ez izatea. Baina pena izatekoa da haren ahots eder hura eta haren bertso-rik gelditu ez izana magnetofono batean.

Nik gogoan dudala, behin kantatu zuen plazan. Gaztelun zen, haren eta nere jaioterrian, Amabirjina Abuztukotan. "Martintxo" beserriko semea zen. Hortatik dator kio bere izengoitia. Prantxisko Goenaga zuen bere grazia. Egun haretan, Asteasuko Ondartza eta Ibiya, eta Errezilgo Goina zituen lagun kantatzen. Sari txiki bat ere jarri zuten hoberena juzgatzen zenarentzat, eta... gure Martintxori eman zioten. Hura izango zuen, nik uste, bertsoan irabazitako sari bakarra. Eskolako balkoitik kantatu zuen, eta badakit, zeuden lekuarekin bertsoa lotuaz, nola bukatu zuen bertso bat honela.

"guri batxillerra erakusten
izango dute naiko lan".

Urteak dira hori zela. Lehen esan dudan bezala, horrelakoxe graziz entzuten genituen guk haren bertsoak eta ateraldiak, eta gero elkarri kontatzen genizkion herrian. Gogoan dut bat bizi naizen artean ahaztuko ez zaidana, nik uste.

Haren auzoko baten etxera lanera -patata ateratzera- joan ginen hura eta gu. Soroan ari ginen, eta honetan, gurekin ari zen bati, etxean udara pasatzen zeukaten mutiko bat etorri zitzaion, haien astoak kargak bota zituela esatera. Eta jaun horrek "Baina bota al ditu?" galdetu zion. Eta mutikoak erderaz "casi, casi". Eta gure Martintxok ondotik: "Ez dalako ondo hasi". Zenbat horrelako bota ote zituen

bere denboran. Hura egokitasuna zuen hizketan eta ateraldietan!

Haren bertso eta ateraldi batzuk dakizkitenak badira. Gure A. Zavalak halakoren batean txango-txo bat egin beharko luke Gaztelu aldera, gure bertsolariaren urre-printza horiek biltzera, haren mingaina isildu den arren, haren arnasak Euskal Herrian iraun dezan betirako. Entzun dudanez, Elizakoak eraman zizkion apaizari ere bertsoetan egin zion ongi-etorria. Gogoan jaso ote zion gure Buena-ventura jaunak?

Don Anton Garro Abaroa

Don Anton, Saturrarango eta Donostiako apaiz-gaitegietako eta Larramendi eskolako eta Santo Tomas Lizeoko irakasle izan zen. Euskal Herriko Txistulari Elkartekoa ere bazen. Euskara ikasten eta irakasten saiatu zen ahalegin bereziz, etxetik ez baitzekien arabar prestu honek, OTXOLUA idazlearen iloba izan arren. Leioan hil zen irailaren 22an eta hango hilerrian ehortzi zuten. Donostiako seminarioan ere, ordea, egin zitzaizkion hileta elizkizunak. Nik han kantatu nituen bertso hauek.

2. garren bertsoan zera esaten dut: “Zure abizen ederrari guk / egin genion bihurra”. Ikusi duzunez, Garro zuen abizena eta guk “Garrote” goitizenez deitzen genion askotan. Haren bihotz onak min hartuko zuen behin baino gehiagotan, asko erakutsi ez bazuen ere.

Neregatik galduak ziren bertso hauek. Mikel Atxaga lagunak eta Don Antonen ikasle eta miresle eta lagun izanak, DEIA egunkarian argitaratu zituen eta handik eskuratu ahal izan ditut. Poztu naiz benetan. Ez nere bertsoengatik. Don Antonengatik poztu naiz. Haren izena galtzeak ez zuen me-rezi. Hontan ere zordun natzaio Mikel Atxaga lagunari.

Garro zenuen lehen abizen,
gero Abaroa zegon,
bizkaitar zeunden egina orain
sortu zinena Amurrion,
Gipuzkoari emana zara
hainbat fruituren zorion,
nongotar eta nongoa zaren
ez dakit hain garbi dagon;
baina guretzat izango zara
zu beti gure Don Anton.

2 Maisu ta ikasle ginela ginen
elkarrengana ingura,
Saturrarango itsas-ertzean
zenuen gure ardura.
Zure abizen ederrari guk
egin genion bihurra,
harekin jotzen genuelarik
maiz zure bihotz xamurra...
Barka zaiguzu, Don Anton maite,
ezizen pikaro hura.

3 Saturrarandik Donostiara
egin zenuen jauzia,
bi horietan igaroa da
zure bizitza guzia.
Haurrak gazte ta gazteak gizon
eiten zara ikusia,
eta den-denek nola eskertzen
zuten duzu ikasia
zu irakasle eta zu lagun
izatearen grazia.

4 Lagun zenitun zure lagunak,
baina etsaiak ez etsai.
Zer ote zuen zure bihotzak
beti onez zezan jarrai!
Gerra garaian gorriak jasan,
gerora ere zerbait bai...
hitz bat txarrikan inoiz ez zendun,
aurpegia beti alai...
Nola demontre zinen, Don Anton,
zu etsaien ere anai?

5 Zeruko Aita, otoitz bat dauka
Zuretzat ene kolkoak,
Zuk baitakizu gure heharrak
zer diren ta nolakoak.
Giza-indarrak urriak dira,
baitare bestelakoak...
Egizko indar bakarra diren
gizon eta andrazkoak
emaizkiguzu, Jaungoiko ona,
Don Anton bezalakoak.

“Hura zen don Manuel, zu zara Joan Mari”

Zeinen ederki tartekatzen zituen bere erantzun-mintzaldian bi esaldi horiek Jean Haritschelhar jaunak lehengo larunbatean Oihartzungo Udaletxean! “Hura zen Don Manuel, zu zara Joan Mari”. Lelo horrekin elkartzen zituen Lekuona biak, eta bereizten elkarrengandik, garai bateko Euskaltzainburua eta gaurko Euskaltzainburu-ordea. Osabaren aulkia hartzen zuen ilobak, eta harek zekarren testigua jasotzen. Ez ordea hartutako leku berean edukitzeko, haruntzago eramateko baizik. Hori esan nahi zuen Baigorriko Alkate ohiak bere “Hura zen Don Manuel, zu zara Joan Mari” lelo xoragarri horrekin.

Bai, bi Lekuona hauen izenean eta beren omenean eta berentzat eskerronean ibiliak gara lehengo asteburuan Oihartzun aldean. Eta ondo hartuak eta onartuak ibili ere, hainbat eta hainbat euskaltzale eder eman dituen herri bikain horretan.

Eta, ederrik eta ohoragarriarik eman badu, Don Manuel izan da bat. Eta Oihartzunek ez dauka ahazteko bere Lekuona “zaharra”. Nolaz, izan ere? Han zeukaten erakusketa polit bat argazkiz osatua. Han ageri zen Don Manuel, bera zen bezain txukun eta egoki, hainbat eta hainbat jenderekin eta lekutan eta zereginetan. Begiak ez zuen aldegin nahi argazkiko eta marrazkizko ikuskari haretatik. Nik us-te, bihotza geneukala josia, han agertzen zen jaun

harengan. Ez zen, ordea, erakusketarekin bukatu Oihartzunek bere semeari dion begirapena.

Gaur bai eta bihar ez den erakusketa bat gutxiegi zuen Don Manueli bere omena egiteko. Zerbait iraunkorragoa eskaini nahi zion. Eta eskaini zion.

Herri osoaren ordezkariak, Udaletxean bildurik, aho batez eta txalo luzez, "herriko seme kutun" izendatu eta aitortu zuten betirako Don Manuel Lekuona Etxabeguren Jauna. Horrela ospatu nahi izan dute haren heriotzako urtemuga. Zeinen ederki! Ez du gutxi ohoratu bere burua Oihartzungo Udalak, bertako seme seme maitagarri hori horrela omenduz. Bejondaiola!

Baina "hura zen Don Manuel". Eta "zu zara Joan Mari". Lekuonazko festa ez zen bukatu izanaren eta eginaren oroitzapenetan. Egintzetan eta eginkizunetan segitu zuen. Lekuona zen lekuan, Lekuona da."Katea ez da eten". Sua ez da itzali etxean.

Eta han genuen iloba, osabak utzitako aulkia hartzen. "Zu zara Joan Mari". Osabak hasitako lanaren jarraitzaile eta sakontzaile eta biribiltzaile. Bertsolari, olerkari, ikertzaile, irakasle eta zer dakit nik zenbat gauza, Haritschelhar jaunak ederki esan zuen bezala. "Hura zen Don Manuel, zu zara Joan Mari". Lekuona joan, Lekuona etorri. Baina hemen ez da errege konturik. Hemen langile eta euskaltzale zintzo kontua da. "Hura Don Manuel", hau "Joan Mari". Bi izar eder Euskal Herriko zeruan eta lurrean. Gora zu, Don Manuel maitea. Zorionak hiri, Joan Mari. Eta enkargu bat: Ehun urtez okupa dezakean aulkia, beste Lekuona batentzat libra dezakeala.

Imanol Lazkano

Moda-modan daukagun jaun bat dugu Imanol Lazkano azken bolara honetan. Asteazken gauean telebistan ikusi ahal izan genuen "Aurrez-aurre" Joxe Mari Iriondorekin. Gose-egarririk gabeko gizon "preskue" eta "prestue" ageri zitzaigun. Nik ondoan neukan iloba emakumezko eta heldu batek, oso ile polita zeukala adierazi zigun. Jakinaren gainean gelditzen da orain. Pelukera horren iritzia ez zaio gaizki etorriko, Arantxarena ahaztuxea baleuka ere.

Biharamonean modanago jarri zitzaigun berriz. Donostiako Udaletxeko Areto Nagusian Euskal Herriko Bertsolari Elkarte jaio berriaren Lehendakari izendatu ziguten. Egia esan, lehendik ere hala zengure azpeitiarra. Baina lehengoa, presaka eta ordukoz egina izan zen. Ostegunekoa, ordea, lege gutien legez egina izan da.

Elkartearen buruzagitza, eginkizun haundi eta astuntzat hartu zuen Imanolek. Geroari egoki erantzungo dion bertsolaritza bideratzea omen da Elkartearen eginkizun nagusia. Eta hori ez da edozer gauza.

Ba omen daki Imanolek, orain arte ez ezik, geroan ere izango duela bera baino langile iaioagorik eta laguntzaile saiatuagorik langintza horretan. Zerbait egin nahi duen guztiarentzat ateak zabalik utzi zituen eta lanpostuak aukeran. Beraz badaki bertso-

lari eta bertsozale guztiak, bertsolaritzaren gurdiari bultzatzeko asmorik baldin badu, zeregina badagoe-la eta, inoren ahalegina ez dela sobran izango.

Izendapenaren ondoren ez zuen luze hitzegin gure Lehendakari berriak, baina bai egoki. Erteran esan zitzaion bezala, bertsotan bada norbait gure Imanol, baina hizketan ez da gutxiago, nahiz eta, alboan itzal haundiko jaunak zeuzkanez, eztarria zerbait estutu zitzaion. Hitz justuak eta hitz zehatzak izan ziren "Gaztelu" jaunarenak.

Oraindainenokoa bazukeen laguntzailerik Imanolek, eta baduke gerokoan; baina orain arte izan dituenak hainbat meritu badu azpeitiarrak berak, bertsolaritzaren barnean sortu den zaharberitu nahi horretan. Beraren ikuspegi kritikoari zor zaio, izan ere, orain artekoa.

Zerbaitegatik jarri dute buruzagitzan. Beraz zorionak eta lan onak opa dizkiogu Lehendakari berriari.

Ramos Azkarate Otegi

“AUSPOA” dakart berriro ere txoko honetara. Nonahi zor zaio ematen zaion baino leku gehiago; baina beste inon bada-ta hemen zor zaio lekua, bertso-kontuak sartzan ditugun leku honetan.

Berriketaldi honen gainean agertzen diren izen-abizen edo izen-deitura horiek, edozeinek ditu entzunak eta ezagunak. Tolosako Ihauterriekin betirako lotuak daude. “Galtzaundi” kantu ederraren egilea nola ez izan ezaguna herri festazale honetan?

Baina Ramos Azkarate jauna, erramu igandez jai zelako izen horrekin bataitua, beste kantu eta ipuin eta antzerki askoren egilea ere bada. Eta ez nolana hikoak. Tolosako zapatari hau ez zen makala, “Gutxijakina” dela aitortzen dio berak “Elosegiko on Jose jaunari” bere “Ijitoen kontratuba” antzerkia eskaintzerakoan. Eskolaz jantziegia ez genuen, beraz, gure zapataria. Baina bai idazle bizkorra eta euskaltzale amorratua.

Euskaltzale amorratua, eta karlista “purrukatua”, Antonio Zavalak dioen bezala. Ez geneukan ez bata eta ez bestea esan beharrik, nahikoa da beraren bertsoak nahiz beste lanak irakurtzea, nolako maitasuna dion euskarari ikusteko eta nolako egurra ematen dien karlista ez direnei jakiteko.

Hona bertso polit bat, Alvarez Garcia errepublikano bati eskainia. Nonbait aurre haretan, errepu-

blikazale horiek batzarra egin zuten Altsasun, eta Garcia horrek esana izan behar zuen, Monarkia gaizki dagoen “aragi montoi” bat zela. Hori dela eta, ikus zer bertso eskaintzen dion delako Garcia horri:

“Amaika gazta ustel
Alvarez Garciak
urdalletikan dauzka
beeraiño pasiak.
Gaztaren arrak nunbait
zeukazkin gosiak,
ta jaten ziozkaten
berari estiak;
bestela ezin bota
olako pestiak”.

Azkarateren bertsoak lehen ere baditu atereak AUSPOA liburu sailak. 7. du numeroa aleak. Bertsojartzaile librea eta egokia agertzen da Ramos. Zirti-zartako ederrak badira hor ere. Idazle bortitza da. Eta atsegina gaurkorako. Orduan aurki ez zen hala izango, etsaiantzat batez ere.

Ijitoak ere hasarretu omen zitzaizkion antzerkia-rengatik.

Merezi ditu ohoreak eta eskerrak Tolosako “karlista purrukatu” eta euskaltzale “amorratu” honek.

Bilintx

Irakurle: Egizu kontu, herenegun dela gaur, duela bi egun igaro zen osteguna. Solasalditxo hau, nik orduan nere baitan egin nuena da. Beraz...

Gaur, osteguna, Euskadi Irratitik deitu didate. Bertsolari kontua da. Apirilak 30 ditu eta gaur dira 156 urte Indalezio Bizkarrondo jaio zela Donostiako Alde Zaharrean. Izen-abizen horiek ezagunak badira ere, badaiteke bat baino gehiago norenak diren ez dakienik. Baina Bilintx esaten badut, "A, bai"! aterako zaio mundu guztiari.

Ohartu da Donostiak eta beraren inguruak eman duen hainbat bertsolari bikainen artean bikainenetako bat aipatzen ari naizela. "Kontxexi", "Kotxexirentzat", "Potajiarena". "Bein batian Loyolan" eta abarren sortzaile famatua dela. Eta ezezinez "Moko" zela ere badaki, okotzik gabea bait da. Haurretan galdu zuen, jolasean zebilela erorika bat eginda. Desgrazi gehiagorik ere izan zuen bere bizitzan. Bere 45 urtetan, berriz, bonba batek bi hankak puskatu zizkion, bere etxeko gelan traje berria jazten ari zela San Sebastian egun batez. Handik sei hilabetetara hil zen. Hor bukatzen dira figura gaiztoko gure Indalezioren penak. "Atxurrak eta palak" aina pena sendatu duen medizinarik ez da hemen. Eta harenak ere horiek sendatu zituzten.

Baina haren izpiritua ez da hil. Eta beraren "aitamenak", beste harenak bezala, badiraute oraindik, eta iraungo, bihotz maitemindurik eta bertsozalerik den bitartean. Eta lehenak ez dira faltako mundua mundu den arte, eta besteak ere ez, gure hizkuntzak diraueno. Beraz gure "Moko" ahaztuta gelditzerik ez dugu espero.

Ez du merezi ere ahazterik, hainbeste zoritxarren artean horrelako edertasunez bizitzari erantzuten dion gizonak. Ez du bertso bakar bat ere gaitzekorik. Dena humore eta amodio da gure Bilintx.

Eta nik ere horrekin uzten zaitut, irakurle, Bilintxen amodiozko bertso honekin:

Loriak udan intza bezela
maite det dama gazte bat;
ari ainbeste nai diodanik
ez da munduan beste bat.
Iñoiz edo bein pasatzen badet
ikusi gabe aste bat,
biotz guztira banatutzen zait
alako gauza triste bat.

Zaharrak berri?

Bertsolaritzaren inguruan jende ikasiak ez diola beti postura berari eutsi izan gauza jakina da. Eta eskolatuaren postura ezberdin horiek garai bakoitzean eta garai batetik bestera ikusi dira.

Zeinek ez daki, Pizkunde garaiaren aurre hartan ere baztertua eta mespretxatua izan zela bertsolaritza? Besteak beste, erdalkeriaz eta baldarkeriaz eta arruntkeriaz eta ez dakit nik beste zenbat keriaz josisia ikusten zuen bertsogintza ikasi askok. Ez zeukan kultur-mailarik eta ez zuen balio euskal kultur gisako bat egiteko.

Eskerrak Pizkundeak egunsenti motxa duen, eta euskal-kultur-begidun gizonak heltzen diren. Hauek dira esker ematen diotenak gure herriaren bertsolaritzari. Izan ditzake nahi hainbat aitzaki eta eskasi; baina ez da bazter uzteko kultur-espresio bat. Gure izatearen agerpen da eta badauka zer emanik. Eta ikasiak badauka hor zer ikasirik. Baloraketa horri eskerrak sortzen da gerraurreko burunda hura bertsolaritzaren alde.

Gerokoan, oraindano, aintzat dauka bertsolaritza jende eskolatuak. Gerra ondorengo urte hauetan badu meriturik gure Aita Zavala batek.

Gaur ez dakit halako desilusio puntu bat ez ote daitekeen suma zenbait jenderen artean. Pare bat ahotatik entzun dut, bazela ordu finalistarik gabeko

jaialdiak hasteko. Txapelketako liburuak inpresio eskasa egin dionik ere bada. Beste zerbaiten bila dabilenik ere ikusi dut. Badirudi jendeak ez duela aurkitzen nahiko lukeenik. Ez ote den, alegia, ematen duen hainbat bertsolaritza.

Eta ez dut uste gustoen arabera denik etsipen hori. Honelako edo horrelako gustatzen zaiola jendeari, eta holakorik aurkitzen ez dela eta sortu denik hoztasun hori. Beste zerbait dela esango nuke nik.

Ez ote daiteke izan jendeak gehiegi eskatzen diolako bertsolariari? Edo eskatu ez leiokeen zerbait eskatzen diolako?

Jendeak ahaztu behar ez lukeena zera da: bertsolaritza ez dela, beste kulturgintza gehienak bezala, egin eta desegin, landu eta birlandu, nahi hainbat betaz sortzen eta ontzen eta hobetzen den zerbait. Beste zerbait dela. Eta ez dagoela zaku berean sartzerik artegintza hau eta besteak.

Eta jakin behar da, gainera, bertsolaritzak ez duela nahitez denen gustoko izan behar. Ez dago denok zertan bertsozale izanik. Euskaldun eta euskaltzale eta abertzale ederki izan daiteke bertsozale izan gabe.

Beti berdin

Mitxelena bertsolaria tranpadura batera igo ezinik ikusteak, badu bere komeri usaina. Figura hura, eta halako trantze batean, edozeinentzat da deigarri. Deigarri, eta irrigarri batera. Ez dago gaizki jaialdi alai bat hasteko. Hori guztia pentsatuta jarri ote zuten Tolosako gazteek tranpadura inolako eskailmailarik eta inolako heldulerik gabe? Ez dut uste. Ez dugu hainbeste fintasun eta azkartasun ibili ohi, gurenak ditugun emanaldi hauetan.

Horrelaxe hasi genuen Tolosakoa lehengo larunbat gauean. Ez zen bada misterio izango, hirurogei bat zentimetrotako tranpadura hartara igotzeko mailaren bat edo beste jartzea! Ez ordea inori bururatu, nonbait.

Hala ere, jaialdiaren erdi parean edo, txanpain botila batekin han agertu ziren bi gazte. Ez dago gaizki: zenbait bertsolarik asko ixtimatzen du eztarria bustitzeko zerbait jaialdiaren barnean. Eta bustigarria txanpaina bada, zer esanik ez. Baina non zen mahaitxo bat, edo zerbait, haiek uzteko eta abar? Lurreko apalean utzi zituzten. Hala ere zerbait zen, eta eskertzekoa.

Eta bukatu zen emanaldia. Txiste, bertso eta trikitixa, oso festa alaia eta polita izan zen. Bada algarra gozorik egindakorik. Elkar ederki toreatu zuten bertsolariek. Txistea, berriz, aukeran izan zen.

Bukatu zenean, tabernara joan ginen. Eta iritxi zen kontuak egiteko ordua. Ez berehala, baina iritxi zen.

Eta nola hasiko kontuak egiten, eta zer behar zuten galdetuz bertsolariei. Galdera hori, berez, ez da egundaino egin behar. Etortzerako jakin behar dute bertsolariek zer emango zaien. Eta deitzaileak ere aldeaz aurretik esan behar die zer jornal izango duten. Hala ere, galdera hori, zenbait alditan ondo egon daiteke.

Baina ez bertsolaria jendez inguratuta dagoenean eginda. Zeini zer inporta dio zenbat kobratzeko asmoa duten, edo eta debalde kantatu nahi izan duten. Eta Tolosan hala egin zen. Bertsolariak jendez inguratuta zeudela.

Baina galdera harek ez zuen hori izan makurrena. Guk bagenekien jaialdi hura dirua ateratzeko egina zela. Eta gazte batzuk antolatua, beren bidaiarako pezta batzuk ateratzeko asmoarekin. Horrelakoetan nola galdetuko duzu bada zenbat behar duzun? Horixe baino jendetasun gehixeago erakutsi behar da gauzak egiterakoan.

Gauza hauek esaten ez naiz ari tolosarreatatik. Gauzak hobeki egiten ikas dadin ari naiz. Beste mila lekutan gauza bera gertatzen bait da.

Zaldibikoa

Zaldibian izan ez zen guztiak ere badaki honez-kerero, aurtengo Artxanberri saria Xabier Narbartek irabazi zuela. Bigarren Pablo Joxe Aristorena izan zela ere badakike nornahik. Eta hirugarrena Arantxa Loidi izan zela, gauza jakina da.

Baina han izan ez zenak ez daki hiru saridun horiek eta beren lagunek nolako hotza pasa zuten. Ni goizetik ez nintzen joan eta ni joaterako hizotza izkutatua zen. Hura goiz partetik lagun izan zutenek pasa zuten hotzaren berririk ez dut. Zekienak esan zidana kontatuko dizut.

Soziedadean bazkalduta zetozen gure bertsolari gazteak. Gu frontoiaren sarreran geunden alde guztietatik jotzen zuen haizearen beldur. Gazte haietako ezagun batek hala esan zidan: "Goizeko hotza oraindik ez zait atera".

Goizekoa barnean zeukanari ez dakit berririk sartuko zitzaion. Guri eskatzen zigun lekurik arratsalde hartako haize zorrotzak. "Garizuma haizea" omen zen. Errukia ematen zuten tranpaduraren gainean zeuden zortzi bertsolari haiiek. Ezkerparetan, haien gain-gainean, zintzilik zegoen ikurrina ikusi egin behar zen nola astintzen zuen haizeak. Eta gure gazteak hantxe kuzkur-kuzkur eginda, batzuk beren zankoak igurtziz, besteak sudurreko jarioa geldo arazi ezinik, eta denak geldo egon ezinik,

hotzarengandik beren buruak nola babestu ez zekitelera. Txapelketak sortarazten duen ikaraz gain hotzarena ere jasan beharra, gehiegizkoa da. Kupitu zitzaizkidan benetan gure bertsolari gazteak.

Eskerrak norbait termo batekin agertu zela halakoren batean. Tranpaduraren ertz batean utzi eta alde egin zuen. Ez ote zitekeen norbait aurkitu bertsolari haiei, berek eskatu-ahala, behar zutena eskura emateko? Noiz ikasi behar ote dugu etxera deitzen ditugunekin hainbat jendetasun, bederen, izaten txapelketa batetara deitu ditugunekin? Etxean eskaini, atera eta serbitu egiten diogu gonbidatuari. Ez ote daiteke kanpoan ere beste horrenbeste egin?

Nik badakit Zaldibikoaren erru guzti-guztia eguraldiak izan zuela, eta ez beste inork. Ez zaio hemen inori kulparik bota nahi; baina egia ere ez daiteke uka.

Gure gauzatxoak egoki egiten ikasi beharra daukagu, beti "ijito" plantan ibili gabe. Bertsolari gazteek merezi dute goxotasun gehiago txapelketaren garraztasunak pasa beharra daukatenean.

Liburua

Bertsolarien txapelketakoa, alegia, eskuetan dugu. Zorionak eman nizkien, eta gaur ez dut gauza bera egingo. Gaur eskerrak eman behar dizkiet. Opari egin didate liburua. Hala ere hitz ematen dut bakarren bat erosiko dudala. Izango dut zeini emanik.

Erratatxoren bat edo beste aurkitu diot. Ez da harritzekoa. Eta akats bat ere bai. Doinuak ez dakit nola bilatu. Erabili diren doinu guztien zerrenda badakar; baina guztiak ez daudenez, uste izatekoa zen bezala, doinu kontu hori nahasgarri xamarra gertatzen da. Ez da beste munduko hutsegitea, eta norberaren lan gehixeagoz erremeitzen da erraz.

Hor dago liburua. Eta liburua irakurtzeko da, ez erosteko bakarrik. Irakurtzen hasia den batek hala esan dit lehengoan: "Aspertu egiten nauk irakurtzen. Nolahalako bertso gehiegi zegok hor".

Neri horrela mintzo zitzaidana, pertsona ikasia da. Eskola haundikoa. Eta irakurtzen dituen gaiak, ongi hautatuak eta ongi landuak izan ohi dira. Ez da harritzekoa, beraz, horrelako norbaiti gehiegirik ez eskaintzea, bapateko sorkuntzaren fruitu den lan batek.

Bertsoak era askotara behartzen du gure pentsamendua eta gure hizketa; eta normala da hutsegiteak izatea.

Batetik neurriak ez du barkatzen; bestetik erri-
mak beta eskatzen du; eta beta berriz, beti falta iza-
ten da. Horrelakoxe eskabideen esku eta baldintzen
mende dago bapatekotasuna. Ez da erraza hor ba-
koitzari berea ematen. Guztiekin kunplitzen dugu-
nean, gu gizonak! Hori izan, ordea, zaila: berena-
gose diren guzti horiekin kunplitzea. Eta hor, ondo
kunplitzea bakarrik da kunplitzea.

Eta jakina, batarekin asmatu nahiz, bestearekin
hutsegiten da hor. Neurriarena egin beharrez, esal-
dia makestu edo makurtu edo okertu egin ohi du-
gu. Eta askotan, nahi zena esan ez, eta nahi ez ze-
na esaten dugu. Behar ez zena esaten ez dugunean!
Errimarena egin beharrak, berriz, ez dakit nik zer
esan araziko ez lukeen. Hoinbestexe baldintza ipur-
testurekin kunplitu behar izaten du bertsolariak.
Eta batzutan huts egiten du. Jakina!

Horregatik zerasakeen nere lagunak “nolahalako
bertso gehiegi zegok hor”. Dena dela, hor bapateko
bertsoa dago, eta beraren emaitza. Eta hori irakurri
egin behar da, eta aztertu, eta ikusi zer balio duen
bakoitzak. Badagoela uste dut zer azterturik.

Bertsolari txapelketako liburua

Liburua non dugu? Ez al dute atera behar? Ia urtea joan duk. Horretaz ez al duk ezer esan behar?" Horrela eraso zidan lehengoan bertsozale bategen. Joan den urteko martxoan jotatutako txapelketaren finaleko bertso-liburuaz ari zen hura.

Nik ez nekiela ezer erantzun nion. Eta halaxe da. Joan den udaran izan nuen azkeneko berria. Azalgileak eman zidan. Haren ustez laister ateratzeko zen liburua. Ez dut harrez geroztik notiziarik.

Liburua ez dakit etorriko den; baina etor baledi ere, berandu iritsiko da, nik uste. Eta ea hemen ez duen balio izaten hego-erdaldunek dioten harako "batez baino berandu hobe" harek berak ere. Hutseginik gabeko errefraurik ez omen denez gero, ea oraingoan egiten duen huts espainolen horrek ere.

Jendeak, liburuan ez dela, eskuratu ahal izan ditu bertso haiek, eta nahi hainbat aldiz entzun ere bai. Nolaz izan dezake, beraz, idatzita jasotzeko irrikarik? Musutruk eskura ahal balitza ere, hor nonbait; baina horrelako liburu bat dirua kostatzen da. Eta badakigu zenbait gastuk nola ikaratzen gaituen.

Horregatik uste dut nik, ateratzen bada ere, beranduegi izango dela. Eta beranduegik, hemen, dirua galdu beharko dela esan nahi du. Ez duela bere bururik ordainduko argitalpenak.

Lehen zen garaia. Txapelketa bukatuta berehala. Orduan eros zezakeen jendeak erroskilak bezala. Berotasun hartan aterahala bilduko zuen, orduan diruari berari ere zertxobait gutxixeago behatzen bait zaio. Momendu hartan ez zuen aski izango kasetarekin. Liburua ere beharko zuen. Eta diska ere bai eta ez dakit nik zer ere bai. Guztia eta gehiago beharko zuen. Urtebetek ordea, edozein su itzal dezake, eta hura ere motelduxea dagoke jadanik.

Beste baterako ikasi beharko da garaizago ibiltzen. Negozianteren bat sartu beharko da tartean, artistek ez omen direnez iaioak izaten negozio kon-tuetan. Bertsolaritzari ez dio kalterik egingo diru pixka batek.

Oharra: Joxemari Aranalderen lana inprimaturik dagoela iritsi zaigu erredaziora "Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 1986" liburuaren aurkezpeneko deia. Ostegunean aurkeztuko da Donostiako "Euskal Txokoa"n, eguerdiko 12etan. Hala ere, Joxemarik esandakoak balio du. Baina ez dezagun ahaztu "Elkar"ekoak mutilak direla salmentan.

Berri on eta txar

“Eguna” astekarian elkarren ondoan irakurri ditut bata eta bestea. Txarretik hasiko naiz. Hobe da txarraren garraztasuna ken dezakeen onaren goxoa azkenerako uztea.

Felix Iriarte nafar bertsolaria hil da. Saran izan ginenean jakin genuen hanka moztuta zegoela; baina besterik ez genuen uste. Behenafarroako Banka herrian bizi zen aspaldian, berez hemengo Nafarroako Irurikoa bazen ere.

Duela 51 urte Donostian zen II Bertsolari Eguna hartan. Bosgarren gelditu zen. Aurreko urtekoan ez da agertzen. Egia esan, ez hura eta ez besterik Ipar Euskaditik.

Handik 10 urtetara Donibane Lohizuneko txapelketan ere han da. Ia-ia bere auzoherritar duen Xalbador zenarekin batera joaten da Hernandorena jaunak antolatutako bilkura hartara. Eta azken aldiko txapelketetan ere hor izaten zen Nafarroan. Egia esan, hautsia zegoen oso. Hala ere, bere herrikide “ardo gorri naparrak” bakean uzten zionean, ederki aritzen zen oraindik. Esan digutenez, aurtengorako ere izena emanda omen zegoen. Baina aurtengoa, eta hurrengoak, Iruriko bertsolari umoretsua gabe egin beharko dira. Goian bego Felix Iriarte bertsolaria.

Eta notizi onera pasa baino lehen aipa dezadan berari periodikoan eskaini zaion eskela. “Bertsolari Elkarte” delakoa zen eskela jartzailea. Egundaino ez nuen ikusi eskelarik elkarte horrek firmatua. Beroondaiola! “Nik badut gizalegea” esan dezake horrek ere hemendik aurrera. Lehen ere bazuen “Prantxiskok” ainakoa. Izatea ez da, ordea, beti nahikoa, eta oraingoan erakutsi ere egin du.

Berri ona, berriz, zera dugu: Nafarroako 24 ikastetxetan bertsolaritza-klaseak emango direla. Lorentzo Aburuza Rezola jarri dute arduradun, eta beraren kontratazioa Nafarroako Gobernuak haritzen omen du bere gain.

Oraintxe bai esan dezakeegula guk ere lehengo sorginak bezala: “Ez ginela, baina bagaitun”. Lehen beste hiru probintzietan egiten zena, orain “Nafarroa zaharrea” ere bai. Ez da nolana hiko notizia bertsolaritzarentzat. Ez daude begira gure bertsolari zaharrak. Zer esango ote lukete burua altxa balezate, gizartean bertan ere leku erosoan ezagutu ez zuten haiek, beren izenak eta esanak aipatuak eta ikasiak direla ikusirik hezkuntzaren kabietan?

Zertarako?

Galdera hori egiten du zenbaitek, nere "Pauso haundi bat" artikulua irakurri ondoren. Nik han esaten nuen, bertsolariek beren ofizina bat ireki zutela eta bertan lan egiteko pertsona bat hartu ere bai.

Eta hori jakin duen zenbaitek, bertsolariek ofizina bat zertarako duten galdetzen du. Norbaiti entzuna diot gainera, bertsolariei kantatzea dagokiela, eta haiek kantatutako bertsoekin zer egin eta nola baliatu eta zertan, ez dela beren egitekoa, besterena baizik.

Nik ez dakit, zehatz-mehatz behintzat, bertsolaritzaren barnean zer asmo dabilzan bulego hori sortzean; baina ni ez nau harritu. Neri gustatu egin zait. Eta esango dut zergatik.

Oraindainokoa anarkia hutsean ibili izan dira bertsolariak. Bakoitza bere kasa moldatu izan da. Hor ez zegoen inolako elkarterik. Erabat besteren esku eta erara ibiliak dira gure artista hauek. Berek kantatu bakarrik egin dute. Horren inguruko guztia bestek egin du.

Baina egun batez, beren ahoa zabaldu eta, kantatu ez ezik, non eta zer baldintzatan eta abar erabaki nahi zutela esaten hasi ziren. Lan berri bat hartu zuten beren gain. Eta laister ohartu ziren, lan

berri horri behar bezala erantzuteko, elkarte bat sortu beharra zegoela beren artean.

Eta hori ez dela berez jaiotzen ikusi zuten. Horrek antolamendu bat eskazen zuen. Paperaren zerbitzu eta morrontza horri erantzuteko sortu bide dute bulego bat eta bertarako hartu gizon bat.

Txapelketaren antolaketa da, nik uste, gehien horretara behartu dituen. Hor ikusi dute garbi zenbat lan egin behar izaten den horrelako zerbait datorrenean, eta horri erantzun nahi izan diote. Ez noski txapelketaren eta bertsolaritzaren inguruko lan guztiak bere gain har ditzan. Ez dago horiek guztiak bakarrik egin ditzakeen bihankakorik. Hor dagoenak, lan guzti horien elkartze bat eta lotura bat egin beharko ditu.

Dena dela sortarazi duen arrazoia, ordu onean sortu dela uste dut nik, eta lan haundi bat egin dezakeela bertsolaritzaren onerako.

Hernandorena

Hernandorena omenduko dute gaur Saran. Ez dute leku aldrebasa hautatu. Badu Sarak itzala eta sona gure herrian eta gure kulturari. Zeini ez dator- kio burura Axular haundia? Eta haundirik behar bada herri horren izena edertzeko, hor daukagu Jo- xemiel Barandiarangoa. Sarak hartu zuen 36ko ge- rrari ihes aldegin beharra izan zuenean. Eta esker onik ez dio ukatu Ataungo seme erneak bere ugaz- sorterriari. Haren izena jarri dio bere etxetxoari Ataunen. Hego Euskadiko hainbat gizon-emakume- ri babesa eman dion herri horretan eskainiko zaio omenaldia bihar Hernandorena jaunari.

Omen hori hango “Bertsularien lagunak” elkar- teak egingo dio. Eta ez diote egitez egiten omenaldi hori. Zor bat kitatu nahi dute hango bertsozaleek gipuzkoar honekin. Zer dela eta?

Teodoro Hernandorena, beste ipar-euskaldun asko bezalaxe, errefuxiatu bat izana dugu. 36ko ge- rrakoan “hankak arin” ibili behar izan zuen horieta- koa da. Gazteriaren kargua zuen garai haietan Go- bernuan. Eta badakigu eusko-politikan zebiltzanek zer paradoero izan zezatekeen: erbestea edo zuloa.

Zulo-ihes joan zitzaigun, beraz, Teodoro ere Ipar Euskadira. Eta geldi egoteko horietakoa ez denez, euskal-lanetan ekin zion han ere gure Hernandore- nak. Zeri helduko, eta “pertsularitza”ri heldu zion.

Han ere, orduratsu arte hemen bezalaxe, bertsolana bazterrera utzia zeukaten kultur gizonak. Ez zioten nonbait eskerrik ematen. Hemen ere badakigu zeintzu izan ziren aurre hartan bertsolaritza aintzat hartzen eta bera bultzatzen hasi zirenak. Ez dago zertan esanik denok gogoan ditugun gizon haien izenak. Hala ere Manuel Lekuona jauna ezin dut utzi aipatu gabe, bihar astelehenez bait ditu 93 urte. Teodoro Hernandorena hemengo mugimendu berriaren lekuko zen, eta han gauza beretsuari ekin zion. Eta Donibane Lohitzunen bildu zituen hango bertsolariak Txapelketa batean. Hor hasten da hango bertsolaritzaren ernealdia.

Donibanera bildu zituenetako bat Xalbador zen. Ikus nolako aitormena egiten dion egun hari, eta Hernandorenari: “Donibaneko egun hori enetzat munta haundikoa izan zen, eta ahalgerik gabe erran dezaket, gu, Mattin eta ni ere, Hernandorenari esker ezagutu gaituela Euskal herri osoak”.

Mattinentzat eta Xalbadorrentzat “munta haundiko eguna” izan baldin bazen egun hura, ez da dudarik, bertsolaritzarentzat ere hala izan dela.

Hori da gaur Saran Hernandorenari aitortu nahi zaiona, eta eskertu.

Pauso haundi bat

Bertsolariak ez daude geldi. Badabiltza. Eta ez herriz-herri bakarrik. Beren gauzak antoltzen ere badabiltza.

Azpillagaren omenaldi bezperan bilera bat izan zuten Zarautzen. Jende asko zen han. Gehienak bertsolariak ziren. Eta ez zirenak ere bertsoarekin eta bertsolaritzarekin bazuten zerikusirik.

Bilkura hartan asunto asko ziren eskuartean. Eta ez nolana presentatuak. Lan-zerrenda alde aurretik bidalia zitzaion bakoitzari eta han agertzen zen, egun hartan tratatu beharreko gaien zerrenda osoa. Noiz ikusi da horrenbeste formalidade gure bertsolari maitagarrien artean? Horrelaxe beren gauzak antolatzen hasiak daude. Lopategiri, Azpillagaren omenaldikoan, bertsolaritza asko aldatu al zen, edo zuten, galdegin zion ETBk. Eta baietz erantzun zuen bertsolari bizkaitarrak. Bertsolaritza hor dabilela eta ibiliak berekin duela aldaketa. Aldatuko ez balitz, hil egingo litzatekeela. Horrelatsu erantzun zuen Lopategik. Eta egia da. Aldaketek hil dezaketela ere egia izan daiteke; baina aldatzen ez bada heriotza segurua duela, ez dago dudarik.

Baina zorionez badabil. Ez dago geldi eta beti batean. Badira berrikuntzak. Ikus noraino iritsi garen bileren antolaketan, adibidez.

Lan-zerrenda hartan, puntuetako bat, azken txapelketako berri ematea zen. Eta hala egin zen. Dirutza polita sobratu zela esan zuten antolatzaileek. Eta pentsatuta bezala agertu zioten batzarrari. Proposamena egin, eta han bildu zirenek inolako ezetzik gabe onartu zuten antolatzaileek zekarten idea.

Zera zen proposamena: lokal bat hartzea, eta han Bertsolari Elkartearen Sekretaritzza bat irekitzea, bertako arduradun pertsona bat jarritz, bere soldata eta guzti. Jendeari ongi iruditu zitzaion, eta hala erabaki zen. Non jarri ere pentsatu zuten Sekretaritzza hori. Beren ustez Euskal Herriko hiriburu batean behar zuen izan. Eta berek Donostia zeukaten begiz joa. Ez zion inork gaizki iritzi haien ideari. Izan ere non aurki erdiagorik? Eta non euskaldunagorik? Eta... politagorik? Aurki badaiteke ez badaiteke, Donostiaren hautapena egin zuten bertsolariek.

Baina lekuarena da gutxienekoa. Hartu duten erabakia da hor garrantzizkoa. Bertsolariek beren idazkaritza bat izango dute hemendik aurrera beren joan-etorri guztietarako. Pauso haundi bat eman dutela iruditzen zait. Gero ageriko; baina hala da nereko.

Bertsolaritza loretan

“Ibaietako jaiak” izenarekin gaur ikasle batek auzo horretako festa-arautegia eman dit eskura. Euskaraz eta erdaraz dago. Beren zaindaria “Aingeru Zaindaria” dute. Martxoaren bata da eguna. Eta egun horretan, Meza Nagusiaren ondoren, bertsolariak dituzte. Ez edozen gainera: Bertsolari Elkarte-ko zuzendaria eta sekretarioa edo txapelduna

Horra hasi gure bertsolariak beren kurtsoa. Herri eta auzoetako festak hasi dira, eta bertsolariek ere hasi dute beren urteroko jira. Neguan, muxarrak eta bezalatsu, lo egoten dira, eta haiek bezala ekiten diote beren ibilaldiari udaberriarekin. Baina ez dira haiek bezain galduak agertuko plazara. Hauek gantzak berekin eramango dituzte herriz-herri.

Baina ez dira herrietako festak bakarrik hauen pilpila adierazten dutenak. Egun hauetan badugu beste berririk.

Bihar emango diote hasiera Nafarroako Txapelketari. Gipuzkoatik oso hurbil dute beren lehen saioa. Altsasu dute bilera-leku. Hurrengoa hurrunxeago izango da giputxentzat. Baxenafarroako Aldude herria dute aukeratua. Urepelen auzo-herria da. Hirugarren saiorako Iruñe ondoko Billaba daukate izendatua. Laugarrenerako Behenafarroako Irisarri. Eta finala Bidasoako Beran izango da apirilaren 5ean.

Hasi zaigu beraz bertsolarien inguruko dantza. Baina guztia ez da dantza. Oraingo hau ere berria da; baina ez dantzarena. Hau jubilazio baten berria da. Patxi Barbero zarauztarraren -horkotzat da eza-guna- bertso batzu irakurri ditut egunkarian, eta hortik jakin dut Manuel Lasarte gelditu egiten omen dela bertsoatik. Nik badakit bestela ere nahiko bertsolari badagoela, eta zeinek kantaturik ez dela faltako Lasarte isilduagatik. Baina hura faltako da, eta haren zale direnentzat, ia-ia bertsolaria ere faltako da.

Eskerrak, entzuteko aukerarik ez badugu ere, haren hitza eta bertsoak ere irakurtzeko aukera badugun DV egunkariaren asteroko "Zabalik" horretan. Ezaugarri atsegina da irakurtzeko Manuel Lasartek idazten duena. Badu aparteko grazi bat. Ez nuke esango zergatik den, baina ezin izaten da utzi irakurri gabe.

Horrelakoxe berriak ageri zaizkigu bertsolaritzaren inguruan. Bizia irakiten hasia dugun bezalaxe udaberriaren etorrerarekin, bertsolaritza ere pilpilean daukagu.

Jon Azpillaga

Bertsolariren bati entzuna diot, eta bertsolariaz ari zen hura, honako hau: “Bertsolari haundia izateko gizonez ere iritsi egin behar du batek”.

Gure Jon Azpillaga kilotan eta metrotan neur-tzen badugu, ttikia denik ez du inork esango. Bere bertsolari lagunek hamaika aldiz toreatu dute bere hanka haundien azpian elefantea ere zapalduko lukeela-eta. Berari entzun izan diogu, berriz, berak pertsona normalaren dobleko neurria erabili ohi duela gauza askotan. Medikiak hoinbeste aspirina hartzeko esan eta berak bi halako hartu. Besteren neurriak ez dute harentzat balio. Mahaiaren inguruan jarritakoan, berriz, inork esan gabe ikasia du-gu ez dela batere gezurra neurri doblearena. Bere hatzamar haundi horietan badu hamaika txuleta eder ibilirik eta kurioso asko garbiturik. Hari sobratutakora ez da euli haundirik bilduko. Zakurrei tokatzen zaiena bera ere ederki mehetuta uzten zuen gure Azpillaga haundiak.

Gizonaren benetako neurriak ez dira, ordea, metroaren eta baskularen baitan daudenak. Bestela ez genuke gizon-ekasia haundirik gure artean. Gerraz gerozko honetan ugaldua litzateke galanki gizonen kopurua. Eta Azpillaga ere, bertsolari haundi, bes-telako gizatasun batek egin du.

Gizon klaroa, gozoa eta osoa dugu Jon Azpillaga. Tranparik eza izan dezake, izatekotan, "fallo" bakarra gure pasaitarrak. Den bezala agertu da beti eta ez du ezer disimulatu beharrik izan. Orain hogeitaka urte hasi zen bere itzala zabaltzen Euskal Herri zaharrean, eta beti berean iraun du. Ezin esango du inork Jon Azpillaga alde batetik bestera eta alderdiz alderdi ibili denik ezertan. Bere inguruan bai, ikus zitzakeen hamaika punta batetik bestera joaten; baina bera ez du inork ikusi gaur honela eta bihar horrela. Beti berean eta betean ikusi dugu gizona. Abertzale sutsua izan da beti; eta abertzale hura bera izan da beti. Zer gehiago eska lekioko gizon bati?

Eta gizon puska hori, bertsolari haundi bat dugu. Entzuteko atsegina, ahotsez eta belarriz ongi osatua. Neurtzaile juxtua da, errimagile zuzena eta arrazoietan egokia. Eta bertso-emaile eskuzabala dela, eskuzabalik bada, gauza jakina da. Ez dugu esango beste zenbaitek hainako distirarik bota duenik, baina bai bertsolariaren itzala inork gutxik bezala gorde eta jaso duela. Zer bikotea egiten zuen garai batean beste Jon batekin! Lopategi sakonagoa eta garratzagoa zen. Azpillaga gozoagoa eta argiagoa. Eta bien gazi-gezak nolako tira izan zuelako gero garai batean gure herrian! Bai, Jon Azpillaga bertsolari haundi bat dugu.

Igande honetan aukera ederra du jendeak bere istimazioa agertzeko eta gure "hankaundia" eskertzeko. Eta jendeak ez du hutsegingo.

On dagizula egunak, Jon, eta beste ehun urtez izan dezazula bertsoak kantatzeko grazia.

Egun biribila

Pasa da, urtean behingo bertsolari-egun seinatua. Lehen ere bagenuen egun ederrik ezagaturik eta aurtengoa ere aparta izan da. Azpillaga haundiak ongi merezia bazuen ere, hobeki antolatzerik ez dago.

Eguerdiatekoa beti bezelatsu joan zen. Jaialdia egoki antolatu zuten eta saioa gustagarri izan zen. Omenduak ere ongi biribildu zuen bere bertso ederez eta aiposez egunaren zentzua. Besteak beste emazteen aipamena ongi zetorren eta aitormen bikaina egin zien gure Azpillagak: “Zuek zarete omenaldiak merezi dituzutenak”.

Baina horrera artekoan ez dago ezer apartekorik. Aurtengoaren gauzarik bereziena arratsaldeko izan zela esango nuke. Arratsaldekoa edo bazkalondokoa. Beste urtetan bazkariarekin ibili ohi ziren gaizki xamar bertsozaleak. Lekua falta izaten zen denentzat. Askok eta askok ez zuen bazkaritarako txartelik eskuratzen. Eta aurten nahi duen guztiak izan du. Eta nolako giroan eta grazian!

Lehen ere antolatu izan da nahi zuen guztia-
rentzat bazkariarekin; baina ez hain leku gozoan. Jendeak bazkaritakoan hotza pasa behar izan zuen. Eta hori ez da atsegina. Oraingoan ez zegoen horrelakorik. Hura giroaren gozoa Costa Vasca jattetxean.

Egun haundi horrek biribila izateko falta zuen gauza bakarra lortu dela uste dut aurtengoan. Ez zen gauza atsegina bertsolarien inguruan bazkaldu nahi zutenak kanpoan gelditu beharra. Lehengo igandeko horretan bilatu da denak kabitzeko moduko lekua, eta datozen urtetarako badakite antolatzailleek zer egin.

Datorren urtean, dakigunez, Madariaga anaiak izango ditugu omen-gai. Bertsolari Elkarteak hala erabaki zuen eta bi anai horien inguruan bilduko gara hurrengo urtean, Jainkoak ondo bagaitu.

Madariaga anaiek ez dute Euskal Herrian Azpilagaren itzalik. Horretan ez dago dudarik. Denek ez dute izan aukera berdinek, ez ahalmen berdinek eta ez arrakasta berdinek, baina zeinek daki zeini zor zaion gehiena. Horregatik, datorren urtean ere, bertsozaleen familia hor izango da Donostian beste egun haundi bat igarotzeko Madariaga anaien inguruan.

Bitartean Jainkoa lagun dakiela eta osasunez igaro dezatela hemendik ordura artekoa.

Bizkaiko Txapela

Durangon ginen lehengo igandean. Nolaz ez joan, izanez ere, gure "txoriaren" etxe inguru horretara abenduaren lehenetan? Euskal Herriko kultur-bihotz ez al dugu bada izaten urte oroz sasoi honetan Bizkaiko herri sonatu hau? Lehendik geneukan, beraz, bidea ikasia, eta han ginen aurten ere.

Aurten bazen gainera, liburu eta diskaz aparte, guretzat tira berezia duen zerbait. Txapel baten errainua ari da aspaldi honetan zabaltzen Bizkai aldetik, eta haren lilurak eramten ginduen gu, besteak beste. Txapel hori, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa deritza, eta gure betiko lelo hori ere jo zigunez gero aurten gure "txoriak", guk ere han behar derrior.

Lehengoko saio horretan, bertsolarien bi ariera dira nabarmen desberdintzen direnak elkarrengandik: hamarreko haundikoa eta zortziko txikikoa. Eta ez neurriarengatik. Horregatik ere bai, jakina! Lehenengoak askoz ibilera motelagoa du. Hori ez dago esan beharrik. Baina nik seinalatu nahi dudana ezberdintasuna bestelako zerbait da.

Aurrena egin zuten hamarreko haundiko jarduna eta hartan bertsolari guztiek berdintsuak ziruditen. Bestean berriz, batzuk goiari ederki eutsi zioten eta beste batzuk oso behera joan ziren. Han hasi ziren, batez ere, bereizketa haundiak. Ordura ar-

te berdinak ziruditen haiiek, hasiak ziren ezberdintzen.

Badira urte batzuk, orain esatera noan pasadizo hau bertsolari batek kontatu zidala. Bertsolari hau, artean gaztea zela, beste bi bertsolari sonaturekin ari omen zen kantari. Aurreneko saioa zortziko haundian egin omen zuten, gehienetan ohitura duten bezala. Horrela ari zirela, hala esan omen zion lehendik gehiena ezagutzen zuen bi bertsolari izendun horietako batek: "Hasi zortziko txikian. Ezagutzen duzun doinurik azkarrenean. Laister ikusiko duzu zenbat den beste hori. Horrek ez daki zortziko txikian bertsotan".

Esan eta egin. Ekin diote zortziko txikian eta, beste harek ezin segi. Ez egiten zortziko haundian bezain apain bertsotan. Gure gazteak orduantxe galdu omen zion beldurra izendun hari.

Horixe bururatu zait lehengoko Durangokoa ikusita: Bakarkako gaien ere egin ziren diferentziak; baina nabarmenena zortziko txikikoan egin zen.

“Ziri bat sartu dit neri”

Horixe bururatu zait, nik gaurko pentsatua neukan izena M. Atxaga kazetariak atzokoan zekarrela ikustean. “Bertsolariak” jartzeko asmoa nuen izena gaurko honi. Eta nere lagunak atzo harrapatu ez dit bada? Baina izenarekin izanik ez dit lapurtu; eta esateko asmoa nuena esaten hastera noa.

Hona zer dakarren barnean, Jakin aldizkariak “Bertsolariak” izenpean argitaratu duen 44 aleak...

“Elkarrizketa” batekin hasten da. Eta zeini egingo elkarrizketa bat eta Juan Mari Lekuonari. Ez da erraz erantzule hoberik aurkitzen bertso kontuetan, izen-abizen horiek esaten duten jauna baino.

“Bertsolari Txapelketa Nagusien historia” izena duen artikulua bat da hurrengoa. Josu Landa da egilea. Bada oraindik gure artean historia hori ez dakien jakintsu-ustekorik, eta hor dauka aukera ikasteko.

“Epaimahaia txapelketan” dio hurrengo sailak. I Sarriugarte da idazlea. Ez da luzea, baina ezta hutsa ere.

“Euskal herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 85-86”. Izenburu luze hori du hurrengo kapituluak. Bertsolari Elkarteak da beraren jabe. Gauza berri haundirik ez du aurkituko irakurleak.

“Bertsolaritzaz galdeketa” da hurrengoa. Zazpina galdera egiten zaie hamaika laguni. Mahainguru moduko zerbait aurkituko du irakurleak.

“Bertsolariei inkesta” da azkeneko kapitulua. Inkestaren ikertzaile eta ordenatzaile Joan Mari Torrealдай dugu, Jakin aldizkariaren zuzendaria bera.

145 bertsolariri egin nahi izan zitzairen inkesta, eta 140 dira erantzun dutenak. Bik, nahi ez zutelako ez zuten erantzun, eta hiruk eskura ez zeudelako.

Bertsolariak nor eta zer diren jaiotzez, ikastez ogibidez eta abarrez erakusten du inkesta honek batetik; eta bestetik zer pentsatzen duten bertso, bertsolaritza, bertsolari eta txapelketaz.

Hau da, nik uste, liburuaren zatirik, mardulena ez-ezik jakingarriena ere. Behin baino gehiagotan irakurtzea merezi eta behar duela uste dut.

Eta bukatzeko, txalo Jakin aldizkariari eta beraren nagusiari.

Gogoa duten orduan

Bertsolariaren ordua, beraz, besteren gogoa da. Hori da lege eta agindu eta ordua. Eta badakigu, gogoa ez dela biziro iraunkorra izaten. Hori haize askoren morroi izan daiteke. Hargatik izan ohi da oso gutxitan, esan zen hura eta uste zena eta behar zukeena.

Bertsolariarenak, berriz, ez du balio. Horretaz ez du inork ardurarik hartzen. Zeini inporta dio etxetik nola datorren, zer arazo izan ditzakeen, gorputz aldarte ona daukan ez daukan, templean datorren ala ez eta abar. Norbera egon ohi da hor tenplean eta hori da balio duena.

Eta norberaren templea badakigu askotan zer sortarazten duen: eztarrian behera ibili den saldak. Ezagun izaten da, zenbait garaitan egin ohi diren jaialdietan, jendea nolatsu datorren. Adieraziko duenik izango da. Bestela aurpegira begiratzeko ere gauza izaten ez den prankok jo behar izaten du kurruku, non dagoen jendeak jakin dezan.

Zergatik uste izaten zela uste duzu garai batean, bertsolariak, ondo kantatzeko, barrena bero euki behar zuela? Horretxegatik, naparzaileen artean ari behar izaten zelako bertsotan, eta zenbait jendeak, berdoztuta ez bada, ez dakielako kantuan egiten. Baina bertsolariak ikasia du –ez aski garaiz zenbaitek– naparra ez dela lagunik hoberena bertsotan egiteko.

Bertsolariak badaki, lotsak botatzeko ez dela txarra naparra; baina bertso onak botatzeko bai. Zurrutak beroa eta ausardia berekin ditu, baina argitasunik ez du. Eta bertsoarako, argitasun guztia ere, ez da gehiegi gertatzen. Bertsolariak bere osoan eta bere betean egon behar duela badaki, lan hori egin nahi badu eta, batez ere, ongi egin nahi badu. Eta zeinek ez du ahalik eta ongien egin nahi izaten jendaurreko bere lana?

Horra hor zer den gaur bertsolari askorenzat bertsotan egitea: lana, beharra, obligazioa. Eta guztiok dakigun bezala, ez dira atseginegiak hiru izen hoiek belarrirako. Eta belarriarentzat mingarri baldin badira, ihardunlearentzat nekagarri dira. Zergatik uste duzu dela bestela, bertsolaririk ibilienak, hain gutxi kantatzea obligaziozko horietatik kanpo? Kantatzez nekatuak daudelako. Nekatu ez ezik, gogaitzeko ere bada, askotan egiten dituzten ibiliak egin eta gero.

Berriz esanda ere, lekutan dago "gogua dedan orduan" hura. Ez; gaur beste honela da: gogoa duten orduan.

Xalbador

Xalbador hil zela gaur dira hamaika urte. Orduko bertsozalerik ez da izango, gertakizun hura ahaztu zaionik. Gerozkoek, berriz jakin bezate, bere omenaldiko egunean hil zela bere sorterrian. Bazkalondoko bertso saioa ari zuen. Bera ohorezko lekuan zegoen jarrita. Jeiki, lagunak han utzi eta kanpora atera zen. Metro batzu aldarka-maldarka egin, eta han bertan erori zen. Kanpoan, jaialdira sartu gabe, haurrak zaintzen eta abar zeuden norbaitzuk ikusi eta jaso zuten eta frontoiaren pareko udaleku-etxera eraman.

Handik ordubete bat ingurura gorputz zen. Doi-doi izan zuen astia emazteari azken enkarguren bat emateko. Ondoan gertatu zen batek esanda dakit, "ez dizkiat erremertsiatzen ahal" esaten omen zuela. Ezin izango zuela, alegia, jenderik eskertu. Ez zuen jendearekin kunplitzerik izan. Alferrik izan ziren Labegerie abeslari eta medikuaren ahaleginak, eta herriko medikuarenak. Astinaldi ederrik eman zioten, baina ez zuten bihotza martxan jarri ahal izan. Gelditua zen betirako.

Hura iluntzea! Zer zen hura! "Nik hil dut" errepikatzen zuen behin eta berriz Mixel Itzainak, bera izan bait zen omenaldi-antolatzaile-nagusi. "Zer? Zer?" galdetzen zuen Lazkautxikik, zerbait entzun zuenean. Mattinek berriz ez zekien zer esan. Zer zen hura!

Eta zer zitekeen hura, baldin eta jendetza hura enteratu izan balitz, autoa arrankatzen zuen une haretan bertan eta handik metro gutxitara, Xalbador hiltzen zegoela, edo eta iadanik hilda? Eskerrak jendea bidean irratiz enteratu zen, edo etxean etxe-koen bidez. Urepeletik alai zetorren frankok aurkitu zuen aurpegi tristerik. Hori marka!

Ez zuten uste hartantxe antolatu omenaldi hura Mixel Itzainak eta abarrek, eta ez ginen gu ere uste hartantxe bildu Urepelen hainbat eta hainbat bertsozale, euskaltzale eta abertzale. Iparraldean egundaino egin zen euskaldun bilerarik haundiena zioten hangotarrek. Nola mikaztu zitzaigulako gero, goizean izotz xuritan egin genuen gosari alai hura! Ez, ez genuen halakorik espero.

Egun harek kezkatzen zuen bakarra, nik uste, omendua zen. Harek bakarrik zion beldur omenaldiari. Behin eta berriz adierazia zeukan, bere bihotza ez ote zen gauza izango egun hari buelta emateko. Baina haren kezkaz inor ez zen jabetu. Nola bada? Ez al zuen medikuak esaten gaitza, bihotzean ez baina, buruan zeukala? Irudipen hutsak zirela haren ustetako bihotzeko minak? Ai, medikua medikua!

Beldur zen, eta han isildu zen haren ahotsa betirako. Azaroaren zazpia zen eguna; 1976 urtea; iluntzeko 6ak ordua.

Esan eta izan

Ez da noiznahi izaten, norberak uste eta esan duen hura hala dela konfirmatzeko aukerarik. Nik dut oraingo honetan.

Lehengo astekoan esaten nuen, nere ustez gajartzailearen eginkizuna, bertsolaria benetan ari araztea zela. Horretan asmatu behar zela. Eta zaila zela. Aste honetako Argia aldizkariak arrazoi nuela erakutsi dit.

Lazkautxikirekin elkarrizketa bat dakar. Luzez ere bada zerbait elkarrizketa hori, baina, batez ere, mamiz dela iruditzen zait txit aberatsa. Gaur asko esaten den bezala, irakurketa bat baino gehiago izan ditzakeen idazkia da. Nik ere harira datorren hura egingo dut gaurkoz.

Hona besteak beste, lazkoatarraren aitormen biribil hau: "gai txistosotan baino gustorago ibiliko ninduan gai ilunagotan". Beraz ez dago dudarik, gajartzaileak hutsegín egin duela behin eta berriz Lazkautxikirekin.

Nik ez dakit zenbateraino harritua dukeen irakurlea lazkoatarraren ateraldi horrek; baina nik badakit guztiak ez dituela harritu. Lazkautxiki bertatik bertara ezagutzen duenak aspaldi ikasi zuen "Goierriko txoria" ez zela ipuijario hutsa. Bazuela bihotzondo bigun bat, inork uste baino maizago negar eragiten diona. Eta sentimendu haundi eta sa-

konetako gizona zela Joxemieli Iztueta. Ez ziotela jarri apustu gai txistosorik lehengo larunbat gaueko jaialdian?

Bestaldera hartu du, ordea, jendeak, eta bestaldera ere erabili du gaijartzaleak gure bertsolari ernea. Beste bat ere bazen, Joxemielen oso laguna, jendeak horrela hartzen duna. “Irriaren giltza” definitu zuen bekozko-beztun batek. Hura ere, ordea, ez izaki irri huts, eta han ikusi genuen negarrez jendearen aurrean. Egun gogoangarri hura ezagutu gabe geldituko zen bertsolaritza, eta ikuskizun paregabe hark Xalbadorri jarri arazi zizkion bertso harrigarri haiek gabe, Mattin bertatik ezagutzen zuen batek gai hura eman izan ez balio.

Ez du inork esaten bertsolariak negar-malkotan jarri behar ditugunik jaialdietan; baina bai berenetik eta berez kantari jarri behar ditugula, baldin eta entzulegoa bertso onez eta bertso beroz gozatu nahi badugu. Zeinek ez dio antzematen, izan ere, bertsolari bat noiz ari den buru eta bihotz, gorputz eta anima eta noiz ari den kunplimentu hutsetan? Ai horrela ari araziko bagenitu! Arrotzek ere orduan jakingo lukete zenbaiteraino eder den gure bertsolaritza.

Benetan

Gaur bertan izango den jaialdi baterako gaiak prestatzen ihardun behar izan dut egun hauetan. Neronek jartzerik ez dut izango, tartean sartu den zerbaitengatik: baina prestatu, bai, egin ditut. Zailena egin diet, beraz, jaialdia zuzentzea eskatu zidatenei. Zenbaitek uste izaten du, gaijartzea dela lana. Ez da horrela. Prestatzea da lana.

Eta horretan ari naizela, oztopo batekin –betikoarekin– egin dut topo: nondik jo bertsolaria eta nora eraman, kantatzerakoan benetan ari dadin eta ez alegietan, urepeldarrak liokeen bezala. Horretan asmatzea dela uste dut zailena eta beharrena gaijartzaile batentzat. Eta hor hasten dira nere buruhaustek ere, jaialdi bat prestatzen ari naizenean.

Bertsolari guztien eta bakoitzaren iturria bilatu nahi izaten dut, haien jaiolari bide egiteko entzulegoarenganaino. Eta hori bihotzean jaiotzen da denok dakigun bezala. Eta nola zulatu hura berea eman dezan?

Bertsolaria, ikusiz ikasi duen norbait da, eta ez ikasiz ikasi duena. Eta eskola-jakintzaduna baldin bada ere, bertsotan beste horretatik ematen du batez ere. Beste hori da berezen datorrena, eta bertsotan berezkotik eman ohi da. Bertsolariaren esperientzi edo eskarmentu horri nola eragin izan ohi da

nere kezka gai bilaketan hasten naizenean. Hori zultzeko txiri izatea dagokiola uste dut gaijartzaileari.

Eta hori ez da beti lortzen, eta batez ere, ez daiteke lor nolahalako eta nolana hiko gaien bidez. Nolabaiteko gaiak ekartzea ez da zaila. Irudimena dantzan jarritz gero, handik ez bada hemendik, gaiak sortzen dira. Baina nolakoak? Ikasiak eta asmatuak ala asmakeriazkoak? Eguneroko eskarmentuarekin zerikusirik dutenak ala egundaino gertatu ez direnak eta gerta ez daitezkeenak? Asmakeriazkoek ez dezakete inoren benetako eskarmentuak duen jakinduriazko iturririk egundaino ireki.

Nik nola konpondu ez dakidan gaitzetako bat, hori daukatela uste dut gure jaialdiek: bertsolariak benetan ariarazteko gaien eskasia. Baina berriz esaten dut, neronek ez dakidala zein den senda-gaia.

Koldo

Badakit haundiegia dela txoko honetarako, mundu osora bere itzala zabaldu duen gizona. Baina zein euskaldun benetakok du bihotz eta buru hain haundirik, aste honetan euskaraz idatzi behar eta zu beste gairik sor eta sar dakion? Gainera, ez al zara zu ere, euskaraz idatzi izan duen guztia omen den bezala, zeure ahalegintxoaren bat egin bertso kontuetan? Zure obra zeharo irakur dezakeenak aurkituko du, Bilintxen miresle eta Xenpelarren herrikide zinen horrek, bi bertsolari haundi horien moldetan idatzitako zerbait.

Ez da gauza haundia. Zure obra haundiaren barnean hutsa da. Baina hor dago hori ere. Zoritxarrez nere gustorako, baina hor dago. Nik nahiago nuen egon ez balitz. Badakit ez dela erraz beti gonbitaleari eusten, eta nahi eta nahi ez egiten dela leher askotan. Eta badakit gizonarena dela hori ere. Nik nahiago, hala ere, inoiz gertatu ez balitz purrusta hori. Ez zen nolana hikoia izango, zure barrua horrela leherrarazi zuen nazka!

Nik, zure lumarekin eta zure obrarekin erakutsi duzun neurripidea izango dut beti gogoan. Bazenukeen arrazoirik eta aukerarik zure luma bihotzeraino sartzeko bati baino gehiagori. Eta odolkiak ordaindu besterik ez zenuen egingo, hala egin izan bazenu ere; baina ez zenuen egin. Gizalegeari eutsi diozu beti, zuregatik asma-ala guztiak bota direne-

an. Pikardiz bai, baliatu zara erantzuterakoan; baina bekaizkeriarik eta txarkeriarik ez duzu erabili. Konpara ditzala nahi duenak, bestek zuri esanak, eta zuk besteri esanak.

Zure obra, berriz, euskara gauzetan, oreka hutsa izan da. Beste asko eta asko mutur betetik bestera ibili diren sailetan, zuk erdiari eutsi diozu. Dena hutsetik eta berriro-berrirotik egin beharra zegoela uste izan zuen zenbaitek. Zenbaitzurentzat, nahiz lehenxeagoko, nahiz oraintsuagoko, dena egiteke zegoen. Aurretik egin zenak ez zuen deus balio. Hizkuntza berri bat sortu behar omen zen.

Zuk ez duzu hala uste izan. Zure aurretik euskara erabili zutenek, bazuten zer ikasirik gerokoan nondik nora ibili behar zen erakusteko. Zuretzat, haiek ez ziren guztiz gabeak, eta gu ere ez ginen guztiz jabeak.

Benetako jakintsuaren jakinduria erakutsita joana zaitugu, errenteriar argi. Bahin esan nuen, Jainkoak gutaz duen artari zor zindugula; eta gauza bera diot gaur ere.

“Ni ez naiz gerraren zale, baizik pakearen alde” zeniokeen horrek, izan ezazu pakean atsedan.

Ez naiz masokista

Badut lagun pare bat harrituta egon ohi dena, ni hainbeste bertso saiotara joaten naizelako. Batek esan ere esan izandu dit “nik ez dakit nola ez zeran nazkatzen”. Gehiagotan ere, ahal banu, joango nintzatekeela baleki!

Eta ni ez naiz, ustez behintzat, sufrituz disfrutatzten omen dutenetakoa naizelako joaten. Ni ez naiz masokista. Izatekotan ere, sibarita bat naiz, eta akaso, edonista bat. Poesi-zale amorratua naiz, eta pagotxak asto zaharra baino gehiago harrotu izandu nau behin baino gehiagotan. Adin guztietako adiskide minak izan ditut, eta baditut. Janak eta edanak ongi hartzen naute. Fedearen ezin-esan-ala-ko grazia zer den badakit. Egunero eta orduero berritzen naiz gazteriaren ezetasun garbiarekin. On egitea zertaraino ongile den dastatu dut. Barkazioa eskatzearen deuseztapena nolako ukendua den bihotzarentzat ikasia naiz. Eta guzti hori Jainkoari mila aldiz eta mila modutara eskertuaren gozoak burutik hanketaraino jo nau, nik ez dakit zenbait aldiz.

Ez. Ez dut bizitza etsai izan. Ez nau jo eta mazpildu beste batzuk bezala. Ni zordun natzaio. Eta eskertsu nagokio, bai eta gehiago ezer emango ez balida ere. Orduan ere esker ematea izango litzateke nere eginbiderik haundiena.

Beraz nik ez daukat zertan masokista izanik. Ez daukat min-bila ibili beharrik mina hiltzeko. Eta ez noa bertsolarietan minaren sendagai bila. Bertsoaren graziarengatik noa. Eta beti aurkitu du paregabeko zerbait ederzale honek. Ez beti edertasuna bakarrik. Ez beti nahi aina edertasun; baina bai beti beste inon ez bezalako grazi bat. Lehengo igandeko Euskadi Irratiko emanaldia lekuko.

Ikus eta entzun, inolako arruntkeriarik ez duen urepeldarraren saioa Oiartzunen. Eta azter eta esan, badenentz aportaziorik literaturarako. Ikus eta entzun, Uztapidek beraren omenaldi egunean Zestuan eskerrak eman ez kantatzen dituen bertsoak, eta esan badenentz aportaziorik literaturarako.

Entzun gero Urolaldeko bertsolariak beren mai-xu zaharrari kantatzen. Ea zeinek eta nola eta non sor dezakeen horrelako sugar atseginik entzulego batengan. Eta esan gero eta erabaki, masokismoa denentz bertsozaletasuna. Arteak, bere luze-zabalean, edertasun asko du; eta arte-mundu horretan bertsoa da bat. Eta guk Europaren beste arte-motak baldin badauzkagu, bertsoarekin bat gehiago badugu kontinente zaharrak baino.

Bertsolari, eta...

Gaur esan nahi nukeen hau, lehengo astekoan nuen esateko asmoa; eta ez nuen esaterik izan. Beste gauza batzurekin entretenu nintzen, eta lekua bete egin zitzaidan.

Esan nahi nuena, zera zen: Bertsolari-Eskoletan dabiltzanak, literaturako sail guztietara ohitzea eta hezitzea komeniko ez ote litzatekeen, bertsoarekin bakarrik gelditu gabe. Eta ez bertsozale eta bertsolari gehiegi atera daitezkeelako. Ez dago horren bilurrik. Ez da hori.

Nik esan behar banu, eskola horietara doana, mutiko nahiz neskato, hitzaren graziak deiturik doa. Joan diteke esanaren poderioz bakarrik ere. Hori jakina. Baina gehienetan, eskola horietara doan jendea, hitzezko edertasunaren azkureak darma. Eta gai izan daitekeela esango nuke, literatura-remu zabalean, bertsoz aparte ere, izan daitezkeen balioekin gozatzeko eta antzeko lanetan sartzeko.

Har dezagun bertsoetik hurbilen dagokeen sail bat: poesia. Badakit aukera horrek eman dezakeela zer esanik eta sor eztabaidarik. Hala ere, irakurlearen baimenarekin, jo dezagun poesia esaten zaion hori duela sailik hurbilena bertsoak. Ez al daiteke pentsa, bertsolari-eskoletara doazen horiek, badaramatekeela aparteko gaitasun bat, bertsoa ez ezik, poesia ere lantzeko?

Gaurko gure bertsolariek, bertsoak bota bakarrik egiten dute gehienetan. Jarri ere, esateko, ia inork ez du egiten. Eta bertsozko ez den poesia egin izan duen bakarra, nik dakidanez, Amuriza dugu. Eta inork gutxik eskertuko badio ere, nik esan behar dut, gure poesiarik hoberenari ez diola batere zorrik Amurizarenak, noiznahikoa ere den gure poesia hori. Zergatik ez dute izan behar geroan gure bertsolariek berek gure poeta ere? Oraindainoko bertsolariek badakigu zergatik ez duten egin olerkirik. Baina gerokoek?

Eta poesia esaten duenak, beste edozein literatura moetako esaten du. Non aurki daiteke hobeki dohatutako jenderik, edozein eratako idazle izateko ere, eskola horietara doazen horien artean baino?

Nik badakit literaturgintzarako gaitasuna duen guztiak ez direla eskola horietara joango. Baina baita ere badakit, hor biltzen den jende hori ez dela aldrebesena izango, bertsoa ez den edozein literaturgintzarako.

Jesus, Maria ta Jose!!!

Ez al diot izenburu polita jarri, bolara honetan bertsokontuetan dabilen burunda adierazteko? “Aditzeko guztiak ez ditugu aditu” ere ez zegokeen gaizki; baina neri dagokidanagoa dela iruditu zait beste hori.

Inoiz eta inon bada eta, hortxe izan da “esana libre” a Patxi Perurena du izen esaldearen sortzaileak. Jarraitzaileak, berriz, bat eta bi baino gehiago badira izanak. Eta komentatzaileak? Horiek, Belodromoko haiek eta beste hainbeste eta gehiago ere badira izanak. Ni eta nere ingurukoak ere ihardunak gaituzu berriketan, bonba haundi horiek direla eta.

Eta honeraino ere ekarri egin behar bada, esaldearen zipriztinak bederen. Sartu ez, ez naiteke sartu ur haundi horietan nere asteroko agerralditxo honetan. Beste moduzko solasaldirik eta hitzaldirik eta ihardunaldirik merezi du harrotu berria den auzi horrek.

Hemen, izatekotan ere, zera esango nuke nik: esana libre ondo dagoela, eta horrela behar duela; baina esana eta esalea ez nahastekotan.

Zer esan nahi dudan jakin nahi lukeenak, hor dauka azkeneko Argia astekarrian exenplu xoragarri bat. Mikel Hernandez jaunak zenbait kritikagile aipatzen ditu. Eta beraien kritikak gustoko ez dituelako aipatu ere.

Baina badirudi, lanak ez ezik, langileak ere begitako dituela. Ez dakigu kritikarengatik dituen hala, ala direna direlako dituen. Dena dela, kritikagile horien kritikak kritikatzeko partez, kritikagileak berak kritikatzuten ditu, eta jipoitzen, eta deuseztatzen. Eta, besteak beste, bera "jendilaje" horren kofradiko izanaren aitortzen bat ere egiten du.

Gure honetan, egia esan, ez dut horren gauza astunik irakurri. Bada hala ere, han eta hemen, edozein idazle hor idatzitakoaren damutan egoteko ainakorik.

Esana libre behar dugu, baina ez behar ez dena esateko hainbat. Halakoari badakigu zer gertatzen zaion, edo gerta dakioken: nahi ez duena entzun beharra.

Esan beharrak esan ditzagun; baina esanaz, ezalesaz. Gure arrazoiak nekez irabaz dezake ezer besteren itzalaren kontura.

Zer esana

Herriak, uda partean batez ere, asko tiratzen du bertsolaria. Festak dira aitzaki gehienetan. Herri txikiak behintzat behar izaten dute bertsolari pareren bat beren urteko jai horietan. Erroskila hori gabeko onik ez dute zenbait tokitan.

Tira hori dela eta, beti nahi dena ekartzen kostatzen da. Onentsuenak oso aldeaz aurretik hartuak egon ohi dira. "Besteekin" konformatu behar izaten dute herri askotan, gutxiago ibiltzen diren horiekin alegia. Aukerako bertsolariak ekarri ahal izateko, beste urte sasoiak hobeak dira.

Baina dena dela bertsolaria, eta edonongoak festak, arazo bat izango du beti kantura doanak: Zer esan herri hartan eta egun hartan eta jende hari.

Bertsoa egite hutsak badu lanik aski berekin, ona egin nahi bada behintzat. Hori jakina da. Hala ere ez da hori eragozpenik haundiena bertsolari bantentzat kantura doanean, norbaitentzat izan badaitteke ere. Nola esan errazago asmatzen dute zer esan baino.

Egia esan, ez da herruetako bertsotearena bakarrik kontu hori. Jaialdietan ere berdintsu gertatzen zaie. Ederki ikusten da hori helduleku gutxiko bertsolariak baldin badira kantatzen. Denok dakigu badirela bertsolariak helduleku haundia dutenak

lagunarentzat, eta badirela gutxi dutenak. Ez dago izenak esaten ari beharrik. Haundiz izan dezake batek heldulekua. Txikiz izan dezake beste batek. Bada bere bizimoduarengatik gaia eskaintzen duenik. Fisikoak ere eman ohi du hizpiderik. Harengatik edo honengatik hizpidea ematen duten horiek dira heldulekua dutenak. Zerbait tentagarria duen laguna da ona zer esana edukitzeko.

Horrelakoak tartean izan edo ez izan alde haundia dago bertsoarako. Gaijartzaileari ere asko errazten zaio lana horrelakoekin.

Hala eta guztiz ere bertsolaria agortu egin ohi da askotan. Zer esanik gabe gelditzen da. Hori dute arazorik nagusiena gure plazetako kantari-hizlari hauek.

Eta zein da erremedioa? Jakin ezazu.

Nere ustez bertsolariaren beraren eginahal bat ez litzateke txarra. Bere almazena edukitzen saiatu behar du herririk herri ibili nahi duenak. Eta kantatzen doan lekuko berri jakiteak ere ez lioke gaitzik egingo. Ez noski gaizki esaka jarduteko, zer esana edukitzeko baizik. Gaijartzailearen egitekoa ere ez da horixe besterik: bertsolariari hizpidea ematea.

Zer esana edukitzearen arreta horrek balio due-la uste dut bapo afalduta joateak haina.

Zer esan nahi ote da?

“Batek baino gehiagok idatziaren eredura makurtu nahi izan duela bapateko bertsoalaritza” esaten denean, zer esan nahi ote da? Jakingo nuke pozik.

Zera esan nahi ote, bapateko bertsoak ez daitezkeela izan idatziak bezain biribilak? Beraz askoz huts gehiago barkatu beharra dagoela bapatekoei? Esan nahi ote litzateke, gainera, ez dagoela bapatekoa akatsik gabea izan dadin eskatu beharrik? Zer da, izan ere, “idatziaren eredura makurtu nahi” izate hori?

Eta zer ote da “jenero literario autonomo” izate hori? Ez daukala inolako antzik eta zerikusirik idatziarekin? Hau neurtzeko erabili ohi diren neurriak alferrik direla bapatekoa kalifikatzeko?

Nik ez dakit zer esan nahi den. Eta ez dakit zertsu esan nahiko litzatekeen ere.

Nik jakin uste dudana zera da: ez dudala inoiz entzun bertso hanka nahiz beso motzik, herriak go-goan jaso eta erabili dituen bapatekoetan. Den-dena biribilak dira. Ez dute akatsik ez makatsik. Kurioso ez bada gero gusto xeble hori.

Oraindik orain Txirritaren batek harritu nau izugarri. Mundu guztiak badaki gure hernaniarrak bertso sonatu bat kantatu zuela 1936ko Txapelketan. Gerra zuen gai, eta bere mutilzahar egoeraz

baliaturik, ahoz-aho dabilen bertso famatu hura
bota zigun Lujanbiok.

Aspalditik nekien nik buruz bertso hura. Zeinek
ez daki? Baina ez nekien liburuan dagoen bezala.
Eta nik ez bezala kantatzen askori entzun izan diot;
baina inori ez diot entzun liburuak dakarren beza-
la. Nik dakidan bezala ere inork gutxik kantatu ohi
du. Hona nola agertzen den liburuan:

Zenbat errezo egin izan det
nere denboran elizan
ta pozik nago ikusirikan
pakean nola gabiltzan.
Ni naizen bezin kobarderikan
iñor ezin leike izan
semeak gerra ez joateatik
mutilzar gelditu nintzan.

Esan dut lehen, bertsolari bakoitzak bere erara
kantatzen duela. Esan ez dudana, zera da: denei
paperean datorrena baino birilagoa entzun diedala.
Berezkoa nola izan zen jakiterik ez dago ziur. Ez zen
zintatik jaso izan. Laubost lagunen artean entzun-
ala kopiatu izan zen. Hala ere paperekoa berezkoa-
goa dela uste dut nik besteon aldakiak baino. Baina
jendeak ez du paperekoa ematen. Hobetua ematen
du.

Zergatik? Bertsoak, ona izateko, guztiz behar
duelako ona izan. Eta ez ateraldiz bakarrik.

“...Axala...”

Bertsoa zer den eta zer ez, zein bertso-moeta lagundu behar litzetekeen eta zein ez, eta abar, bada solasik edo hizketarik gure artean. Okerreko bidea har erazi zitzaiola bertsoari esan duenik ere izan da. Zorionez, ordea, bildu omen da berriro bere bide jatorrera bertsolaritza.

Nik, egia esan, ez dakit non galdu zuen bere bidea bertsolaritzak. Eta are gutxiago dakit, jakina, errepidearen zein aldetara okertu zen. Goiegitik ala beheragitik jo zuen.

Nik dakidana, zera da: behin alde batera egin eta behin bestera egin ibiltzeko ohitura handia dugula gizakiok. Hori erakusten du historia guztian zehar gizakerak. Ez gara nonbait errepidezaleegiak. Eta nahiago izaten dugu bazterrik bazter ibili.

Horrelakorik gerta ez dakigun bertsolaritzan, maixu handi baten iritzia dakart nik gaur honera. Hura ere zerbaitek kezkatua zeukan, eta garbi adierazten du zertsu den bertsoa berarentzat. Ikus nola mintzo den Xalbador “Odolaren mintzoa” liburua-ren sarrerako solasaldian: “Rimaren bilatzea baldin bada enetzat segurik lanik zailena, hori da ere gauzarik premiatsuena pertsuaren egiteko.

Azken denbora hauetan, pertsuzale batzuek aterra daukute ez duela rimak inportantziarik haundiena pertsu batean; barnean zer duen dela gehienik

konda. Eta banago, hori entzunik edo, zonbait entzule ez ote diren egoiten gaizki rimatu pertsu bat entzun arte, esku zartaka hasteko!

Behar bada, pertsulari batzuek ere atseginekin entzun dute ateraldi hori, askatasun horrek arint lezakelakotz gure lanaren zailtasuna. Baina ez ditela lokar. Pertsulariak pertsuak egin behar ditu. Nolakoak egiten diren, hori bertzerik da. Bainan arrozoinamendu txar bat ongi rimaturik, pertsuago da, arrozoinamendu on bat gaizki rimaturik baino. Iririk hoberenarekin egin oreka ere ez da ogia, labean axala egin artean”.

Arkibidea

| | |
|--|----|
| Sarrera | 7 |
| Ama nerea | 11 |
| Munduak jakin dezan | 14 |
| Bertsozale haundi bati | 18 |
| Añorgako sakristau zena | 20 |
| Aretoa | 23 |
| Rober Alfonso | 25 |
| Mikel Atxaga | 27 |
| Besoetako iloba txapeldun | 28 |
| Miel Aranalde (1932-1996) | 30 |
| Urepelen | 31 |
| Antton Ayestaran Pikabea (1939-1986) | 32 |
| “Biba, lagun” | 35 |
| “Lagunaren kantu-hotsa” | 40 |
| Gure Maite | 43 |
| Herriaren otoitza | 46 |
| Amezketan | 48 |
| “Zure oroitzapena” | 50 |
| Nere irakasle lagunaren despeiran | 52 |
| Gabon agurrak | 55 |
| “Haritz Aranekoa” | 61 |
| “Ene bihotzaren egun” | 62 |


| | |
|--|-----|
| Poesi-nahiko bertsoak | 67 |
| “Hirutasun-ispilu” | 68 |
| Lehen eta orain..... | 70 |
| Jainko-arpegi gurean..... | 74 |
| Bertsolaritza gaur | 79 |
| Xinpletasuna | 85 |
| “Ederra bertsoa” | 87 |
| Xalbador. 9 Urte | 89 |
| Alderdirik neurterrezena..... | 91 |
| Ofiziotako bertsoak..... | 93 |
| Bertsotan aspertu..... | 95 |
| “Nahi dezunian” | 97 |
| Giltzak..... | 99 |
| Basarri-Uztapide..... | 101 |
| 1936: Txirrita txapeldun | 103 |
| Patxi Etxeberria | 105 |
| Agindua zor, eta beste..... | 107 |
| Kezkak | 109 |
| Buruan daukadana | 111 |
| “Botila bat ur” | 113 |
| Txaloak | 115 |
| Inoiz egin ez nuena..... | 117 |
| “Nik ezingo nitek” | 119 |
| “Alegiazko gai batzuetaz” | 121 |
| Gaijartzailea | 123 |
| Ilusioak Baldan | 125 |
| Txapelketa edo errekreoa..... | 127 |
| Nafarroako bertsolari txapelketa | 129 |
| Sagardotegiak eta unibertsitatea..... | 131 |
| “Joxe Tolosa” asko | 133 |

| | |
|--|-----|
| Gazteak nagusi..... | 135 |
| “Klasiko gazte bat” | 137 |
| “Agur eta ohore”, Urola | 139 |
| Bilbotik bueltan..... | 141 |
| Bertsoa, bertso; txistea, txiste..... | 143 |
| Azkar eta ondo..... | 145 |
| Joxe eta biok | 147 |
| Doinuak edo aireak | 149 |
| “Ezusteke epela” | 151 |
| Martintxo hil omen da | 153 |
| Don Anton Garro Abaroa | 156 |
| “Hura zen don Manuel, zu zara Joan Mari” | 159 |
| Imanol Lazkano | 161 |
| Ramos Azkarate Otegi..... | 163 |
| Bilintx | 165 |
| Zaharrak berri? | 167 |
| Beti berdin | 169 |
| Zaldibikoa | 171 |
| Liburua | 173 |
| Bertsolari txapelketako liburua..... | 175 |
| Berri on eta txar | 177 |
| Zertarako?..... | 179 |
| Hernandorena | 181 |
| Pauso haundi bat | 183 |
| Bertsolaritza loretan | 185 |
| Jon Azpillaga | 187 |
| Egun biribila | 189 |
| Bizkaiko Txapela | 191 |
| “Ziri bat sartu dit neri”..... | 193 |
| Gogoa duten orduan..... | 195 |

| | |
|-------------------------------|-----|
| Xalbador..... | 197 |
| Esan eta izan..... | 199 |
| Benetan..... | 201 |
| Koldo..... | 203 |
| Ez naiz masokista..... | 205 |
| Bertsolari, eta... .. | 207 |
| Jesus, Maria ta Jose!!! | 209 |
| Zer esana | 211 |
| Zer esan nahi ote da? | 213 |
| “...Axala...” | 215 |



1051097
G-129/7



Eskuetan hartu hutsarekin igertzen zaio liburuari bi zatitan banatua dagoela: bertsozkoa lehena eta prosazkoa edo hizlaurzkoa edo hitz lauzkoa bigarrena.

“BIHOTZAK DION HURA” izena, batez ere, lehenengo partearengatik da. Sendimendu haundi batzuen adierazpena dela aurreneko bertsoetik ikusten da.

Zer edo nor da, izan ere, sendimendu-sortzaileragorik ama baino? Eta liburu honetan hari eskaintzen zaizkio lehenengo hamarrek.

Bigarren partea artikuluxkek osatzen dute. Ia denak DEIA egunkarian agertuak asterik aste. Bakoitza bakoitz da artikuluxka horietan. Tarte-ka bakarrik dute lotura bata bestearekin. Bertso-eskoletan-eta ederki balia daitezke, aldiko bat edo beste irakurtzen dela, bilera horietarako hizpide emanez.

Irakurleak arkituko du argitasunik eta zehaztasunik eta erakutsirik bertsoari eta haren inguru guztiari dagokionez. Bertsoaren munduan luzaro ibili den norbaiten fruitua da.

ISBN 84-89080-86-0



9 788489 080867

G-